

TXOSTENA IXUSTENA

47

MASKULINITATEAREN KUTXA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

**Maskulinitateen eraikuntza, jarrerak
eta inpaktua Euskal Autonomia
Erkidegoko biztanlerian**



Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

MASKULINITATEAREN KUTXA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

**Maskulinitateen eraikuntza, jarrerak
eta inpaktua Euskal Autonomia
Erkidegoko biztanlerian**

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunderako
eginiko txostena

2024ko azaroa

IZENBURUA:	Maskulinitatearen kutxa Euskal Autonomia Erkidegoan. Maskulinitateen eraikuntza, jarrerak eta inpaktua Euskal Autonomia Erkidegoko biztanlerian
EDITOREA:	Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
EGILEA:	Centro Reina Sofía de Fad Juventud. Avenida de Burgos, 1. 28036 Madril.
TALDE TEKNIKOA:	Sanmartín Ortí, Anna; Kuric Kardelis, Stribor eta Gómez Miguel, Alejandro
MAKETAZIOA ETA JARRAIPENA:	Drus Jiménez
DATA:	2024
HITZ GAKOAK:	Maskulinitateak, Estereotipoak, Berdintasuna, Genero-indarkeria

AURKEZPENA	11
SARRERA	15
1. XEDEAK	23
2. METODOLOGIA	27
3. AURKIKUNTZA NAGUSIAK	33
4. EMAITZAK AZTERTZEA	47
4.1. Maskulinitatea eraikitzea	49
4.1.1. Maskulinitatearen kutxa Euskal Autonomia Erkidegoan	49
4.1.2. Genero-sozializazio bereizgarria	54
4.2. Egoera pertsonala eta portaerak	61
4.2.1. Gogobetetasuna eta zoriona	62
4.2.2. Buruko osasuna eta ondoezak	63
4.2.3. Babes sozioemozionala	67
4.2.4. Erakargarritasuna eta itxura fisikoa	72
4.2.5. Presio soziala	75
4.2.6. Jokabide arriskutsuak	81
4.2.7. Pairaturiko eta gauzaturiko jazarpen- eta indarkeria-egoerak	83
4.3. Balioak eta sinesmenak	88
4.3.1. Genero-rolen inguruko posizioak	89
4.3.2. Feminismoaren aurreko posizioak	91
4.3.3. Bikote-harremanei buruzko ikuspegiak	96
4.3.4. Genero-indarkeriari buruzko ikuspegiak	98
5. ONDORIOAK	103
5.1. Genero-arrakala eta belaunaldien arteko arrakala	105
5.2. Kutxako hiru posizioak eta beren ondorioak	110
5.3. Azken hausnarketak	116
6. ERREFERENTZIAK	121
7. ERANSKINAK	127
7.1. Laginaren ezaugarriak	129
7.2. Maskulinitatearen kutxako profil soziodemografikoak	131
7.3. Galde-sorta	134

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa. Ohiko maskulinitate hegemonikoaren inguruko ikuspegia. 15-65 urte bitartekoak; globala. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	50
2. Grafikoa. Ohiko maskulinitate hegemonikoaren inguruko ikuspegia. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	52
3. Grafikoa. Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak. 15-65 urte bitarteko biz- tanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	53
4. Grafikoa. Txiki-txikitatik “BENETAKO GIZON BATEK” eta “BENETAKO EMAKUME BATEK” portaera zehatz bat dutela entzunaz hazi diren pertsonak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	55
5. Grafikoa. Txiki-txikitatik “BENETAKO GIZON BATEK” eta “BENETAKO EMAKUME BATEK” portaera zehatz bat dutela entzunaz hazi diren gizonak. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	56
6. Grafikoa. Gizonak definitzen dituzten ezaugarriak. 15-65 urte bitartekoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	58
7. Grafikoa. Pertsonalki definitzen dituzten ezaugarriak, beren aburuz (autohautematea). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	59
8. Grafikoa. Norberaren iritzia, gizarteak “gizon izateari” buruz duen ideiarekin gizon izateko duen modua zer neurritaraino bat datorren azalduz; BAT-ETORTZE ALTUA (7-10, 0-10 bitarteko eskalan, BAT-ETORTZE ERTAINA (4-6), BAT-ETORTZE BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	60
9. Grafikoa. Zorion-maila; ZORION ALTUA (7-10, 0-10 eskalan), ZORION ERTAINA (4-6), ZORION BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko biztanleria; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	62
10. Grafikoa. Zorion-maila; ZORION ALTUA (7-10, 0-10 eskalan), ZORION ERTAINA (4-6), ZORION BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	63

11. Grafikoa. Buruko osasuneko arazoak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%) ...	64
12. Grafikoa. Buruko osasuneko arazoak eta suizidio-ideiak esperimentatzea. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	65
13. Grafikoa. Suizidio-ideiak izatea. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	66
14. Grafikoa. Suizidio-ideiak izatea. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	67
15. Grafikoa. Arazo pertsonal baten aurrean nori eskatzen zaion laguntza. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	68
16. Grafikoa. Tristura edo depresio unetan nori eskatzen zaion laguntza. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	69
17. Grafikoa. Lagunekin (gizonezko zein emakumezko) gai pertsonalez eta emozionalez hitz egiten eroso sentitzen diren pertsonak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	70
18. Grafikoa. Lagunekin (gizonezko zein emakumezko) gai pertsonalez eta emozionalez hitz egiten eroso sentitzen diren gizonak. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	71
19. Grafikoa. Erakargarritasun-mailari buruzko autohautematea (nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa); ERAKARGARRITASUN ALTUA (7-10, 0-10 eskala batean), ERAKARGARRITASUN ERTAINA (4-6), ERAKARGARRITASUN BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko biztanleria; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	72
20. Grafikoa. Erakargarritasun-mailari buruzko autohautematea (nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa); ERAKARGARRITASUN ALTUA (7-10, 0-10 eskala batean), ERAKARGARRITASUN ERTAINA (4-6), ERAKARGARRITASUN BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen inguruko ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)....	73

21. Grafikoa. Kanpoko irudiaren (itxura fisikoa) inguruko kezka-maila. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	74
22. Grafikoa. Kanpoko irudiaren (itxura fisikoa) inguruko kezka-maila. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	75
23. Grafikoa. Sentitutako presio soziala; PRESIO ALTUA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	76
24. Grafikoa. Sentitutako presio soziala; PRESIO ALTUA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	78
25. Grafikoa. Jokabide arriskutsuak gauzatzea (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	81
26. Grafikoa. Jokabide arriskutsuak gauzatzea (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	82
27. Grafikoa. PAIRATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	84
28. Grafikoa. PAIRATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	85
29. Grafikoa. GAUZATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	87
30. Grafikoa. GAUZATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	88
31. Grafikoa. Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	89

32. Grafikoa. Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	90
33. Grafikoa. Beren burua feministatzat duten gazteak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	91
34. Grafikoa. Beren burua feministatzat duten gizonak. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)	92
35. Grafikoa. Genero-desberdintasunen eta feminismoaren inguruko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	93
36. Grafikoa. Genero-desberdintasunen eta feminismoaren inguruko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	95
37. Grafikoa. Bikote-harremanei buruzko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%) ...	96
38. Grafikoa. Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	97
39. Grafikoa. Genero-indarkeriari buruzko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%) ...	99
40. Grafikoa. Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	100
41. Grafikoa. Maskulinitatearen kutxaren eskala. 15-65 urte bitarteko biztanleak; aldagai soziodemografiko nagusiak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (batezbestekoa; 1-4 eskala)	132

42. Grafikoa. Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; aldagai soziodemografiko nagusiak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%).....	133
---	-----

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula.	Sentitutako presio soziala. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera; 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (batezbestekoa; 0-10 eskala)	80
2. Taula.	Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak eta eskala. 15-65 urte bitarteko biztanleak; aldagai soziodemografiko nagusiak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (batezbestekoa; 1-4 eskala) (%).....	131



AURKEZPENA

Azken hamarkadetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako egin diren aurrerapenak eztaba daezinak diren arren, genero-erolek gizonen eta emakumeen portaerak agintzen jarraitzen dute. Emakumeek oso umetatik jasotzen dituzte edertasunarekin, ontasunarekin, diskrezioarekin, zaintzarekin edo mendekotasunarekin lotutako aginduak, eta gizonak, berriz, beren maskulinitatea emakumeen gainetik egotearen ideian oinarritu behar dela ikasten dute, bai eta maskulinitatearen ezaugarriak, besteak beste, indarra, lehiakortasuna, agresibitatea edo emoziorik ez adieraztea direla ere. Maskulinitate-modu nagusi horrek betikotu egiten ditu genero-desberdintasunak, eta eragin negatiboa du pertsonen arteko harremanetan, batez ere emakumeen bizitzan; baina gizonei ere eragiten die, eta, besteak beste, mugatu egiten ditu haien jarrerak, adierazpen-gaitasuna eta lotura emozionala.

EAEko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Estrategiak berdintasuna lortzeko gizonen inplikazioa printzipio orokor gisa jasotzen dute, eta botere publikoei eskatzen diete, zeharka eta ekintza espezifikoaren bidez, gizonak berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka kontzientziatzeko, erantzukizuna hartzeko, parte hartzeko eta inplikatzeko, bai eta berdinzaleak ez diren maskulinitateak zalantzan jartzeko eta desagerrarazteko ere.

Emakundek 2007. urteaz geroztik kudeatzen duen Gizonduz zerbitzuari esker, hau da, gizonekin eta maskulinitateekin berdintasunaren alde lan egiteko euskal zerbitzuari esker, Euskal Autonomia Erkidegoa erreferentea da gizonekin berdintasunaren alde egiten den lanean. Esperientzia horren ondorioz, badakigu eremu horretan politika publiko eraginkorrak inplementatzeko ezinbestekoa dela maskulinitate hegemoniko tradizionalari buruzko ikuspegiak dituzten ondorioak ebaluatzeko aukera ematen duten azterlanak eta datuak izatea. Zehazki, aztertu behar da maskulinitate horiek nola eragiten duten genero-erolekin, bikote-harremanekin eta indarkeria matxistarekin lotutako balioetan eta iritzietan.

Azterlan honek premia horretan lagundu nahi du, eta, horretarako, maskulinitate tradizionalak pertsonen bizitzari eta ongizateari nola eragiten dieten sakon aztertu dugu. Ikerketa honen bidez, elkarriketa informatua sustatu nahi dugu, eta maskulinitate askotarikoak, berdintasunezkoak eta osasungarriak sustatzen dituzten estrategia eraginkorrak garatu.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Reina Sofía de Fad Juventud zentroari eta bere taldeari, Emakunderentzat azterlan hau egiten erakutsi duten jarreragatik, profesionaltasunagatik eta egindako lan onagatik.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaritza



MASKULINITATEEN IKERLANAK

Generoa gizarte- eta kultura- konstruktua bat da: gizarte batek gizonentzat, emakumeentzat eta beste generoetako pertsonentzat egokitzen dituen rol, portaera, jardura eta ezaugarriak lotuta dago. **Genero-sozializazio prozesuez** hitz egitean txiki-txikitatzen, eta hazkuntzaren eta gizarte-ingurunearen bitartez barneratzen eta naturalizatzen diren eredu ideal, portaera, keinu.

Behin eta berriz errepikatzen diren egintza performatibo ezberdinen bitartez, gizarteak arautzen duten gizarte-arauetara hein handiagoan edo txikiagoan egokitzen den genero-nortasun baten itxura sortzen da. "Normala" eta "onargarria" dena erabakitzen duten botere-egiturek inposatzen dituzte genero-arauak. Arau horiek oso errotuta daude gizartean eta, ondorioz, naturalizatzen dituzte dirak nahiz eta, egiaz, gizarte- eta kultura-praktiken emaitza diren (Butler, 2001; González Gabaldón, 1998). Maila indibidualean genero-arauak asaldatzeko aukera badago ere, ohiko itxaropenak gainditzen dituzten egintza performatibo bidez, badaude oraindik genero-aginduek eta gizarte-itxaropenez osaturiko tipo idealak, generoa irudikatzeko modua baldintzatzen dutenak (Cantos Vicent eta Roche Alonso, 2018).

Maskulinitatea da gizarte bakoitzak gizonari egotzen dien praktika, portaera, balio eta eginkizunen multzoa (Rodríguez del Pino et al., 2021). **Fase ezberdinak** bereiz daitezke **maskulinitatearen nozioa soziologiaren eta kultura-ikerlanen arloan** erabiltzen hasi zenetik, beti ere lotura estuan teoria feministekiko (Edwards, 2006; Wiegman, 2012).

1970eko hamarkadan sexu-rolen paradigma garatzen hasi zen. Honek, sozializazioak maskulinitatearen eraikuntzan eta barneratzean eta prozesu horiek gizonen ongizatean izan zezaketen eragin negatiboetan eta kalteetan jarri zuen bere arreta (Messner, 1998). Ondorengo osagaiak nabarmendu ziren, besteren artean: gizartearen presioa genero maskulinoari loturiko estereotipoak eta aginduei egokitzeko orduan, errepresio emozionala edo errendimendu ekonomiko, profesional edo sexual zehatz batera iristeko beharra.

1980ko hamarkadan maskulinitateak aztertzeke korrante berri bat agertu zen: sexu-rolen paradigmaren erredukzionismoa kritikatu eta politizatuago eta feminismoak gertuago zegoen jarrera bat hartu zuen. Aurreko ereduari egiten zion kritikaren funtsa zen **maskulinitatearen kontzeptualizazioaren** abiapuntua, ordura arte, ikuspegi mendebaldar, zuri, heteronormatibo eta klase ertainekoa zela eta etnia, arraza, klase, desgaitasun edo sexu-orientazioari zegokienez beste maskulinitate mota batzuk gorpuzten zituzten pertsonak subordinatu eta zapaltzen zituela. Esparru horretan, funtsezkoa da Raewyn Connell (1987) egilearen lana eta "maskulinitate hegemonikoaren" bere definizioa: emakumeengan ez ezik, eredu hegemonikotik at dauden beste gizonengan ere boterea, kontrola eta eragina duten maskulinitate menderatzaileen multzoa. Logika horrek, maskulinitatearen azterketan sekzio

arteko zeharkako ikuspegi battxertatzea ahalbidetzen du (Domínguez eta Otero, 2018).

Maskulinitate hegemonikoa pribilegioen arautzaile bilakatzen da, gizonak menderatzaile eta independente izendatuz eta emakumeak, aitzitik, hauskor eta mendeko. Honela, denboren, espazioen eta gizarte-eginkizunen banaketa-desoreka betikotzen du. Maskulinitate-eredu hori mantentzen duten sinistreak **genero maskulinoaren mandatuei** lotuta daude: besteren artean, autosufizientzia eta independentzia, sendotasuna eta indarkeriarekiko lotura, agintea edukitzea familia patriarkala bezalako hierarkia-egitura batean eta emakumeen eta “hain maskulinoak ez diren” gizonen gaineko nagusitasuna. Maskulinitate hegemonikoa, aldi berean, **feminitateari kontrajaria** egituratzen da, konkistatu eta demostratu beharreko eta emakumeen esentziarekiko ezberdintasun gaindiezinak dituen esentzia maskulino baten existentziatik abiatzen baita (Bonino, 2002). Genero-ordena hori eraiki eta betikotzeko, ondorioz, Connellen “**feminitate nabarmendua**” (1987: 183) delakoa ezinbestekoa bilakatzen da. Horren ezaugarri nagusia da gizonen interesetara eta poztasunera egokitzen dela, ereduaren ugaltzea eta, honela, genero-ordenaren eraikuntza eta berreraikuntza erraztuz. Feminitate-eredu horren oinarria da emakumeen otzantasuna eta mendekotasuna gizonen aurrean, posizio horrekiko atxikipen eta gozamenetik, gizonentzako onuragarriak diren ereduak erreproduzitzen dituen arren (Ranea, 2021).

1990eko hamarkadan zehar, maskulinitateak ikertzeko arloa nabarmen hazi zen, gai eta teoria berriak garatu zituen eta gizarte- eta giza-zientzien diziplina ezberdinetara hedatu zen, bai eta munduko txoko berrietara ere, generoaren diziplina arteko ikerketaren funtsezko osagai bilakatu arte. Esparru horretan, maskulinitateen ikerketak teoria posestrukturalisten eta poskolonialen eragina jaso zuen eta normatibitatea, performatibitatea eta sexualitatea bezalako osagaiak jorratu zituen (Butler, 1988, 2001). **Azken hamarkadetan**, maskulinitateen ikerlanek aniztasun enpiriko eta tematiko handiagoa agertu dute eta bi korrante nagusitan egituratu dira: alde batetik, ikerketa soziologikoaren ikuspegi bat, ondoko osagaiak barneratu dituen, besteren artean: maskulinitatearen krisia edo pitzatzea, gizonen erantzunak mugimendu feministen aurrean, maskulinitatearen eta indarkeriaren arteko lotura edo maskulinitate hegemonikoaren desbideratzeak. Eta, bestetik, sexualitatea eta queer teoria, genero-performatibitatea eta moda, kultura-gailuen kontsumoa eta ekoizpena edo gorputza eta gorpuztasuna bezalako gaiak aztergai izan dituzten maskulinitateari buruzko kultura-ikerketa ugari garatu dira. .

Ikerlan honek maskulinitatea egungo gizartean, Euskal Autonomia Erkidegoan zehazki nola eraikitzen den eta aipatuak gizonen eta emakumeen sozializazioan dituen eraginak aztertu ditu.

MASKULINITATEAREN KUTXA

Estatu Batuetan, Erresuma Batuan eta Mexikon gizon gazte izateko dauden moduak alderatu zituen **Equimundo —Promundo US** iraganean— *La caja de la masculinidad: un estudio sobre lo que significa ser hombre joven en Estados Unidos, el Reino Unido y México* (Heilman et al., 2017) izeneko lanetik hartu dugu “**maskulinitatearen kutxaren**” ideia. Ikerlan hori oinarri hartuta, **Centro Reina Sofía de Fad Juventud** gure metodologia-aparatu propioa garatu dugu maskulinitatearen kutxa eraiki eta Espainiako gazteen azterketan aplikatzeko (Kuric et al., 2022; Sanmartín Ortí et al., 2022). Connellen maskulinitate hegemonikotik abiatu eta “**ohiko maskulinitate hegemonikoaren**” kontzeptua garatu dugu maskulinitatearen kutxan gorpuztu dugun erreminta teoriko-metodologikoa eraikitzeko.

Horretarako, —ohiko ikuspegi itxi batetik— gizon izateak zer esan nahi duenari buruzko **estereotipoak, aurreiritziak, balioak, sinesmenak eta mandatuak** biltzen dituzten **adierazleen** zerrenda bat¹ erabili da. Adierazle horiek ondoko dimentsioen inguruan artikulatzen dira:

- 1. Kalteberatasun (eza).** Arriskuei aurre egiten dien gizona, inoiz kaltebera agertu ez eta bere itxura zainduko ez duena.
- 2. Heterosexualitatea.** Gizona, feminitatearen kontrakoa eta zis-heterosexualitatearen edozein disidentzia gaitzesten duena.
- 3. Hornitzailearen rola.** Gizona, segurtasunaren, egonkortasunaren eta mantenuaren bermatzaile emakume zaintzailea eta gizon hornitzailea oinarri dituen ohiko familia nuklearraren eredu.
- 4. Hiper)sexualitatea.** Gizona, sexu-harremanetarako eskuragarri beti; eta aipatuak izateko beharra duena beti.
- 5. Indarkeria.** Gizona, emakumeen kontrolatzaile eta bozeramaile; hemen barruan sartzen da ere indarkeriaren erabilera zilegia, ordena mantentzeko erreminta gisa.

Kutxaren adierazleak kuantitatiboki neurtzen dira galde-sorta baten bitartez. Bertan, **ohiko maskulinitatearen baieztapenekin —adierazleak— erantzuleak zenbateraino dagoen ados galdetzen da, 1etik 4ra arteko eskala batean** (1 = Guztiz desados; 2 = Desados; 3 = Ados; 4 = Guztiz ados). Erantzunak oinarri hartuta, **adierazle guztien batezbesteko aritmetikoa** kalkulatzeko da eta, emaitzaren arabera, kasuak “kutxaren barruan” edo “kutxatik at” (edo “ertzean”) daudela zehazten da. Honela, kutxarekiko okupatzen diren posizioek **“ohiko maskulinitate hegemonikotzat” jo dugun horrekiko** dagoen adostasun-maila agertuko dute.

- **Kutxaren barruan.** Kutxaren “barruan” daudenek eskuragarri dagoen ohiko maskulinitatearen ereduari gogor eta modu setatsuan helden diote, eredu horrek bere gizarte-eginkizuna galdu duen arren berdintasunean eta norbanakoen askatasunean oinarritutako gizarte honetan. Pertsona horiek, gizontasuna eta ohiko genero-mandatuak larriki goraipatzen dituzte.
- **Kutxaren ertzean.** Erdibideko posizio batean, kutxaren “ertzean” daudenek zailtasunak agertzen dituzte inguruarekin harremanak izateko, iraganean ohiko ereduaren sustatzen ziren erreferentzien eta balioen galera kontzientearen aurrean duten nahasmen-eta mehatxu-sentimenduaren ondorioz.
- **Kutxatik at.** “Kutxatik at” daudenen ezaugarri nagusia da ohiko maskulinitate-eredutik aldentu direla, era kontziente edo ez hain kontziente batean, beren nortasun propioa eraikitzeko oinarri gisa.

1 “Maskulinitatearen kutxa” aldagaiaren eraikuntzari buruzko informazio gehiago, metodologiari buruzko atalean.

AURREKARIAK. CENTRO REINA SOFÍA DE FAD JUVENTUD IKERLANAK

Fad Juventud urte asko daramatza bizi dugun errealitatearen gizarte-hautematea eta eraikuntza soziokulturala aztertzen, gazteen subjektibotasuna nola egituratzen den eta munduan okupatzen duten tokia islatzeko. **Fad Juventud** fundazioaren ikerketa saila, **Centro Reina Sofía**, gazteen errealitatea ikertzeko eta hedatzeko espazio bat da eta proiektu hau zentroko taldea aspalditik garatzen ari den gazteen eta generoaren inguruko ikerketa-ildoaren barruan kokatzen da.

Orain arte pilatu dugun eskarmentuari esker joerak antzeman ahal izan ditugu gazteek beren buruari, beren kideei eta beren sozializazio-inguruneen buruz dituzten diskurtso eta hautemateetan. Genero-estereotipoak, etxetik barruko eta kanpoko rolei, adiskidetasun- eta bikote-harremanei edo sexualitateari eta indarkeriei loturiko gaiak aztertu ditugu. Gai anitzen lantzeari eta 2017tik aurrera bi urtean behin egin ditugun barometroak (Ballesteros et al., 2017, 2019; Rodríguez et al., 2021; Sanmartín et al., 2019; Sanmartín et al., 2024) luzetarako azterketak egin eta joerak hautemateko eskaintzen diguten aukerari esker, aurrerapenak eta atzerapenak identifikatu dira Espainiako gazteek azken urteotan berdintasunarekiko eta sentimendu feministarekiko agertzen dituzten jarreretan. **Zentroaren ikerketek frogatu dutenez, genero-estereotipoak gizonen eta emakumeen sozializazio-prozesuak eta nortasun-eraikuntza baldintzatzen jarraitzen dute.** Aldeak argiro islatzen dira beren hitzaldietan, non izaera ezberdineko ezaugarri ezberdinak identifikatzen diren, xede eta lehentasun ezberdinak bilatzen dituztenak, eginkizunen banaketa zehatz baterako alde aurretik prestatzen dituzten bitarteko eta baldintzekin eta, funtsean, gizarte-eredu berezi bat, patriarkatua hain zuzen ere, eraiki eta mantentzeko osatzen direnak.

Oso polarizatuta dauden posizioak identifikatu ditugu, mutil eta nesken artean, nortasunei eta genero-atribuzioei dagokienez. Aipatuak, gehienbat, generoak kutxa itxi eta kontrajarritzat (femeninoa maskulinoaren aurrean) hartzen dituen dikotomia-begirada batetik hautematen dira oraindik. Horrez gain, **feminitateari** (arduratsuak, zaintzaileak, sentiberak edo beren itxuraz kezkatuta) **eta maskulinitateari** (aktiboak, azalekoak, posesiboak edo bortitzak) **loturiko ohiko estereotipoak pisu handia dute oraindik imajinario kolektiboan.**

Maskulinitatea, bereziki, ohiko genero-rolen aurrean oso malgutasun gutxi duen kategoria gisa agertzen da. Emakumeek, aitzitik, mandatu horien aurrean urratzaileagoak diren ideologia-posizioak agertzen dituzte. Ohiko bikotearen defentsa, bikotearen barruan “ni”-ari garrantzia kentzea, etxetik kanpoko emakumeen lana zigortzea edo bereizkeria-egoerak onartzea bezalako osagaiei dagokienez, **gizonek askoz kontserbadoreagoak diren jarrerak agertzen dituzte.** Horren erakusle dira *Barómetro de Juventud y Género 2023* azken barometroaren (Sanmartín et al., 2024) emaitzak: “mutil batek bere neska babestu behar du” (gizonen % 53 eta emakumeen % 35) edo “jeloskortasuna maitasunaren adierazgarri da” (% 37 eta % 17, hurrenez hurren) baieztapenekin ados daudenen portzentajea 20 puntu inguru altuagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino. Familia-eredu patriarkalaren ikuspegiari dagokionez, gizonen % 40k uste du emakumeak jaiotzez hobeto prestatuta daudela seme-alabak zaintzeko (% 32k emakumeen artean); gizonen % 31k (% 20k emakumeen artean) dio emakumeek benetan nahi dutena dela etxe bat sortzea; eta gizonen % 27k (emakumeen % 17k) uste du gizonen ardura dela familiaren mantenua bermatzea.

Azken urteotan, egindako jarraikako barometroek agertzen duten bezalaxe, **emakume gazteek aurrerapen txikia agertzen dute berdintasunerantz, jarreretan, posizioetan, ezberdintasunak eta estereotipoak ezbaian jarritz eta berdintasunaren aldeko apustu handiagoa eginaz, bederen; gizonak, aitzitik, geldituta geratu dira edo atzera egin dute ere zenbait alderditan**. Horren erakusle da **sentimendu feministaren bilakaera**: 2023an, emakumeen % 57k dio feminista dela, 2017an baino hamar portzentaje-puntu gehiago (2021ean, ordea, behera egin zuten zertxobait). Gizonen kasuan, bestetik, 2017 eta 2019 bitartean dezente egin zuen gora beren burua feministatzat zutenen portzentajeak (% 23,6tik % 37,3ra) baina 2019 eta 2023 bitartean portzentaje horrek 10 puntu egin du behera, % 26an kokatzeraino. Nabarmendu beharra dago, hala ere, “feminismo” kontzeptuaren balorazio positiboak gehiengoa direla oraindik: ia % 60k uste du emakumeak zein gizonak inplikatu behar dituela; eta % 47k uste du feminismoa beharrezkoa dela benetako berdintasuna lortu ahal izateko. Feminismoa ezbaian jartzen edo ukatzen duten posizioek, aitzitik, gazteen % 30 inguru suposatzen dute: gizonen %35,5ek (emakumeen % 28aren aurrean) uste du feminismoa ez dela emakumeen egiazko arazoez kezkatzen; gizonen % 41ek (emakumeen % 22k) uste du feminismoak gizonen kalte egin nahi diela; eta % 35ek (emakumeen % 18k) uste du feminismoa ez dela beharrezkoa, dagoeneko benetako **berdintasuna lortu delako**. **Jarrera horiek, bereziki markatuak gizonen artean, oso kezkagarriak dira eta berdintasun ezari eta genero-indarkeriari loturiko jarrerak** aztertzean berretsi egiten dira. Genero-indarkeria normalizatzeko edo ikusezin egiteko joera duten baieztapenekiko adostasuna ia bikoitza da, gizonen artean, emakumeen kasuan baino: gizonen % 19k (emakumeen % 14k) uste du indarkeria ez dela arazoa intentsitate baxukoa bada; % 32k uste du (emakumeen % 28aren aurrean) saihestezina dela, betidanik gertatu ohi delako; eta % 23k dio genero-indarkeria asmakizun ideologiko bat dela, emakumeen % 13aren aurrean. Gaineratu beharra dago portzentaje horiek azken sei urteotan bikoiztu egin direla.

Centro Reina Sofía de Fad Juventud azken urteotan garatu dituen ikerketek eta sortu dituen datuek agerian utzi dutenez, **garrantzitsua da maskulinitateak egungo testuinguruan nola osatzen eta eraldatzen diren aztertzea eta ulertzea**. Behar horretatik abiatuta, 2022. urtean **maskulinitateen inguruko ikerketa-ildo berezi bat** hasi genuen. Horren haritik, honako lau argitalpen hauek garatu dira:

- *La caja de la masculinidad: construcción, actitudes e impacto en la juventud española* (Sanmartín Ortí et al., 2022).
- *Masculinidades juveniles en la Comunidad Valenciana. Procesos de construcción identitaria y percepciones sobre la masculinidad* (Kuric et al., 2023).
- *Jóvenes en la Manosfera. Influencia de la misoginia digital en la percepción que tienen los hombres jóvenes de la violencia sexual* (García Mingo, E. y Díaz Fernández, S., 2022).
- *Culpables hasta que se demuestre lo contrario. Percepciones y discursos de adolescentes españoles sobre masculinidades y violencia de género* (Boneta Sádaba et al., 2023).

Lehen bietan ikuspegi kuantitatiboa aplikatu zen, gazteen maskulinitatea nazio mailan, hasteko, eta Valentziako Komunitatean ondoren nola eraiki eta gorpuzten zen aztertzeke. Beste biek, gazteek maskulinitatearen inguruan agertzen zituzten hitzaldi eta esanahietan sakontzen zuten, online eta offline arloen arteko artikulazioa aztertuz.

Ikerketa honetan ikerketa-ildo horrekin jarraituko dugu metodologia-lanketa kuantitatiboa Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitatean berrikusiz eta erreproduzitzen eta biztanleria orokorrari aplikatuz. Hori da, hain zuzen ere, desberdintasunik nagusia **Centro Reina Sofía de Fad Juventud** orain arte egin dituen ikerlanekin alderatuta, **gizarte osoa jomugan duen ikerketa bat planteatu baita gazteriara mugaturiko lan bat egin beharrean.** Honela, eta lehen aldiz, **belaunaldien arteko alderaketak** ere egin ahalko dira.



XEDE NAGUSIA

Ikerlan honen xede nagusia da **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak maskulinitateak nola hautematen eta eraikitzen dituen aztertzea.**

BERARIAZKO HELBURUAK

- Euskal biztanleriak maskulinitateen inguruan dituen hautemateak aztertzea, **“maskulinitatearen kutxaren” analisia aplikatuz pertsonak maskulinitateari eta genero-harremanei buruzko dituzten iritzien arabera kokatu ahal izateko.**
- Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek (gizonek zein emakumeek) **maskulinitatea ulertzeko eta esperimendatzeko** dituzten era ezberdinak alderatzea, **arreta berezia eskainiz gizonek maskulinitatearekin erlazionatzeko dituzten moduei.**
- Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriak maskulinitatearekiko dituen jarrera hartze ezberdinak adinaren arabera aztertzea, **belaunaldien arteko jarrerak eta hautemateak alderatzeko.**
- **Maskulinitatearen ikuspegi ezberdinen eraikuntzan inplikaturiko faktoreak** zehaztea.
- **Maskulinitatearen ikuspegi ezberdinek —“kutxaren” aurreko posizioak— pertsonen bizitzan duten eragina** ulertzea: Inpaktua zorion-mailan, buruko osasunean, autohautematean, presio sozialean, portaeretan, etab.
- Euskal pertsonen **genero-rolen eta -harremanen inguruan dituzten hautemate ezberdinak aztertzea**, maskulinitatearen aurreko jarrerak hautemate horien eta munduaren beren ikuspegiaren eraikuntzan duten papera zehaztuz.

2

METODOLOGIA

FITXA TEKNIKOA

UNIBERTSOA. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko pertsonak.

LAGINA.

- *Informazioa biltzeko teknika.* Galde-sorta itxiko online inkesta (online panela).
- *Azken laginaren tamaina.* 1.252 pertsona.
- *Laginketa mota.* Esleipen proportzionaleko laginketa geruzatua, sexuaren eta adinaren araberakoa.
- *Kuotak.* Kasuen ausazko aukeraketa, sexua (emakumeak, gizonak, beste aukera bat) eta adina (15-19, 20-24, 25-29, 30-34, 35-39, 40-44, 45-49, 50-54, 55-59 eta 60-65 urte) oinarri hartuta.
- *Haztapena.* Datuak ikasketa-mailaren arabera haztatu dira (burututako ikasketak, hiru taldetan banatuta: derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBHko 4. Maila, HLHP, oinarritzko LH); derrigorrezko ikasketen ondoko bigarren hezkuntza (Batxilergoa, Gradu ertaineko LH); goi-mailakoak (unibertsitate-ikasketak, Goi- mailako LH, Master, Doktoregoa).
- *Lagina-akatsa.* ausazko laginketa bakunaren (ALB) eta heterogeneotasun gorenaren ($p=q=0,5$) hipotesian eta % 95eko konfiantza-mailarekin, akatsa % $\pm 2,77$ koa da.

GAUZATZE-DATA. Landa-lana 2024ko apirila eta maiatza bitartean egin zen.

ESTATISTIKA-USTIAPENA

Estatistika-analisiak

Maiztasun absolutuak eta erlatiboak (%) kalkulatzeko galde-sortako aldagai guztientzat. Batezbestekoak kalkulatzeko (Ez daki/Ez du erantzun kenduta) eskala-aldagaietarako. Eskala-galdera batzuetan (balorazio-eskalak, adostasun-maila...) kategoriak batu egin dira, aldagai nominal gisa tratatu ahal izateko; normalean, 7 eta 10 bitarteko kategoriak "adostasun handitzat", "inpaktu handitzat" jo dira, etab.; 4 eta 6 bitarteko kategoriak "ertaintzat", eta 0 eta 3 bitartekoak "baxutzat".

Kontingentzia-taulak

Aldagaien azterketa gurutzatua, ondokoen arabera; sexua, adina, ikasketa-maila, gizarte-klasea, bitartekorik eza, lan-egoera, habitata, bikotekidea, bizikidetza mota, sexu-orientazioa, erlijiositatea, ideologia eta desgaitasuna. Gurutzatze horietarako maiztasun absolutuak eta erlatiboak (zutabe %) kalkulatu dira, bai eta khi karratu (χ^2) esanguratsutasun-froga ere.

ALDAGAIK ERAIKITZEA

Sexua

Galde-sortako galdera honako hau da: "Zer zara?"; eta hiru aukera daude erantzuteko: "Emakumea"; "Gizona"; "Beste bat". "Beste bat" kategoria aukeratu dutenen proportzio baxua (% 1etik behera) dela eta, ezinezkoa da bereizita aztertzea, ez baita estatistikoki fidagarria eta, ondorioz, sexuagatiko gurutzatzeetatik baztertu dira. Beste analisi guztietarako, ordea, pertsona hauek kontuan hartu ditugu.

Adina

Erreferentziatzen hartu da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko pertsonak; eta hiru adin-tartetan banatu dira: 15-29 urte; 30-49 urte; 50-65 urte. Honela, gutxi gorabehera bereizita dauden hiru belaunaldiaren bidez gerturatzen gara Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriara; aipatuak belaunaldien inguruko gizarte-konbentzionalismoekin bat datoz, hein handi batean: 15-29 urte, 30-49 urte eta 50-65 urte.

65 urteen langa jarri da, halaber, landa-lanaren gauzatzea errazteko, askoz zailagoa baita biztanleengana online inkesten bidez iristea adinak gora egin ahala (esaterako, askoz pertsona gutxiago daudelako online-inkesten paneletan erregistratuta eta adinean gora egin ahala pertsonak geroz eta trebezia digital txikiagoa dutelako).

Bitartekorik eza

Honako galdera hau da oinarria aldagai hau eraikitzeko: *“Zure familia-unitatearen edo zure gastuen plangintzan parte hartzen duten pertsonen diru-sarrerak kontuan hartuta, esango al zenuke ondorengo ekintzen artean egin ezin duzunik edo azken urtean egin ezin izan duzunik badagoen?”*; erantzuteko kategoriak kalteberatasun sozioekonomikoa neurtzea ahalbidetzen duten 8 egoera dira: 1) Urtean gutxienez astebetez oporretara joan; 2) Etxea tenperatura egokian eduki; 3) Hilabete batean aurreikusi gabeko gastuei aurre egin; 4) Ordainagiri, mailegu, hipoteka, alokairu eta abarren ordainketa atzeratzea saihestu; 5) Nire hileko diru-sarreraren zati bat aurreztu, edo nire etxean hileko diru-sarreraren zati bat aurreztu da; 6) Kapritxoren bat bete hilean behin gutxienez (erosketak egitera joan, teknologia berritu, leku garesti batean afaldu eta abar); 7) Ordenagailua izan etxean, edozein motatakoa; 8) Aisia-jarduerak egin aldizka (etxetik kanpo afaldu, zinemara, kontzertuetara edo antzerkietara joan, parrandan ibili eta abar). Emaizak hiru kategoriatan biltzen dira, aipamen negatiboen kopuruaren arabera, hau da, erantzun duten pertsonak EZIN egin dituzten egoeren arabera: 1) Inolako ezarik ez: 0-1 aipamen; 2) Eza arina: 2-4 aipamen; 3) Eza larria: 5-8 aipamen.

Aldagai hau AROPE (At Risk of Poverty and/or Exclusion)², tasaren egokitzearen bat da biztanleria gazterako. Tasa horrek, Estatistika Institutu Nazionalak «Encuesta de condiciones de vida»³ delakoa oinarri hartuta egin duenak, txirotasun eta/edo gizarte-bazterketako arriskua neurtzen du.

Maskulinitatearen kutxa

Maskulinitatearen kutxaren kontzeptuak (Sanmartín et al., 2022; Heilman et al., 2017) familiek, kide-taldeek, hedabideek eta gizarte orokorrak transmititzen dituzten sinesmen eta balioen multzoari dagokio. Sinesmen eta balio horiek, sozializazio-prozesuen bitartez, genero-mandatu zehatz batzuetara daramatzate, maskulinitatea era zehatz batean (gizarte-testuinguru heteropatriarkalarekin bat doana) uler dadin.

“Maskulinitatearen kutxa” aldagaia eraikitzeko Centro Reina Sofía de Fado Juventudgazteen maskulinitatearen inguruan egin zuen aurreko ikerlanean (Sanmartín et al., 2022) ad hoc erabili zen metodologia aplikatu da. Gizon izateak zer esan nahi duenari buruzko betiko ikuspegiari buruzko gai batzuren inguruko bi galdera sartu dira galdetegian (49-57 eta 58-65 galdera-multzoak): *«Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin?»*. Ondoko galdera-multzoak dira, zehazki:

2 AROPE tasari buruzko informazio gehiagorako: <https://www.ine.es/dyngs/ODS/es/metadatos.htm?idSub=183/>
<https://www.youtube.com/watch?v=6sogIPkYn9Y>.


3 Bizi-baldintzen inguruko inkesta (Espainiako EIN): <https://www.ine.es/uc/PJA18e5z>.

GALDERA ZK.	DIMENTSIOA
49. Beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da	KALTEBERATASUNA
50. Gizonek beren artean konpondu beharko lituzkete beren arazo pertsonalak, besteei laguntza eskatu gabe	
51. Gizon batek ez luke negar egin behar jendaurrean	
53. Ez da ona mutil bati janaria prestatzen, josten, etxea garbitzen eta haur txikiagoak zaintzen erakustea	GIZARTE-ROLAK
54. Gizonek ekarri beharko lukete dirua etxera eta eurek mantendu beharko lukete familia, ez emakumeek	
55. Gizon batek beti izan beharko luke azken hitza bere bikote-harremanaren edo ezkontza-harremanaren inguruko erabakietan	
56. Mutil batek ez luke "nesken gauzetara" jolastu behar, txikitatik hasita	
58. Gizon batek ahalik eta sexu-bikotekide gehien eduki beharko lituzke	(HIPER)SEXUALITATEA
59. Gizon batek bere bikotekidearekin sexu nahikorik ez badu, ulergarria da desleialtasun bat egitea	
60. Normala da gizon batek prostituziora jotzea sexu-harremanak izateko	
61. Normala da gizon batek ezagutzen ez duen eta erakargarria iruditzen zaion emakume bati gune publiko batean piropoak esatea	
57. Benetako gizon bat inoiz ezin da afeminatua izan	GENERO-IDENTITATEA
62. Ez da gomendagarria gizon heterosexualak lagun homosexualak izatea	
63. Benetako gizonak heterosexualak dira	
64. Emakumeek ez dituzte bilatzen beren itxurarekin eta janzkerarekin asko kezkatzen diren gizonak	ITXURA FISIKOA
65. Bere itxurari denbora asko eskaintzen dion gizona ez da oso maskulinoa	
52. Logikoa da gizonen indarkeria erabiltzea errespetua lortzeko, behar izanez gero	INDARKERIA

Adierazle horietako bakoitzak maskulinitatearen betiko ikuspegiei loturiko dimentsio ezberdinei erantzuten die, ohiko maskulinitate hegemonikoaren espektro zabal bat har dezan barne: kalteberatasuna (49. 50. eta 51. gald.), gizarte-rolak (53., 54., 55. eta 56. gald.), (hiper)sexualitatea (58., 59., 60. eta 61. gald.), genero-identitateak (57., 62. eta 63. gald.), itxura fisikoa (64., 65. gald) eta indarkeria (52. gald).

Bi galdera horien erantzun-kategoriak adostasun-mailaren eskala batean (1 eta 4 artekoa) oinarritzen dira: 1 = Guztiz desados; 2 = Desados; 3 = Ados; 4 = Guztiz ados. Eskala horri esker desadosarekiko edo adosarekiko posizionamendua neur daiteke, erdibideko punturik

gabe, galderak erantzun dituztenak jarrera bat hartzera bultzatuz. Erantzunak oinarri hartuta, adierazle guztien batezbesteko aritmetikoa kalkulatzeko da eta, emaitzaren arabera, kasuak "kutxaren barruan" edo "kutxatik at" (edo "ertzean") daudela zehazten da: 1-1,5, "kutxatik at"; 1,5-2,5, "ertzean"; eta 2,5-4, "kutxaren barruan".



3

**AURKIKUNTZA
NAGUSIAK**

MASKULINITATEA ERAIKITZEA

Maskulinitatearen kutxa Euskal Autonomia Erkidegoan

- Oro har, **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria ohiko maskulinitate hegemonikoaren ereduen aurkakoa da.** “Maskulinitatearen kutxa” eraikitzeke planteaturiko postulatu guztietan (maskulinitateari buruzko ideiak lantzen dituzten 17 adierazle), euskal biztanleen % 80 baino gehiago ez dago ados (guztiz desados + desados), eta gaitzespen handia sortzen duten zenbait ideia nabarmendu beharra dago; esaterako: “*gizon batek beti izan beharko luke azken hitza bere bikote-harremanaren edo ezkontza-harremanaren inguruko erabakietan*” (% 6,1 baino ez ados); “*ez da gomendagarria gizon heterosexualek lagun homosexualak izatea*” (% 7 ados); “*bere itxurari denbora asko eskaintzen dion gizona ez da oso maskulinoa*” (% 7,2); eta “*gizonek ekarri beharko lukete dirua etxera eta eurek mantendu beharko lukete familia, ez emakumeek*” (% 8,3 baino ez dago ados).
 - **Ohiko maskulinitate hegemonikoaren** ereduen kontrako posizionamendua **osoa markatua dago, sexuaren arabera.** Nahiz eta gaitzespena orokorra izan, **gizonek emakumeek baino adostasun-maila altuagoak agertzen dituzte:** gizonen adostasun-portzentajeen batezbestekoa % 16,2 da; emakumeena, aldiz, erdia baino baxuagoa (% 7,4).
 - **Belaunaldien arteko aldeak** ere nabarmentzekoak dira. Ikusi ahal izan denez, ohiko maskulinitate hegemonikoaren gertu dauden ereduakiko adostasun orokorrak behera egiten du adinak gora egin ahala; bestela esanda, **gazteak (15 eta 29 urte bitartean) ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuago daude, zaharrago diren pertsonak baino.**
- “**Maskulinitatearen kutxa**” aldagaia ohiko maskulinitate hegemonikoaren inguruko zenbait postulatu laburbiltzen dituzten 17 adierazle abiapuntu hartuta eraiki dugu. **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 4,5** baino ez da maskulinitatearen kutxaren “barruan” kokatzen, erdibideko posizioak (**kutxaren “ertzean”**) okupatzen dituen % **37,1aren** eta **kutxatik “at”** dagoen % **58,4aren** aurrean. Honela, Euskal Autonomia Erkidegoko 10 pertsonatik 6 maskulinitatearen kutxatik at daude, hau da, maskulinitatea zer denari buruzko ohiko postulatuetatik aldentuta.
 - **Sexuak** eragin oso handia dauka maskulinitatearen kutxaren aurreko posizioetan. **Kutxaren barruan dauden gizonen** portzentajeak, marjinala bada ere, **emakumeena hirukoizten du** (% 6,9 eta % 2,2, hurrenez hurren). **Gizonen kasuan, gehienak kutxaren ertzen daude,** erdia (gizonen % 49,8 eta emakumeen % 24,2); eta 10etik 4 kutxatik at daude (gizonen % 43,2; emakumeen % 73,7).

- **Adinak** ere alde esanguratsuak agertzen ditu. Talderik gazteena, **15 eta 19 urte bitarteko nerabeak, ideia atzerakoiekin gehien identifikatzen dena** da; adin-tarte honetan, % 11,2 kutxaren barruan kokatzen da baina beste adin-tarte guztietan portzentaje hori askoz baxuagoa da (20-24 urte, % 2,9; 25-29 urte, % 7,1; 30-39 urte, % 6,3; 40-49 urte, % 6; 50-59 urte, % 1,6; eta 60-65 urte, % 1). Nerabeen taldean ere, % 37,7 kutxatik at kokatzen da, beste adin-tarte guztietan portzentaje hori % 48 eta % 67 artean dagoen bitartean. Gizonen artean joera hori nabariagoa da, **15 eta 19 urte bitarteko gizonen** % 22,5 kutxaren barruan kokatzen baita, % 60 ertzean eta % 17,5 baino ez baita kokatzen kutxatik at. Aurreko horrek **adin bereko emakumeen kasuarekin kontrastatzen du: ia ez da emakumerik kokatzen kutxaren barruan**, % 40,5ek kutxaren ertzeko posizioak agertzen ditu eta % 59,5 kutxatik at kokatzen da.

Genero-sozializazio bereizgarria

- **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean, era nahiko zabalduan transmititzen da “benetako gizon bat” eta “benetako emakume bat” izateak esan nahi duenaren ideia.** Euskal pertsona **gehienek** beren gertuko aldetik eta txiki-txikitatik jaso dituzte **benetako gizon batek izan beharko lukeen portaera** transmititzen duten mezuak eta iruzkinak (% 55,1ek); antzeko portzentaje batek (% 55,6k) gauza bera bizi izan du, **benetako emakume** baten portaerari dagokionez.
 - **Sexuaren** arabera, gizonen emakumeek baino gehiago jasotzen dute, txiki-txikitatik eta gertuko aldetik, benetako gizon bat izateak zer esan nahi duenaren ideia (% 58, 1ek eta % 52k, hurrenez hurren); emakumeek, aitzitik, benetako emakume bat izateak zer esan nahi duenaren ideia gehiago jasotzen dute, gizonen baino (% 62,5ek eta % 50,7k, hurrenez hurren).
 - **Adinaren** arabera, gazteak dira mezu mota horiek (benetako gizon edo emakume izatea zer den) txiki-txikitatik eta gertuko aldetik hein handiagoan jaso dutela adierazten dutenak.
 - **Maskulinitatearen kutxarekiko** gizonen posizioek lotura estua dute “benetako gizon bat izatea” helarazten duen ideia entzun izanarekin. **Ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuen dauden gizonak dira benetako gizon bat izatea zer den nozioarekin hein handiagoan haziak izan direnak:** kutxaren barruan dauden gizonetako % 78k ideia horiek txiki-txikitatik eta gertuko aldetik entzun dituzte, kutxaren ertzean dauden % 67,3aren eta kutxatik at dauden % 44,2aren aurrean. Joera berdina ikus daiteke, hain nabaria ez bada ere, benetako emakume bat izatea zer den ideiarekin transmisioaren kasuan.

EGOERA PERTSONALA ETA PORTAERAK

Gogobetetasuna eta zoriona

- **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek gogobetetasun- eta zorion-maila altuak agertzen dituzte:** %64,4k zorion-maila altua dauka; % 28,5ek maila ertaina eta % 7,1ek maila baxua. Ez dago alderik gizonen eta emakumeen artean, ezta adin-tarteen artean ere.

- Oro har, gizonak gogobetetasun-maila altuagoak agertzen dituzte. **Kutxaren barruan dauden gizonak hain zoriontsuak ez direla** antzeman da, ordea, eta horren zioa da zorion-maila baxua adierazten dutenen proportzioa askoz altuagoa dela: kutxaren barruko gizonen % 12,4k zorion-maila baxua adierazten du, kutxaren ertzean dauden gizonen % 8,5aren eta kutxatik at dauden gizonen % 1,9 hutsaren aurrean.

Buruko osasuna eta ondoezak

- **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erdiak dio ez duela inoiz buruko osasuneko arazorik eduki.** % 47,6k aitortzen du buruko osasuneko arazo edo ondoezen bat izan duela (% 12,4k behin; % 23,4k zenbaitetan; eta % 11,8k maiz).
 - **Alde esanguratsuak sexuaren arabera. Emakumeek buruko osasuneko arazo gehiago dituztela adierazten dute:** emakumeen % 56k buruko osasuneko arazoren bat izan du azken urtean (% 16k maiz); 10etik 4k ez dute mota honetako arazorik izan. Gizonen kasuan, % 39,2k buruko osasuneko arazoak aitortu ditu (% 7,7k maiz); 10etik 6k ez dute mota honetako arazorik izan.
 - **Adinak esperientzia ezberdinak markatzen ditu buruko osasunari dagokionez.** Azpimarratu beharra dago **adinak gora egin ahala buruko osasuneko arazoen inpaktua txikiagoa** dela: gazteen (15-29 urte) taldean % 38,5ek baino ez dio azken urtean buruko osasuneko arazoren bat izan duela; portzentaje hori % 47,8 da 30-49 urte bitarteko pertsonen artean eta % 59,7 zaharreneen kasuan (50-65 urte bitartekoak).
 - Euskal Autonomia Erkidegoko **gizonen** artean biztanleria orokorraren joeraren antzekoa ikusten da adinaren arabera; hau da, **gizon gazteak** dira (15-29 urte) **buruko osasuneko arazoak izan dituztela hein handiagoan adierazten dutenak.**
 - **Maskulinitatearen kutxari** dagokionez, ez da alde esanguratsurik ikusten; ondorioz, **ez dago esaterik ohiko maskulinitate hegemonikoaren aurreko jarrerak inolako inpaktu esanguratsurik dutenik gizonen buruko osasunean.** Nolanahi ere, datuek erakusten dutenez ikerketa egiteko unean buruko ondoezak pairatu dituztenen proportzioa handiagoa da kutxaren ertzean eta kutxatik at dauden artean (% 40,7 eta % 38,7 hurrenez hurren), kutxaren barruan dauden gizonen artean baino (% 33,1).
- **Euskal Autonomia Erkidegoko 4 pertsonatik 1ek suizidio-ideiak izan ditu** bizitzaren uneren batean. **Ez dago alde esanguratsurik sexuaren arabera;** bai ordea, adinaren arabera.
 - **Suizidio-ideien intzidentzia gazteen artean da nabariagoa.** Gazteen % 33,1ek (15-29 urte) suizidio-ideiak izan ditu; portzentaje hori % 28,6ra murrizten da 30-49 urte bitarteko artean eta % 21,1era 50-65 urte bitarteko pertsonen artean.
 - **Gizonei** erreparatuz, **maskulinitatearen kutxaren barruan daudenak dira suizidio-ideien arriskuak gehien pairatu dituztenak.** Suizidio-ideien arriskua kutxa barruko gizonen artean da handiena (% 32,3; kutxaren ertzean dauden gizonen % 29,4aren eta kutxatik at dauden % 19,7aren aurrean, hurrenez hurren).

Babes sozioemozionala

- Arazo pertsonalen aurrean, **babes sozioemozionalerako erreferentziazko pertsona** bikotekidea da nagusiki, lehen aukera baita euskal biztanleen ia erdirako (% 46,3). Babes sozioemozionalerako beste pertsona garrantzitsu batzuk dira emakumezko lagunak (% 21,1) eta amak (% 19,7). Argi dago **emakumeak direla pertsona nagusienak babes sozioemozionalerako** (emakumezko lagunak eta amak nabarmentzen dira erreferentziazko gisa).
 - **Sexuaren** aldagaia garrantzitsua da arazo pertsonalen aurrean bilatzen den babesa aztertzerakoan. Oro har, esan genezake **gizonek, orokorrean, ez dutela emakumeek bezainbeste laguntza eskatzen** arazoren bat dutenean: gizonen % 13,2k ez du inoren laguntza eskatzen (emakumeen % 7,7k). Horrez gain, gizonak eta emakumeak bikotekidearen laguntza hein berean eskatzen badute ere (gizonen % 47,3k eta emakumeen % 45,3k), erreferentziazko beste pertsonen kasuetan alde batzuk daude: emakumeentzat, erreferentziazko bigarren pertsona emakumezko lagunak dira (% 30,8) eta gizonentzat gizonazko lagunak (% 23,3); gizonak, ordea, laguntza gehiago eskatzen diete beren emakumezko lagunei (% 11,4), emakumeek beren gizonazko lagunei baino (% 5,8).
 - **Adinaren** arabera, nagusiki nabarmendu beharra dago **gazteek beste biztanle guztiek baino laguntza eskatzeko ohitura gutxiago dutela**: 3 gaztetik 1ek gutxi gorabehera ez du inoren laguntza eskatzen arazo pertsonalen bat duenean (10etik 1ek beste biztanle guztien kasuan).
 - Hiru ezberdintasun nagusi daude gizonak babes sozioemozionala eskatzeko dituzten ohiturak maskulinitatearen kutxan dituzten posizioekin gurutzatuz aztertzen direnean: 1) **kutxaren barruan dauden gizonak besteek baino askoz gutxiago bilatzen dute beren bikotekidearen babesa** (kutxaren barruko gizonen % 25,1arentzat bikotekidea da lehen aukera babesa eskatzerakoan; ertzean daudenak % 47,3arentzat eta kutxatik at daudenak % 50,9arentzat); 2) **kutxatik at dauden gizonak beren lagunen (emakumezko zein gizonazko) babesa eskatzen dute gehiago**; eta 3) arazo pertsonalen bat dutenean **kutxaren barruko gizonak inoren laguntza ez eskatzeko duten joera askoz nabariagoa da beste gizonena baino** (% 36,3k ez du inoren laguntza eskatzen; % 11 inguruk beste gizonen kasuan).
- **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erditik gorak (% 55,5ek) dio eroso sentitzen dela arazo pertsonal edo emozional bere lagunekin (gizonazko zein emakumezko) hitz egiten**. Egoera horretan bertan deseroso sentitzen direnak, ordea, % 15,9 dira.
 - Alde esanguratsuak daude **sexuaren** arabera. Gizonak eta emakumeak hein berean sentitzen dira eroso arazo pertsonalez hitz egiten (gizonazko zein emakumezko) beren lagunekin; baina joera kontrakoa da, gizonen eta emakumeen artean, gizonazko lagunekin bakarrik edo emakumezko lagunekin bakarrik hitz egiteari dagokionez: gizonak erosoago sentitzen dira gizonazko lagunekin hitz egiten (% 18,6, emakumeen % 4,1aren aurrean); emakumeak, aldiz, emakumezko lagunekin bakarrik hitz egiten sentitzen dira erosoago (% 27,4, gizonen % 7aren aurrean).

- Oro har, **gizonak beren arazo pertsonalez (gizonezko zein emakumezko) lagunekin hitz egiten saihesten dira** (gizonen % 19,2 ez da eroso sentitzen lagunekin hitz egiten). Gizonen artean, urteak bete ahala, **erosoago sentitzen dira beren arazo pertsonal eta emozional ez (gizonezko zein emakumezko) lagunekin hitz egiten**. 30 urtetik beherako gizonen artean deigarria da halere, konparazio-terminoetan, erosoago sentitzen direla gizonezko lagunekin bakarrik edo emakumezko lagunekin bakarrik hitz egiten.
- Maskulinitatearen kutxan dituzten posizioak erabakigarriak dira arazo pertsonalak lagunekin tratatzeari dagokionez. Kutxatik at dauden gizonak erosoago sentitzen badira beren lagunekin hitz egiten (horien % 68,2 **eroso sentitzen da gizonezko zein emakumezko lagunekin hitz egiten**; ertzean dauden % 45,5 eta barruan dauden % 41,5), **kutxa barruko gizonak** dira (gizonezko zein emakumezko) lagunekin hitz egiten deserosoago sentitzen direnak (% 37,1; ertzean dauden % 22,6 eta kutxatik at dauden % 12,6).

Erakargarritasuna eta itxura fisikoa

- **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek erakargarritasun-maila ertainekoak (% 48,7) edo altukoak (% 42,2)** direla diote (erakargarritasuna nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa barne hartzen dituen osagai-multzo gisa ulertuz); % 8,9k baino ez du uste erakargarritasun-maila baxukoa dela.
 - **Ez dago alderik sexuaren arabera.** Halere, **adinaren arabera ikus daiteke urteetan gora egin ahala baxuagoa dela aitorturiko erakargarritasun-maila**. 15 eta 29 urte bitartekoen % 53,1ek uste du erakargarritasun-maila altua duela (% 45,7k 30 eta 49 urte bitartekoen artean eta % 32,4k 50 eta 65 bitartekoen taldean).
 - **Gizonik gazteenak dira erakargarrienak direla uste dutenak.** Maskulinitatearen kutxaren aldagaiak, ordea, alde handiagoak markatzen ditu. **Kutxa barruko gizonak uste dute besteek baino askoz erakargarriagoak direla**: horien % 73,3k uste du erakargarritasun-maila altua duela (% 42k ertzean dauden artean eta % 36,9k kutxatik at dauden artean).
- Besteen aurrean agertzen duten kanpoko itxuraren inguruko kezka dagokionez, **% 12k baino ez dio kanpoko bere irudia ez duela kezkatzen**, % 26,3k oso gutxi kezkatzen duela, % 43,3k zertxobait kezkatzen duela **eta % 18,4k asko edo dezente kezkatzen duela**.
 - **Alde oso esanguratsuak daude sexuaren arabera. Emakumeak gehiago kezkatzen dira beren kanpoko itxuraz** (% 23,7 asko kezkatzen da; % 13,1 gizonen artean). Beren kanpoko itxuraz kezkatzen ez direla dioten emakumeen portzentajea gizonen portzentaje horren erdia da (emakumeen % 8 eta gizonen % 16).
 - **Adinaren arabera, gazteak dira beren kanpoko irudiaz gehien kezkatuta daudenak**: gazteen (15-29 urte) % 29,7 asko edo dezente kezkatzen da; 30-49 urtekoen artean % 16,4 eta 50-65 urtekoen artean % 14,2. Gizonen adin-tarteetan ikus daitekeen joera lagin orokorrean ikusten denaren berdina da: **gizon gazteenak dira beren kanpoko itxuraz gehien arduratzen direnak**.

- Maskulinitatearen **kutxaren aldagaia aintzat izanez gero gizonen artean agertzen diren aldeak ez dira adierazgarriak**; horrenbestez, ez dirudi alderik dagoenik, kanpoko irudiaz duten kezkari dagokionez, ohiko maskulinitate hegemonikoarekiko duten jarreraren arabera.

Presio soziala

- Euskal biztanleek sentitzen dituzten **presio sozialak** aztertzerakoan ikusten da **presio sozialik handiena** sortzen duen aldagaia dela **lanean edo ikasketetan arrakasta izatea** (% 39,3k presio altua sentitzen du). Ondoko gaiek ere presio sozial dezente sortzen dute: adoretu agertzea gertuko aurrean (% 31,5), besteak emozionalki zaintzea eta babestea (% 30) eta tristura edo antsietatea (% 29,9) ezkutatzea.
 - Emakumeek presio sozial handiagoa sentitzen dute.** Emakumeek presio sozialaren ondoko alderdiak pairatzen dituzte gehien: arrakasta izatea lanean edo ikasketetan (% 41,7, gizonen % 37,1aren aurrean), adoretu agertzea (% 37,1, gizonen % 26aren aurrean), besteak emozionalki zaintzea edo babestea (% 34,8, gizonen % 25,2ren aurrean), tristura edo antsietatea ezkutatzea (% 36,1, gizonen % 23,9aren aurrean), fisikoki erakargarria izatea (% 36,4, gizonen % 23,4aren aurrean) eta etxeko eginkizunak egitea (% 28,7, gizonen % 20,3aren aurrean). **Gizonei presio handiagoa sortzen dieten hiru alderdi daude, guztiak ere sexu-afektibitate harremanei lotuta:** sexuan ona izatea (% 23,6, emakumeen % 17,8aren aurrean), bikotekide egonkorra izatea (% 24,5, emakumeen % 18,7aren aurrean) eta ligatzeko garaian aurrea hartzea (% 20,4, emakumeen % 9,8aren aurrean)..
 - Gazteak dira **presio sozial handiagoa sentitzen dutenak**. Urteak bete ahala, presio txikiagoa sentitzen dute. Ondoko alderdiak sortzen diete presiorik handiena gazteei: arrakasta izatea lanean edo ikasketetan (% 60,5); eta fisikoki erakargarria izatea (% 50,6). .
 - Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria globalean gertatzen den bezalaxe, **gizonen** artean ere **gazteak dira (15-29 urte) presio sozial handiagoak sentitzen dituztenak**.
 - Presio sozialaren datuak kutxako posizioen arabera aztertuz gero, aldeak oso esanguratsuak dira. Oro har, **maskulinitatearen kutxan egoteak besteak baino presio sozial handiagoak sentitzea dakar**. Kategoria bakar batean sentitzen dute ertzean edo kutxatik at dauden gizonen baino presio txikiagoa: “besteak emozionalki zaintzea eta babestea” (% 18k presio handia sentitzen du; kutxaren ertzean dauden % 26,2k eta kutxatik at dauden % 25,1ek). **Kutxa barruko gizonentzat presiorik handiena** suposatzen duten kategoriak dira **sexualitateari eta erakargarritasunari** loturiko horiek: ligatzeko orduan aurrea hartzea (presio handia % 42arentzat), sexuan ona izatea (% 39,3) eta fisikoki erakargarria izatea (% 36,3).

Jokabide arriskutsuak eta pairaturiko eta gauzaturiko jazarpen- eta indarkeria-egoerak

- Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek jokabide arriskutsuak saihesten dituzte**, ikerlan honetan planteatu direnak bederen —gidatzeari, sexualitateari, estupefazianteen kontsumoari edo indarkeriari lotutakoak—. Jokabide ohikoenak: baimenduriko abiadura gaituz gidatzea (% 18,2k azken 6 hilabeteetan egin du), sexu-praktika arriskutsuak (% 13,6k) eta alkohola edan ondoren gidatzea edo alkohola edan ondoren autoa gidatu duen norbaitekin joan izana (% 11,7k eta % 11,5ek). % 3,4k baino ez du borroketan parte hartu eta % 3k alkohola ez diren drogen eraginpean gidatu du.

- Oro har, **adinak gora egin ahala jokabide arriskutsuak murrizten dira**, baina joera horren kontrakoa agertzen duten bi aldagai daude: gehiegizko abiaduraz eta alkoholaren eraginpean gidatzea: bi horietan, 50-65 urte bitartekoen multzoa da arriskurik handiena agertzen duena. Gazteen taldean nabarmenena sexu-praktika arriskutsuak dira (% 28,7k azken 6 hilabeteetan izan ditu; % 12,8k bitarteko adin-tartean eta % 5,7k adin-tarte zaharrenean).
 - Gizonek **lotura handiagoa agertzen dute jokabide arriskutsuekiko**. Gizonen erdiak dio ez duela mota honetako jokabiderik (% 49,8k, emakumeen % 69,4aren aurrean). **Maskulinitatearen kutxako** posizioak aintzat hartuz gero, ez dago alde handirik jokabide arriskutsurik izan ez duten gizonei dagokienez (kutxa barruko % 50,6k ez du jokabide arriskutsurik izan; ertzean dauden % 46,2k eta kutxatik at dauden % 53,7k). Jokabide batzuetan, halere, alde adierazgarriak daude. **Sexu-jokabide arriskutsuei eta alkoholaren eraginpean** gidatzeari dagokienez, kutxa barruko gizonak dira portzentaje baxuenak agertzen dituztenak: % 7,8 eta % 10,5, hurrenez hurren. Maskulinitatearen kutxaren barruan dauden gizonak, ordea, ondokoengatik nabarmendu dira: drogen eraginpean zeuden gidariekin joateagatik (kutxa barruko gizonen % 21,7k egin du azken 6 hilabeteetan; ertzean dauden % 12,7k eta kutxatik at dauden % 12,3k). Eta **borroketan parte hartzeagatik** (% 11,7k; ertzean dauden % 7,8k eta kutxatik at dauden % 1,2k).
- **Pairatutako** jazarpen- eta indarkeria-egoerak ezohikoak badira ere Euskal Autonomia Erkidegoan, oro har, **aurrez aurreko hitzezko indarkeria dezente hedatua dago (% 59,1 irain edo iseken xede izan da azken 6 hilabeteetan)**. Online irainak, isekak edo mehatxuak jasotzea askoz ezohikoagoa da: euskal 4 biztanletik 1 inguruk pairatu du azken 6 hilabeteetan. Antzeko zenbakiak indarkeria fisikoa pairatzeari dagokionez.
 - **Gizonek pairatu dute indarkeria fisiko gehien** —planteatu ditugun balizko erasoen multzoa aintzat hartuz, **genero-indarkeriara** bereziki mugatu gabe—. Alderik ez badago ere hitzezko indarkeria pairatzeari dagokionez (gizonen % 60,5ek azken 6 hilabeteetan pairatu du; emakumeen % 57,7k), indarkeria digitalak (gizonen % 29,7k, emakumeen 21,4k) eta indarkeria fisikoa (gizonen % 31,8k, emakumeen % 23,4k) inpaktu handiagoa dute gizonetan.
 - **Adinaren arabera**, gazteak dira (15-29 urte) **indarkeriarik handiena pairatzen dutenak azterturiko hiru ardatzetan**: % 79,2k hitzezko indarkeria pairatu du azken 6 hilabeteetan, % 37,4k indarkeria digitala pairatu du eta % 37,5ek indarkeria fisikoa.
 - Gizonen artean, indarkeriaren inpakturik handiena gazteen taldean ematen da. Argi geratu da **gizon gazteak direla indarkeria-egoera gehien pairatu dituztenak**.
 - **Ohiko maskulinitate hegemonikoaren ideiatik gertu dauden gizonek (kutxaren barruan) dute indarkeria-egoerak pairatzeko arriskurik handiena**. Kutxa barruko gizonak dira egoera mota hauek maiz pairatzeagatik konparazio-terminoetan nabarmentzen direnak: maskulinitatearen kutxaren barruan dauden gizonen % 10ek maiz pairatzen ditu irain eta isekak, % 8,7k online jazarpena pairatu du maiz eta % 5,7k indarkeria fisikoa. Balio horiek kutxaren ertzean eta kutxatik at dauden balioak bikoizten dituzte.

- **Gauzaturiko indarkeriara** igaroz, beste behin, **gizonek emakumeek baino gehiago gauzatzen dute praktika hau**: 10 gizonetik 2k diote online indarkeriako edo indarkeria fisikoko formaren bat gauzatu dutela azken 6 hilabeteetan. Proportzio hori erdia da emakumeen artean (10etik 1). Hitzeko indarkeriaren kasuan, 10 gizonetik 2k gauzatu dute; eta 10 emakumetik 3k. Nolanahi ere, maiztasun handiz gauzaturiko indarkeria marjinala da ia (% 2tik beherakoa).
 - **Adin-tarteen arabera** ere alde esanguratsuak daude: gazteak (15-29 urte) dira indarkeriazko praktikak gauzatzeko joerarik handiena agertzen dutenak, planteatu diren hiru kategorietan: % 56,7k beste norbait trufatu edo iraindu du, aurrez aurre, azken sei hilabeteetan; % 21,6k online testuinguruan egin du; eta % 26,9k indarkeria fisikoko formaren bat gauzatu du. Portzentaje horiek dezente txikiagoak dira beste adin-tarteetan, eta behera egiten dute urteak gora egin ahala.
 - **Maskulinitatearen kuxako posizioak** aintzat hartuz, beste behin, kuxa barrukoak dira indarkeriarako joerarik nabarmenena agertzen dutenak. Hitzeko indarkeria, online indarkeria eta indarkeria fisikoa kontuan hartuz, kuxa barrutik indarkeriazko praktikak gauzatu dituztenen portzentajea % 45,2, % 40 eta % 43,6, hurrenez hurren. Kuxatik at dauden arteko portzentaje horiek honako hauek dira, hurrenez hurren: % 29,1, % 9,2 eta % 7,2.

BALIOAK ETA SINESMENAK

Genero-rolen inguruko posizioak

- **Adostasun handia dago (% 55,9) "Gizonek beren kalteberatasuna eta afektibitatea agertzen ikasi behar dute" ideiarenean. Baieztapen horrek genero maskulinoaren ohiko mandatuarekin apurtzen du.** Mandatu horiek berresten dituzten beste baieztapen batzuek % 28,1 (emakumeak biologikoki prestatuta daude zaintza-lanetarako) eta % 44,2 bitarteko (gizonek emakumeek baino lan gogorragoak dituzte) adostasun-portzentajeak dakartzate.
 - Sexuaren aldagaiari dagokionez, **emakumeek adostasun-maila handiagoa agertzen dute kalteberatasuna ez agertzeari loturiko genero maskulinoaren mandatuarekin apurtzeko baieztapenarekin** (% 63,2, gizonen % 48,6aren aurrean). Gizonen adostasuna, ordea, 5 eta 20 portzentaje-puntu artean da handiagoa ohiko rolak sendotzen dituzten beste baieztapen guztien kasuan. Ez dago alde handirik adin-tarteen artean.
 - **Maskulinitatearen kuxako posizioek eragin erabakigarria dute** ohiko genero-rolen aurrean kokatzeari dagokionez. **Eredu horiek sendotzen dituzten baieztapen guztien kasuan, kuxaren barruan daudenek adostasun-maila handiagoa agertzen dute**, ertzean daudenek baino. Eta azken horiek, beren aldetik, kuxatik at daudenek baino. Deigarria da gizonen lana emakumeena baino gogorragoa dela dioen baieztapenak eta emakumeak maneatzailagoak direla dioen ideiak adostasun-maila handia sortzen dutela kuxa barruko gizonetan (% 66,2 eta % 52,5, hurrenez hurren) zein ertzean dauden artean (% 62,9 eta % 49,6, hurrenez hurren).

Feminismoaren aurreko posizioak

- **Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direnen ia erdiak (% 49,6) dio ez dela feminista sentitzen; % 38,9 feminista sentitzen da.** Eta oso adierazgarria den % 11,5 batek ez daki edo ez du posiziorik hartu nahi.
 - **Sexua eta adina oso erabakigarriak dira:** gizonen % 29,5 baino ez da feminista sentitzen, emakumeen % 48,3aren aurrean. Eta adin-tarterik gazteenak (15-29 urte) agertzen du sentimendu feministarik handiena, % 46,1, 30-49 urte bitartekoen % 33,9aren eta 50-65 urte bitartekoen % 40,5aren aurrean. Bitxia da sentimendu feministarik txikiena duen adin-tartea bitarteko hori izatea.
 - Kutxako posizioei dagokienez, espero zitekeen bezalaxe, **zenbat eta gertuago egon ohiko maskulinitate hegemonikotik, are eta sentimendu feminista txikiena** adierazten da. Deigarria da barruan dauden (% 15,5) eta ertzean dauden (% 19,7) arteko alde txikia, kutxatik at dauden aurrean (% 43).
- Feminismoaren aldeko eta horren kontrako baieztapenak baloratzeko orduan, **feminismoarekiko baieztapen positiboek adostasun zabala sortzen dute.** Gizonak eta emakumeak inplikatu behar dituela dioen baieztapena eta gizonak portaera matxistak gaitzetsi behar dituztela dioenak 10 pertsonatik 7ren adostasuna lortzen dute. Aitzitik, feminismoak gizonak baztertzen dituela dioen baieztapenak edo feminismoa ez dela beharrezkoa defendatzen duenak, dagoeneko berdintasuna lortu delako, % 36,7ko eta % 20,8ko adostasuna lortzen dute, hurrenez hurren.
 - Baieztapen mota horretan **genero-arrakala oso markatu** bat dago: **euskal emakumeen babesa feminismoa defendatzen dituzten baieztapenei dagokienez gizonena baino 10 portzentaje-puntu handiagoa da.** Gizonak, ordea, adostasun-maila handiagoa agertzen dute, konparazio-terminoetan, aipatua kritikatzan duten baieztapenei dagokienez: “Emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi gara, orain gizonak dira diskriminatuak” (gizonen % 46 eta emakumeen % 27,2) eta “Feminismoa ez da beharrezkoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna badagoelako” (gizonen % 28,9 eta emakumeen % 12,4).
 - **Adina ez da sexua bezain erabakigarria baina, halere, aldeak markatzen ditu.** Zaharrenen taldea besteen gainetik nabarmentzen da feminismoaren beharra defendatzen dituzten baieztapenetan, 15-29 bitarteko taldeak eta 30-49 urte bitarteko taldeak antzeko jarrerak agertzen dituzten bitartean. Salbuespen bakarra da feminismoa egiazko berdintasuna lortzeko beharrezkoa dela dioen baieztapena: % 52,8ko adostasuna lortzen du gazteen artean, % 38,7koa bitarteko taldean eta % 46,9koa zaharrenen taldean. Beste behin, **30 eta 49 urte bitartekoak dira feminismoarekin kritikoen agertzen diren pertsonak.**
 - Azkenik, maskulinitatearen kutxarekin gurutzatutako datuek ez dakarte sorpresa handirik, ezta ere. **Kutxatik at dauden gizonen feminismoaren beharra defendatzeko joera askoz handiagoa erakusten dute** (30-40 portzentaje puntu gehiago); kutxatik gertuago egoteak, ordea, feminismoaren kritika askoz handiagoa dakar. Adibidez, kutxa barruan dauden % 48,7k dio feminismoa ez dela beharrezkoa, berdintasuna badagoelako dagoeneko, ertzean dauden % 34,6aren eta kutxatik at dauden % 19,3aren aurrean.

Bikote-harremanei buruzko ikuspegiak

- Datuen arabera, **adostasun orokorra (% 74,7) dago bikotearen barruan pertsona bakoitzak independentzia izan behar duela dioen baieztapenaren inguruan.** % 36,6k baino ez du bikotekidearekiko erabateko entrega defendatzen. Beste baieztapen guztiek ohikoagoak diren harreman-ereduak berresten dituzte eta adostasun txikiagoak dakartzate. Horien artean, adostasunik handiena lortzen duena ondokoa da: “mutil batek bere neska babestu behar du” (% 41,9ko adostasuna). Bikote barruan kontrola edo zaintzea legitimatu edo normalizatzen duten beste baieztapenek 10 pertsonatik 1en adostasuna lortzen dute.
 - **Sexu aldagaiaren arabera aldeak bikotekideen independentzia eta espazioa baloratzeko orduan ikusten dira gehienbat,** emakumeen adostasun-maila (% 79,4) gizonena baino handiagoa baita (% 70,1). Gizonen adostasuna emakumeena baino 15 portzentaje-puntu altuagoa da gizonen emakumeak babestu behar dutela dioen baieztapenaren inguruan, eta 7 portzentaje-puntu altuagoa jeloskortasuna maitasunaren adierazle dela defendatzen duen ideari dagokionez.
 - **50-65 urte bitarteko adin-tartea da bikote barruko independentzia gehien baloratzen duena (% 80tik gora).** Baieztapenek islatzen dituzten kontrol-eta posesibotasun-modu ezberdinek, ordea, gazteenen (15-29 urte) artean lortzen dute adostasunik handiena. Esaterako, adin-tarte horretan dauden % 16,8k bikotekidearen mugikorra miatzea normalizatzen du, portzentaje hori % 9,8koa denean bitarteko tartean eta % 7koa zaharrenean adin-tartean.
 - **Maskulinitatearen kutxa erabakigarria da berriz ere, bikote barruko kontrol-era ezberdinak normalizatu eta legitimatzen dituzten baieztapenen aurrean bereziki: kutxaren barruan egoteak esan nahi du beste posizioetako adostasun-portzentajeak bikoiztu edo hirukoiztu ere egingo direla.** Adibidez, kutxaren barruan dauden % 43,1 ados dago harreman baten barruan bikotekidea uneoro non dagoen jakitea merezi duzula dioen baieztapenarekin, ertzean dauden % 16,9aren edo kutxatik at dauden % 6,2aren aurrean.

Genero-indarkeriari buruzko ikuspegiak

- Nahitaezkoa da **nabarmentzea Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek genero-indarkeria gaitzesten dutela. % 80,3k dio genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela;** adostasun-mailarik handiena lortzen duen baieztapena da, alde handiz. Bigarrenik, emakumeek gizonen aurka gauzatzen duten indarkeria maila berean jartzen edo aldarrikatzen duten eta gizonen errugabetasun-presuntzioa galdu dutela dioten baieztapenek % 42,2ko eta % 34,8ko adostasun-maila lortzen dute, hurrenez hurren. **Adostasun-mailarik txikiena lortzen duten baieztapenak dira genero-indarkeriaren larritasuna ukatzen edo minimizatzen duten horiek (% 10,8 eta % 7,4ko adostasuna, hurrenez hurren).**
 - **Sexua** erabakigarria da gai honetan, **genero-indarkeria arazo larriagoa baita emakumeentzat,** gizonentzat baino (gizonek baino 15 portzentaje-puntu inguru gehiago). Genero-indarkeria ukatzen edo minimizatzen dituzten emakumeen portzentajeak marjinalak dira (% 7tik beherakoak). Dena den, eta ikusi dugunez, imaginario kolektiboan zeharkako parekatze moduko bat gertatu da gizonen pairatzen duten indarkeriaren eta emakumeen pairatzen duten horren artean: gizonen % 41,4 ados agertu da, eta baita emakumeen

% 42,9a ere. Eta antzeko zerbeit gertatzen da, baina hein txikiagoan, gizonek errugabetasun-presuntzioa galdu dutela dioen baieztapenarekin (gizonen % 43,1 ados agertu da; eta baita emakumeen % 26,4a ere).

- o **Pertsona zaharrenak dira kezkatuak agertzen direnak genero-indarkeriako arazoarekin** (% 86,4, % 79,2 bitarteko taldean eta % 71,9 gazteenen taldean). Hala ere, **zaharrenen taldean ere dago hedatuak gizonen errugabetasun-presuntzioa galdu dutela dioen ideia** edo emakumeen indarkeria gizonen aurka gizonen emakumeen aurka gauzatzen dutenaren berdina dela dioen baieztapena (30 urtetik gorako adostasun-maila 10-15 portzentaje-puntu altuagoa da, 30 urtetik beherakoena baino).
- o Azkenik, **kutxako posizioek eragin sakona dute** genero-indarkeriaren inguruko jarrerari dagokionez. Hasteko, **kutxa barruko 10 pertsonatik 2k baino ez diote genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela**, proportzio hori % 60tik gorakoa denean beste bi posizioetan. **Kutxaren barruan daudenek hein handiagoan onartzen dituzte, halaber, ondoko bi baieztapenak: gizonen errugabetasun-presuntzioa galdu dute** (% 76,7, ertzean dauden % 45,8aren eta kutxatik at dauden % 34,7aren aurrean); eta **genero-indarkeria asmakizun ideologiko bat da** (% 57,4, ertzean dauden % 14,8aren eta kutxatik at dauden % 8,aren aurrean). Zeharkako eragina duen baieztapen bakarra, sexu aldagaiarekin gertatzen zen bezalaxe, honako hau da: emakumeek gizonen aurka gauzatzen duten indarkeria gizonen emakumeen aurka gauzatzen duten horren berdina da (% 40 inguruko adostasun-maila kutxako hiru posizioetan).

4

**EMAITZAK
AZTERTZEA**

Bloke honetan xehetasunez aurkeztuko da ikerketaren emaitzen analisia, grafiko eta taula ezberdinen bitartez. Gure arreta jarri dugu sexuaren (gizonak eta emakumeak), adinaren (15-29 urtekoen, 30-49 urtekoen eta 50-65 urtekoen taldeak) arabera datuen azterketan, bai eta gizonen analisi berezian ere. Bloke hau hiru atal handitan banatuta dago:

1. **Maskulinitatea eraikitzea.**
2. **Egoera pertsonala eta portaerak.**
3. **Balioak eta sinesmenak.**

MASKULINITATEA ERAIKITZEA

4.1

Lehen bloke honetan Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonak maskulinitatea ulertzeko eta eraikitzeko dituzten erak aztertzen dira. Gure arreta jarri dugu maskulinitatearen kutxarekiko posizioen analisian, hau da, kutxaren barruan, ertzean edo kutxatik at zeintzuk dauden egiaztatuz edo, bestela esanda, ohiko maskulinitate hegemonikoaren berezko mandatuekiko agertzen duten lerrokatze-maila. Horrez gain, gizon bat izatea zer den edo zer ez den edo zer izan behar duen eta zer izan behar ez duen inguruko beren hautemateak ere aztertzen dira.

MASKULINITATEAREN KUTXA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

4.1.2

Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak

Gogora dezagun zer den “**maskulinitatearen kutxa**”: gurasoek, familiek, hedabideek, lagunek, kide-taldeek eta gizarte orokorrak transmititzen dituzten **sinesmen eta balioen** multzoa. Sinesmen eta balio horiek, **generoko sozializazio-prozesuen** bitartez, gizonetan eragiten, presionatzen eta baldintzatzen dute **ohiko genero-mandatueta egoki daitezen, gizarte-testuinguru heteropatriarkalaren testuinguruaren barruan**.

Hasteko, maskulinitatearen kutxa osatzen duten adierazle ezberdinekiko adostasunen eta desadostasunen emaitzak aurkeztuko dugu, hau da, ohiko maskulinitate hegemonikoaren mandatuekiko gertutasun-maila. Oro har, gaitzespen argia ikusten da maskulinitatearen kutxa eraikitzeko erabili diren item guztiei dagokienez. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren % 80 baino gehiago ez dago ados (desados + guztiz desados) baieztapen guztiekin; eta erdia baino gehiago guztiz desados dago ia kasu guztietan. Horrenbestez, ikus daitekeenez, Euskal Autonomia Erkidegoko **biztanle gehienek ohiko maskulinitate hegemonikoaren ereduak gaitzesten dituzte**.

1. GRAFIKOA. Ohiko maskulinitate hegemonikoaren inguruko ikuspegia. 15-65 urte bitartekoak; globala. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)

Guztiz desados

Ohiko maskulinitate hegemonikotik URRUTIAGO

Guztiz ados

Ohiko maskulinitate hegemonikotik GERTUAGO

Kalteberatasuna saihestea eta indarkeria legitimatzea

Beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da	44,2	33,7	17,9	4,1
Gizonek beren artean konpondu beharko lituzkete beren arazo pertsonalak, besteei laguntza eskatu gabe	47,6	35,4	13,8	3,2
Gizon batek ez du negar egin behar jendaurrean	64,9	24,7	7,9	2,4
Logikoa da gizonek indarkeria erabiltzea errespetua lortzeko, behar izanez gero	72,1	19,3	6,6	1,9

Ohiko genero-balioak eta -rolak hartzea

Ez da ona mutil bati janaria prestatzen, josten, etxea garbitzen eta haur txikiagoak zaintzen erakustea	76,2	13,3	7,0	3,5
Gizonek ekarri beharko lukete dirua etxera eta eurek mantendu beharko lukete familia, ez emakumeek	68,0	23,7	5,8	2,5
Gizon batek beti izan beharko luke azken hitza bere bikote-harremanaren edo ezkontza-harremanaren inguruko erabakietan	71,9	22,0	4,6	1,5
Mutil batek ez luke "nesken gauzetara" jolastu behar, txikitatik hasita	67,0	22,0	7,4	3,6

Hipersexualitatea naturalizatzea

Gizon batek ahalik eta sexu-bikotekide gehien eduki beharko lituzke	68,2	22,8	7,3	1,7
Gizon batek bere bikotekidearekin sexu nahikorik ez badu, ulergarria da desleialtasun bat egitea	64,6	24,0	9,2	2,2
Normala da gizon batek prostituziora jotzea sexu-harremanak izateko	59,1	27,5	10,8	2,5
Normala da gizon batek ezagutzen ez duen eta erakargarria iruditzen zaion emakume bati gune publiko batean piropoak esatea	54,9	30,3	12,7	2,1

Sexu-orientazioaren aniztasuna gaitzestea

Benetako gizon bat inoiz ezin da afeminatua izan	59,7	25,6	10,2	4,6
Ez da gomendagarria gizon heterosexualek lagun homosexualak izatea	70,0	23,0	4,8	2,2
Benetako gizonak heterosexualek dira	57,9	25,7	11,0	5,4

Zaintzaren kritika eta itxuraren inguruko kezka

Emakumeek ez dituzte bilatzen beren itxurarekin eta janzkerarekin asko kezkatzen diren gizonak	43,1	43,5	10,9	2,5
Bere itxurari denbora asko eskaintzen dion gizona ez da oso maskulinoa	61,3	31,5	6,0	1,2

G49_G65. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? //Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 1.252 pertsona.


Gaitzespen handiena (biztanleen % 10etik behera baino ez dago ados) sortzen dituzten aldagaiak, adostasun-maila handienetik txikienera, ondokoak dira: “gizon batek ahalik eta sexu-bikotekide gehien eduki beharko lituzke” (% 9), “logikoa da gizonak indarkeria erabiltzea errespetua lortzeko, behar izanez gero” (% 8,6), “gizonak ekarri beharko lukete dirua etxera eta eurek mantendu beharko lukete familia, ez emakumeek” (% 8,3), “bere itxurari denbora asko eskaintzen dion gizona ez da oso maskulinoa” (% 7,2), “Ez da gomendagarria gizon heterosexualek lagun homosexualak izatea” (% 7) eta, azkenik, “gizon batek beti izan beharko luke azken hitza bere bikote-harremanaren edo ezkontza-harremanaren inguruko erabakietan” (% 6,1).

Bestalde, **% 15etik gorako adostasun-maila lotzen dutenak honako hauek dira**, adostasun-maila handienetik txikienera: “beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da” (% 22), “gizonak beren artean konpondu beharko lituzkete beren arazo pertsonalak, besteei laguntza eskatu gabe” (% 17) eta “benetako gizonak heterosexualek dira” (% 16,3). Ikus daitekeen bezala, jendaurrean kaltebera ez agertzeko mandatu maskulinoa eta homosexualitatea gaitzesteko hori dira adostasun-mailarik handiena lortzen dutenak biztanleen artean.

Maskulinitatearen kutxa osatzen duten jarrera guztiak **sexuak oso markatuta daude**. Gizonak eta emakumeek gaitzespen zabala agertzen badute ere aldagai guztietan, **gizonen kasuan adostasun-portzentajeen batezbestekoa % 16,2an kokatzen da, emakumeen kasuan erdia baino txikiagoa denean, % 7,4**. Gizonen eta emakumeen artean alderik handienak (10 portzentaje-puntu baino gehiago) agertzen dituzten aldagaiak honako hauek dira: “beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da” (gizonen % 30,1 eta emakumeen % 14), “benetako gizonak heterosexualek dira” (gizonen % 22,5 eta emakumeen % 10), “normala da gizon batek prostituziora jotzea sexu-harremanak izateko” (gizonen % 19,5 eta emakumeen % 7,1), “gizon batek bere bikotekidearekin sexu nahikorik ez badu, ulergarria da desleialtasun bat egitea” (gizonen % 17,3 eta gizonen % 5,6), “normala da gizon batek ezagutzen ez duen eta erakargarria iruditzen zaion emakume bati gune publiko batean piropoak esatea” (gizonen % 20,6 eta emakumeen % 9) eta “benetako gizon bat inoiz ezin da afeminatua izan” (gizonen % 20,3 eta emakumeen % 9,2). Ikus daitekeen bezala, alderik handienak agertzen dituzten mandatuak gizonen kalteberatasuna ezkutatzeari, hipersexualitate maskulinoari eta heteronormatibitatearen naturalizazioari lotutako horiek dira. Bestalde, aldeak txikiagoak dira familia-ordena patriarkalaren balioei loturiko mandatuei eta itxura zaintzeko gaitzespenari lotutako horiek dira.

Adinari dagokionez, ondoko joera ikusi da: urteek behera egin ahala adostasun-mailak gora egiten du, ia baieztapen guztietan. **Gazteak (15-29 urte) ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuago daude, pertsona zaharragoak baino**. Alde bereziki markatuak dituzten lau aldagai identifikatu ditugu: lehenik, heteronormatibitateetik aldentzen diren desbideratze guztiak gaitzesteko mandatu maskulinoari dagokionez, gazteen % 24,9k dio “benetako gizonak heterosexualek direla”, 30-49 urte bitartekoen taldearen % 15,6aren eta 50-65 urte bitartekoen taldearen % 12,3aren aurrean. Joera berbera ikusten da “benetako gizon bat inoiz ezin da afeminatua izan” baieztapenari buruz: % 22,6ko adostasuna gazteen artean, % 14,4koa 30-49 urte bitartekoen artean eta % 10,8koa 50-65 urte bitartekoen artean. Alde esanguratsuak agertzen dituen beste aldagai bat da “emakumeek ez dituzte bilatzen beren itxurarekin eta janzkerarekin asko kezkatzen diren gizonak” dioena: % 23,7ko adostasuna gazteen artean eta % 11 ingurukoa beste bi adin-tartetan. “Beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da” baieztapenarekin ados dauden gazteen portzentajea % 24,6 da, beste bi taldeetako hori baino 6 portzentaje-puntu altuagoa.

2. GRAFIKOA. Ohiko maskulinitate hegemonikoaren inguruko ikuspegia. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G49_G65. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? //Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.


Joera hori ia baieztapen guztietan errepikatzen da, bi salbuespenekin: “normala da gizon batek ezagutzen ez duen eta erakargarria iruditzen zaion emakume bati gune publiko batean piropoak esatea” eta “gizon batek ahalik eta sexu-bikotekide gehien eduki beharko lituzke” baieztapenei buruz agerturiko jarrerak. Azken horien aurrean, hiru adin-tarteek antzeko adostasun-maila agertzen dute, % 15 ingurukoa lehen baieztapenerako eta % 9 ingurukoa bigarrenerako. Datu horien arabera, hipersexualitate maskulinoaren mandaturia zeharkakoa da adin-tarte guztietan. Bestalde, 15-19 urte bitartekoak eta 30-49 urte bitartekoak taldeetan antzeko adostasun-mailak agertzen dituzten zenbait baieztapen daude: “ez da ona mutil bati janaria prestatzen, josten, etxea garbitzen eta haur txikiagoak zaintzen erakustea” (% 12 eta % 13 arteko adostasuna) edo “bere itxurari denbora asko eskaintzen dion gizona ez da oso maskulinoa” (% 10 inguru bi taldetan).

Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak

Puntu honetan, **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak maskulinitatearen kutxako zein posiziotan dauden azter dezakegu**. Aurreratu den bezalaxe, erabili diren 17 adierazleen aurreko erantzunen batezbesteko aritmetikoa kalkulatu da ohiko maskulinitate hegemonikoaren eredu bat definitzeko eta hiru posizio zehaztu dira, eredu horrekiko adostasun-mailaren edo gertutasunaren arabera.

Emaitzek adierazten dutenez, **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 4,5 baino ez da maskulinitatearen kutxaren “barruan” kokatzen, erdibideko posizioak (kutxaren “ertzean”) okupatzen dituen % 37,1aren eta kutxatik “at” dagoen % 58,4aren aurrean**. Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoaren gehiengoa, 10 pertsonatik ia 6, kutxatik at egongo litzateke.

3. GRAFIKOA. Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Datuak gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak aintzat hartuz eta adin-taldean arabera aztertzean kutxa osatzen duten dimentsioen analisiari jarraitutasuna ematen dion joera bat ikus daiteke, espero zitekeen bezala. **Sexuari erreparatuz, maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen diren gizonen portzentajeak, marjinala izaten jarraitzen badu ere, emakumeen portzentajea hirukoizten du (gizonen % 6,9, emakumeen % 2,2).** Halaber, gizonen % 49,8 maskulinitatearen kutxaren "ertzean" dago, emakumeen % 24,2arekin alderatuta, eta gizonen %43,2 kutxatik "at" dago, posizio hori emakumeen gehiengoak era garbian okupatzen duen bitartean (% 73,7).

Adin-tarteei dagokienez, **15-19 urte bitartekoen talderik gazteena da posizio atzerakoienetatik gertuen dagoena.** Tarte horretan % 37,7 baino ez da kutxatik "at" kokatzen, beste adin-tarteetan portzentaje horiek % 48 eta % 67 bitartean daudenean. Gizonen kasuan joera hori bereziki kezagarria da: **15 eta 19 urte bitarteko gizonen** % 22,5 maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen da, % 60 ertzean eta % 17,5 baino ez dago kutxatik at. Aurreko horrek **adin bereko emakumeen kasuarekin kontrastatzen du:** ia ez da emakumerik kokatzen kutxaren barruan, % 40,5ek kutxaren ertzeako posizioak agertzen ditu eta % 59,5 kutxatik at kokatzen da.

Talde gazteenaz aparte, maskulinitatearen kutxatik gertuen dauden jarrerak **25 eta 59 urte bitartekoen** artean ikusten dira. Tarte horretan, % 6,5 inguru kutxaren barruan kokatzen da eta % 40 inguruk bitarteko posizioak okupatzen ditu. Beste behin, kutxaren gertu dauden gizonen portzentajeak emakumeenak baino handiagoak dira: adin-tarte honetako gizonen ia % 9 barruan dago eta emakumeen kasuan portzentaje hori % 4koa da. Deigarria da, beste behin, **talderik zaharrenak (50-65 urte)** direla ohiko maskulinitate hegemonikoaren postulatuetatik urrunen daudenak: kutxaren barruan daudenak ez dira % 2ra iristen. **20-24 urte** bitartekoen taldeak ere postulatu horiek era nabarian ukatzen ditu: gizonen % 4,1 eta % 2,3 baino ez daude kutxaren barruan. Gizonen % 57,1ek bitarteko posizio bat okupatzen duen bitartean, emakumeen kasuan % 18,2 dira bakarrik.

GENERO-SOZIALIZAZIO BEREIZGARRIA

4.1.2

Genero-sozializazio bereizgarria delako prozesuaren bidez pertsonen genero-portaera, -rolak, -arauak eta -itxaropenak ikasi eta barneratzen dituzte beren bizitzan zehar. Prozesu hori jaiotzan bertan hasten da eta familia, eskola, hedabideak, lan-ingurunea edo kideen taldea bezalako gizarte-erakunde eta -eragile ezberdinen bitartez betikitzen da.


"Benetako gizon bat" edo "benetako emakume bat" izatea

Genero-sozializazio bereizgarriko prozesuetako funtsezko osagai bat da gizon izateak eta emakume izateak zer esan nahi duenari buruzko definizio zorrotz eta hermetiko bat izatea genero-rol eta -mandatuei dagokienez. Kontzeptu mota horiekin hazteak mugaketa garrantzitsuak ekar ditzake norberaren nortasuna eta pertsonalitatea esploratzeko eta eraikitzeko orduan.


Osagai horien inpaktua ulertzeko, **"benetako gizon batek" edo "benetako emakume batek" portaera zehatz bat dutela edo portaera zehatz bat izan beharko luketela pentsatuz txiki-txikitik hazi direnak zein heinean diren ohikoak aztertu dugu.**

4. GRAFIKOA. Txiki-txikitatik “BENETAKO GIZON BATEK” eta “BENETAKO EMAKUME BATEK” portaera zehatz bat dutela entzunaz hazi diren pertsonak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)

“Benetako gizon bat” izatea zer den esan al dizute txiki-txikitatik?



“Benetako emakume bat” izatea zer den esan al dizute txiki-txikitatik?





47. galdera. Txikitatik esan al dizute zure ingurune hurbilekoek (fami­liak, lagunek, auzotarrek eta abar) “benetako gizon” batek modu jakin batean jokatz­en duela edo jokatu behar duela? // 48. galdera. Eta, txikitatik, esan al dizute zure ingurune hurbilekoek (fami­liak, lagunek, auzotarrek eta abar) “benetako emakume” batek modu jakin batean jokatz­en duela edo jokatu behar duela? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Euskal Autonomia Erkidegoko gizartean dezente hedatua dago benetako gizon bat zer denaren eta benetako emakume bat zer denaren ideia­ren transmisioa. Alde batetik, pertsona gehienek (% 55,1ek) “**benetako gizon batek**” era zehatz batean jokatu behar duelaren nozioa jaso dute txiki-txikitatik, eta gertuko­en aldetik (% 44,9k ez du jaso). Sexuaren eta adinaren arabera oso erabakigarriak dira: 15 eta 29 urte bitarteko gizonak dira **benetako gizon batek**” era zehatz batean jokatu behar duelaren nozioa jaso dutela gehien adierazten dutenak. Gizonen % 58,1 eta emakumeen % 52 eta % 65,9 15 eta 29 urte bitarteko­en artean, 30-49 urte bitarteko­en artean % 53,8 eta 50 eta 65 urte bitarteko­en artean % 50,4 direnean. Ikus daitekeenez, joera horiek bat datoz maskulinitatearen kutzako hiru posizioak aztertzerakoan ikusi ditugun horiekin: gizonak eta adin-tarterik gazteena dira.

Bestalde, “**benetako emakume bat**” izatearen nozioa aztertzeko orduan, erdiak baino gehiagok (laginaren % 56,5ek) txiki-txikitatik entzun du (% 43,4k ez du entzun). “Benetako emakume bat” izatearen nozioaren aurrean sexuaren eta adinaren arabera ikus daitezkeen aldeak esanguratsuak dira beste behin. Oraingoan, joera kontrakoa da sexuari dagokionez, emakumeak baitira “benetako emakume batek” izan beharko lukeen portaera gehien entzun dutenak (emakumeen % 62,5 eta gizonen % 50,7). Adin-taldeei dagokienez, 15-29 urte bitartekoak nabarmenak dira berriz ere: % 61,6k nozio hori entzun duela aitortzen du eta beste adin-taldeetan portzentaje hori % 55 ingurukoa da.

5. GRAFIKOA. Txiki-txikitatik “BENETAKO GIZON BATEK” eta “BENETAKO EMAKUME BATEK” portaera zehatz bat dutela entzunaz hazi diren gizonak. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



47. galdera. Txikitatik esan al dizute zure ingurune hurbilekoek (familiak, lagunek, auzotarrek eta abar) “benetako gizon” batek modu jakin batean jokatzeko duela edo jokatu behar duela? // 48. galdera. Eta, txikitatik, esan al dizute zure ingurune hurbilekoek (familiak, lagunek, auzotarrek eta abar) “benetako emakume” batek modu jakin batean jokatzeko duela edo jokatu behar duela? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 50 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272.

Arreta gizonetan jarritz, 10etik ia 6k adierazten dute txiki-txikitatik transmititu zaiela “benetako gizon” batek era zehatz batean jokatu behar duela. **Adin-tartea zein maskulinitatea gorpuzteko beren era** oso erabakigarriak dira: adin-tarterik gazteenean dago hedatuen maskulinitatearen nozio itxi hori (% 69,3, 30-49 urte bitartekoen taldean % 56,7 eta 50-65 urte bitartekoen taldean % 52 diren heinean). Azkenik, kutzako hiru posizioek ere beren eragina dute aldagai honetan: ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuago daudenak “benetako gizon” batek izan behar duen portaera entzunaz hein handienean hazi diren horiek dira, % 78, kutzaren ertzean daudenen % 67,3aren eta kutxatik at daudenen % 44,2aren aurrean.


Halaber, gizonak eta “benetako emakume” baten nozioa aztertzerakoan ikus daiteke erdiak (% 50,7k) adierazten duela “benetako emakume” batek izan behar duen portaeraren nozioa txikitatik entzun ohi duela. Kasu honetan, **adina apenas da esanguratsua**, feminitatearen nozio horrekin hazi direla dioten gizonen portzentajea % 48 eta % 55 bitartean baitago hiru adin-tarteetan. **Maskulinitatearen kutzako posizioek**, baina, **eragin nabaria dute datuetan**. Kuxa barruan daudenen % 66,5ek adierazten du “benetako emakume” baten ideiarekin hazi dela eta portzentaje hori % 59,9koa da bitarteko posizioak okupatzen dituztenen kasuan eta % 37,5ekoa maskulinitatearen kutxatik at daudenen kasuan.

Sintesi gisa esan genezake genero-rolai, -portaerei, -estereotipoei eta -mandatuei dagokienez maskulinitatea eta feminitatea zer diren inguruko definizio esentzialistek eta erredukzionistek presentzia oso handia dutela Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen imajinario kolektiboan. Txiki-txikitatik “benetako gizon” batek eta “benetako emakume” batek era zehatz batean jokatu behar duela entzunaz hazi direla adierazi dutenak % 62,8 dira. Halaber, mota honetako planteamenduek eragin nabaria dute maskulinitatea gorpuzteko eran, maskulinitatearen kutzaren barruan dauden gizonak baitira maskulinitate- eta feminitate-eredu horien transmisioa hein handiagoan oroitzen dutenak. Azkenik, nabarmendu beharra dago, beste behin, adin-tarteek eragin erabakigarria dutela aldagai honetan: **pertsona gazteenak dira txiki-txikitatik “benetako gizon” batek eta “benetako emakume” batek era zehatz batean jokatu behar duela entzunaz hazi direla hein handiagoan adierazten dutenak**. Adinaren eraginaren inguruan bi hipotesi planteatu daitezke: alde batetik, pertsona gazteenek xehetasun handiagoaz oroitzen dute beren haurtzaroa eta, ondorioz, errazago identifika ditzakete maskulinitatearen eta feminitatearen definizio zorrotz hori helarazi zaien uneak eta, bestetik, definizio horiek, hurbilekoen aldetik (beste belaunaldiak gertatu bezala) ez ezik, online espazioetatik ere jaso dituzte.

Gizonak definitzen dituzten ezaugarriak

Maskulinitatea eraikitze moduak aztertze moduak funtsezkoa den beste alderdi bat dira gizonen loturiko **adjektiboak eta atributuak**. Osagai hau ahalik eta sakontasun handienarekin ulertu ahal izateko, hiru ikuspegiren artean bereizi da: gizonen beren buruari buruz duten hautematea, gizonen aburuz gizarteak esleitzen dizkien adjektiboak eta emakumeek gizonak nola definitzen dituzten. Adjektibo-sorta berdina erabili da bereizitako hiru ikuspuntu horiei erreparatuz eta, jarraian, emaitzak aztertzen ditugu.

6. GRAFIKOA. Gizonak definitzen dituzten ezaugarriak. 15-65 urte bitartekoak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




34. galdera. Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira ondoen definitzen zaituztenak? // 46. galdera. Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira gizarteak nagusiki gizoni esleitzen dizkienak? // Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira ondoen definitzen zaituztenak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona; 627 gizon eta 624 emakume

Bildutako datuen arabera, gizonak definitzen dituzten adjektiboen eta atributuen multzoan alde esanguratsuak daude hartzen den ikuspuntuaren arabera. Planteatu diren hiru ikuspuntuetan dagoen konstante bakarra da “langileak” adjektiboa dela gehien aipatzen dena, bai autohautematek (% 65,2k uste du gizonen berezko ezaugarri bat dela langileak direla), bai gizonak gizarteak esleitzen dizkien ezaugarriak buruz duten iritzitik (% 44) eta emakumeek gizonen inguruan duten ikuspegitik (emakumeen % 42,4k uste du gizonak).

1. Lehenik, nabarmendu beharra dago **gizonak beren buruari buruz duten hautematea** adeitsuena dela eta, halaber, apurtzaileena dela ere genero maskulinoko estereotipoak dagokienez. Gehien aipatzen diren adjektiboak honako hauek dira: “langileak” (% 65,2), “arduratsuak” (% 64,3), “independenteak” (% 43,3), “sentiberak, atseginak” (% 41,8) eta “enpatikoak” (% 41,7).
2. Bigarren, **gizonen iritziz gizarteak esleitzen zaizkien ezaugarrien inguruko aldagaia**, oro har, negatiboa da, bai eta genero maskulinoko estereotipoak gehien indartzen dituen ere. Langileak adjektiboaren atzetik ondokoak datoz: “posesiboak, jeloskorrak” (% 38,5), “oldarkorrak” (% 36,7), “liderrak, zirt edo zartekoak” (% 35,4) eta “hotzak, ez oso emozionalak” (% 33,5). Ikus daitekeenez, gizonak beren buruari buruz duten iritziarekin argiro kontrastatzen duten ikuspegiak dira eta askoz hein handiagoan ohiko maskulinitate hegemonikoaren genero-mandatuekin bat egiten dutenak.

3. Hirugarrenez, **emakumeek maskulinitateari buruz duten ikuspuntua** oso deigarria da: gizonak beren buruari buruz duten iritzia bezain positiboa ez bada ere, argiro aldentzen da ere gizonen ustez gizarteak beren inguruan duen ikuspegi hegemoniko horretatik. Nabarmentzekoa da, esaterako, “posesiboak, jeloskorak” eta “oldakorrak” adjektiboen kasuetan dauden aldeak, gizonak horrela definitzen dituzten emakumeen portzentajea % 16,7koa eta % 10,2koa baita, hurrenez hurren. Nolanahi ere, aipamen gehien dituzten adjektiboek ohiko maskulinitate hegemonikoaren mandatu nagusietako zenbait berresten dituzte: “langileak” eta gero, ondokoak ageri dira: “heldugabeak” (% 31,5), “hotzak, ez oso emozionalak” (% 29,1), “arduratsuak” (% 26,4) eta “independentek” (% 25,2).

7. GRAFIKOA. Pertsonalki definitzen dituzten ezaugarriak, beren aburuz (autohautematea). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




34. galdera. Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira ondoen definitzen zaituztenak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272.

Kutxako hiru posizioek ere eragin nabaria dute gizonen maskulinitatea interpretatzeko eta definitzeko duten moduan. Nolabaiteko adostasuna ikusten da gizonak “langileak” eta “arduratsuak” direla dioen nozioaren aurrean, % 50etik gora baitaude biak kutxako hiru posizioetan. Portzentajeak, baina, gora egiten du erantzuleak ohiko maskulinitate hegemonikotik aldentzen diren heinean, maskulinitatearen kutxatik at daudenen % 70eraino iritsi arte. Kontrasterik handienak ageri dira genero maskulinoko estereotipoak gehien berresten eta gehien arbuiaitzen dituzten kategorien aurrean: kutxa barruko gizonen % 22,9k baino ez du bere burua “sentiberatza, atsegintza” jotzen, portzentaje hori % 37,9koa denean kutxaren ertzean daudenen kasuan eta % 49,3 kutxatik at daudenen kasuan. Bestalde, kutxa barruko gizonen % 28,9ren ustez gizonak dira “hotzak, ez oso emozionalak”, % 15aren inguruan dauden beste posizioetako iritzia bikoiztuz. Gutxienek badira ere, kutxaren barruko gizonen artean beren burua definitzeko “promiskuoak” (% 11,9) edo “oldakorrak” (% 5,7) adjektiboak erabiltzen dituztenen portzentajeek ere kutxako bete posizioetako horiek bikoizten eta hirukoizten ere dituzte.

Azkenik, genero-sozializazioarekin eta maskulinitateak gizartean esan nahi duenarekin jarraituz, **gizarteak “benetako gizon” bati buruz duen definizioarekin zenbateraino bat egiten dutenari buruz gizonen beren burua definitzeko iritzia** aztertu dugu. Hau da, gizon izatea zer denari buruz gizarteak duen balizko kontzeptu ideal —edo tradizional— horrekin gizonen bat egiten duten ala ez uste duten galdetu diegu gizonari.

8. GRAFIKOA. Norberaren iritzia, gizarteak “gizon izateari” buruz duen ideiarekin gizon izateko duen modua zer neurritaraino bat datorren azalduz; **BAT-ETORTZE ALTUA (7-10, 0-10 bitarteko eskalan), BAT-ETORTZE ERTAINA (4-6), BAT-ETORTZE BAXUA (0-3).** 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



48. galdera. Eta, zure ustez, zer neurritaraino dator bat gizon izateko duzun modua gizarteak gizonengandik espero duenarekin? Erabili 0-10 eskala; 0 “ez dator batere bat” da, eta 10, berriz, “guztiz bat dator”. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272.

Pisurik handienak gizon izateko duten era modu ertainean (% 37,1) edo modu altuan (% 33,7) datorrela bat gizarteak gizonengandik espero duenarekin uste duten gizonen artean banatzen badira ere, banaketa nahiko orekatua dago, lau gizonetik 1ek uste baitu era baxuan datorrela bat (% 24,5). Adinaren arabera, ez dago apenas alderik gizonen artean baina era baxuan bat datorrela uste dutenen proportzioa gazteen artean (15-29 urte) da txikien (% 20tik beherakoa). Maskulinitatearen kutxarekiko posizioek, ordea, nabarmendu beharreko ezberdintasun adierazgarriak agertzen dituzte; kontrako joera dago kutxatik at eta kutxa barruan dauden artean eta ertzean daudenak erdibidean geratzen dira:

- **Kutxa barruko gizonak.** Hein handiagoan datoz bat gizarteak benetako gizonengandik espero duenarekin. Ia erdiak (% 46k) uste du benetako gizon izateko ideia horrekin bat datorrela. % 5,7k baino ez du uste gutxi datorrela bat.
- **Kutxaren ertzean dauden gizonak.** Kutxa barruko gizonengandik hurbil kokatzen dira, ertzean dauden 10 gizonetik 4k uste baitute maila handian datozela bat gizarteak gizonengandik espero duenarekin, nahiz eta gutxi datozela bat uste dutenen portzentajea kutxa barruan hautemate hori dutenen portzentajea baino askoz altuagoa den (% 16,5 ertzean dauden artean, % 5,7 kutxa barruko artean); nolanahi ere, urruti daude benetako gizon bat zer den ulertzeko ohiko era hegemonikoetatik aldenduta dauden posizioetatik.
- **Kutxatik at dauden gizonak.** Gizarteak benetako gizonengandik espero duen balizko ideia horretatik aldentzen dira. 4tik 1ek baino ez dio maila handian datorrela bat ideia horrekin eta 3tik 1ek zertxobait edo gutxi datorrela bat dio. Izan ere, kutxatik at dauden gehiengoak gutxi datorrela bat dio (% 37,1ek).

EGOERA PERTSONALA ETA PORTAERAK

4.2


Maskulinitatearen kutxa nola eraikitzen den ulertu eta gizon bat izatea zer den edo zer ez den edo zer izan behar duen eta zer izan behar ez duen inguruko Euskal Autonomia Erkidegoaren hautemate ezberdinak aztertu eta gero, maskulinitatearen kutxa horren aurreko jarrerak pertsonen bizitza pertsonalaren alderdi erabakigarriekin (gogobetetasuna, buruko osasuna, daukaten gizarte-babesa, beren portaerak edo sentitzen dituzten presio sozialak) harremanetan jartzeko unea da.

Ondorioz, horrek esan nahi du bloke honetan biztanlerien egoera pertsonalari loturiko zenbait funtsezko aldagai aztertuko direla; ondokoak, hain zuzen ere: gogobetetasun- edo zorion-maila, buruko osasuna, babes sozioemozionalak, erakargarritasun-maila eta itxura fisikoaren inguruko kezka, presio soziala, pairatutako eta gauzatutako jazarpenera eta jokabide arriskuak. Aldagai horiek sexua eta adina bezalako beste aldagai gako batzuekin gurutzatuko dira baina analisiaren xedea honako hau izango da: aldagai horien eta maskulinitatearen kutxarekiko euskal gizonek hartzen dituzten posizioen —kutxaren barruan, ertzean edo kutxatik at—arteko harremana.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle gehienek zorion-maila altua adierazten dute: erantzun dutenen % 64,4k zorion-maila altua aitortzen du, zorion-maila ertaina eta zorion-maila baxua aitortzen dituztenen aurrean (% 28,5 eta % 7,1, hurrenez hurren).

Ez da apenas alderik ikusten sexuaren edo adinaren arabera, baina nabarmendu beharra dago zorion-maila altua aitortzen duten gizonen portzentajea (% 65,3) emakumeena baino zertxobait handiagoa dela (% 63,7). Eta justu kontrakoa gertatzen da zorion-maila baxuarekin (gizonen % 5,9 eta emakumeen % 8,3).


9. GRAFIKOA. Zorion-maila; ZORION ALTUA (7-10, 0-10 eskalan), ZORION ERTAINA (4-6), ZORION BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko biztanleria; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



14. galdera. Oro har, zure bizitzako alderdi guztiekiko gogobetetasuna kontuan hartuta, nola baloratuko zenuke zure egungo zoriontasun-maila? Erabili 0-10 eskala; 0 "guztiz zoritzarrekoa" da, eta 10, berriz, "guztiz zoriontsua" // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Arreta **gizonen analisisian** jarritz ikus daiteke % 65,3k zorion-maila altua aitortzen duela, zorion-maila baxua aitortzen dutenen % 5,9aren aurrean. Ez dago alde esanguratsurik adinaren arabera. Maskulinitateari buruzko ikuspegiak, ordea, alde esanguratsuak markatzen ditu. *Grosso modo*, **kutxa barruko gizonak ez dira hain zoriontsuak**, gehienbat, zorion-maila baxuak aitortzen dituztenen proportzio askoz handiagoa agertzen dutelako: kutxaren barruko gizonen % 12,4k zorion-maila baxua adierazten du, kutxaren ertzean dauden gizonen % 8,5aren eta kutxatik at dauden gizonen % 1,9 xumearen aurrean. Zorion-maila altua aitortzen duten gizonen proportzioa antzekoa da kutxa barruko, ertzeko eta kutxatik at dauden gizonen artean (azken kasu horretako datua zertxobait altuagoa da).

10. GRAFIKOA. Zorion-maila; ZORION ALTUA (7-10, 0-10 eskalan), ZORION ERTAINA (4-6), ZORION BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



14. galdera. Oro har, zure bizitzako alderdi guztiekiko gogobetetasuna kontuan hartuta, nola baloratuko zenuke zure egungo zoriontasun-maila? Erabili 0-10 eskala; 0 "gutziz zoritxarrekoa" da, eta 10, berriz, "gutziz zoriontsua" // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272.

BURUKO OSASUNA ETA ONDOEZAK


4.2.2

Buruko osasuneko arazoak

Puntu honetan, biztanleriak pairatzen dituen buruko osasuneko arazoak aztertuko ditugu, sexu, adin eta maskulinitatearen kutxarekiko okupatzen den posizioaren arabera agertzen diren ezberdintasunak aztertuz. Honela, alde soziodemografiko esanguratsuenak eta maskulinitateak ongizate sozioemozionalean duen eragina dimentsionatu nahi ditugu.

Hasteko, ondokoa nabarmendu beharra dago: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erdiak adierazten du ez duela inoiz buruko osasuneko arazorik eduki. % 23,4k zenbaitetan izan dituela eta % 11,8k maiz izaten dituela adierazi dute.


11. GRAFIKOA. Buruko osasuneko arazoak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



16. galdera. Azken hamabi hilabeteetan izan al duzu noizbait (edo uste izan duzu izan duzula) arazo psikologikorik, psikiatrikorik edo osasun mentalekorik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Sexuaren eta **adinaren** araberako aldeak oso esanguratsuak dira; emakumeak eta gazteenak dira buruko osasuneko arazo gehien pairatu dituztenak. Arreta sexuaren aldagaian jarriz, 10 gizonetik 6k eta 10 emakumetik 4k diote ez dutela inoiz buruko osasuneko arazorik izan. Horrez gain, arazo mota hau maiz pairatzen duten emakumeen portzentajeak gizonena bikoizten du ia (emakumeen % 16 eta gizonen % 7,7). Adin-taldeei erreparatu, 15 eta 29 urte bitartekoen % 38,5ek dio ez duela inoiz buruko osasuneko arazorik izan, 30-49 urte bitartekoen % 47,8aren eta 50-65 urte bitartekoen % 59,7aren aurrean. Talderik gazteenean nabarmenena da arazo mota hau behin edo zenbaitetan izan dutela diotela nagusiki. Nolanahi ere, deigarria da ere buruko osasuneko arazoak maiz dituztela diotenen artean adinaren arabera ezberdintasunak murrizten direla eta bitarteko taldea dela portzentajerik handiena agertzen duena (% 13,6), gazteenen taldearen (% 12,5) eta 50 urtetik gorako taldearen (% 9,3) aurrean.

12. GRAFIKOA. Buruko osasuneko arazoak eta suizidio-ideiak esperimentatzea. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



16. galdera. Azken hamabi hilabeteetan izan al duzu noizbait (edo uste izan duzu izan duzula) arazo psikologikorik, psikiatrikorik edo osasun mentalekorik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272

Puntu honetan **gizonei** eta, bereziki, maskulinitatea gorpuzteko erak duen eraginari **eskainiko diegu arreta**. Adin-taldeak aztertuz, lagin osoaren joera berbera mantentzen da eta 15-29 urte bitarteko gizonak dira arazo gehien aitortu dituztenak. Arazo hauek maiz izan dituztenak aztertzerakoan, ordea, 30-49 urte bitartekoen taldea nabarmentzen da (% 10), beste bi taldeen aurrean (% 6 biek).

Maskulinitatearen kutxari dagokionez, deigarria da ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuen dauden gizonak direla arazo gutxien adierazi dituzten horiek. % 65,2k dio ez duela inoiz buruko osasuneko arazorik izan, kutxaren ertzean dauden % 58,3aren eta kutxatik at dauden % 59,4aren aurrean. Eta gauza bera gertatzen da arazo hauek maiz pairatzen dituztenen kasuan: maskulinitatearen kutxatik at daudenak dira zailtasun hauek dituztela gehien adierazten dutenak (% 8,9), erdibideko posizioetan daudenak (% 6,9) eta maskulinitatearen kutxaren barruan daudenak (% 6,6) aurrean.


Puntu honetan nabarmendu beharra dago joera hori maskulinitatearen kutxaren inguruan iraganean, Espainiako estatuan (Sanmartín et al. 2022) zein Valentziako Komunitatean (Kuric et al. 2023) egin ditugun ikerlanetan erregistratutakoaren kontrakoa dela, azken bi horietan maskulinitatearen kutxaren barruan zeudenak baitziren buruko osasuneko azaroak zituztela hein handiagoan ere adierazten zutenak. Kasu honetan, baina, aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak eta, horrenbestez, ez dago zeharo esaterik aurkako joera dagoenik Euskal Autonomia Erkidegoan.

Suizidio-ideiak

Ondoez emozionala islatzen duen funtsezko beste aldagai bat suizidio-ideia da: buruaz beste egiteko ideiak izan dituzten pertsonen portzentajea eta aipatua zer nolako maiztasunarekin gertatzen den. Puntu honetan ezberdintasun soziodemografikoak aztertuko ditugu beste behin, bai eta kutzako posizioek aldagaian duten eragina ere.

Hasteko, ikusi da Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen gehiengoak (% 71,8k) dioela ez duela ideia mota hau inoiz izan. Bestalde, % 12,8k dio behin baino ez dituela izan, % 10,9k zenbaitetan izan dituela eta % 3,1 marjinal batek adierazten du maiz izaten dituela.

13. GRAFIKOA. Suizidio-ideiak izatea. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




17. galdera. Izan al duzu inoiz suizidio-ideiarik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454

Sexu eta adinaren arabera aldea aztertuz, sexu aldagaia ez da oso esanguratsua baina adin-taldeen, ordea, ezberdintasun garrantzitsuak agertzen dituzte. Suizidio-ideiarik inoiz izan ez dutela dioten gizonen portzentajea % 73,4 da, emakumeena baino hiru portzentaje-puntu altuagoa (% 70,3). Emakumeek, oro har, gizonek baino maizago izaten dituzte suizidio-ideiak, baina aldeak oso txikiak dira.

Adinari dagokionez, 15-29 urte bitartekoen taldea da suizidio-ideia gehien erregistratzen dituen taldea. % 65ek baino ez du adierazten ez duela mota honetako ideiarik inoiz izan (% 70ek 30-49 urte bitartekoen artean eta % 77,8k 50-65 urte bitartekoen artean). Joera hori beste maiztasun guztietan ere ikus daiteke: gazteen % 16,9k dio suizidio-ideiak zenbaitetan edo maiz izan dituela, 30-49 urte bitartekoen % 14,8aren eta 50-65 urte bitartekoen % 11,5aren aurrean.

14. GRAFIKOA. GRAFIKOA. Suizidio-ideiak izatea. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren ea maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



17. galdera. Izan al duzu inoiz suizidio-ideiarik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 50 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Adin-taldean arabera ezberdintasunek, gizonen artean, lagin orokorraren joerak errepikatzen dituzte baina, kasu honetan, bitarteko adinen (30-49) taldea da beste biak baino maila handiagoan adierazi duena suizidio-ideiak izan dituela. Nolanahi ere, suizidio-ideiak maiz dituztenen kasuari erreparatuz ikus daiteke gazteenak direla hein handiagoan esperimentatzen dituztela (% 5,2), bitarteko taldearen % 2,8aren eta talderik zaharrenaren % 1,3aren aurrean. 50 urtetik gorako gizonak dira suizidio-ideiak gutxien esperimentatzen dituztela diotenak: % 80,8k (besteek baino hamar portzentaje-puntu gehiago) dio ez dituela inoiz izan.


Arreta **maskulinitatearen kutxak duen inpaktuari eskainiz,** adierazi beharra dago maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzeak arrisku garrantzitsuak dakartzala aldagai honi lotuta. Suizidio-ideiak ez dutela inoiz izan hein txikienean adierazten dutenak dira (% 65,9, ertzean daudenak % 70,1aren eta kutxatik at daudenak % 78,3aren aurrean). Oso deigarriak dira pentsamendu-mota hau maiz esperimentatzen dutela adierazten dutenak datuak (kutxaren barruan daudenak % 12,1ek, kutxaren ertzean daudenak % 2,6k eta kutxatik at daudenak % 1,6 marjinal batek). Emaiz erakusten dutenez, **ohiko maskulinitate hegemonikoarekin bat egiteak ondorio larriak ditu suizidio-ideiei dagokienez.**

BABES SOZIOEMOZIONALA

4.2.3

Babes sozioemozionalaz hitz egitean, **ondoez edo arazoren bat pairatzean laguntza bilatzeko eta lortzeko gaitasunaz ari gara.** Gai honen azterketak, laguntza mota aztertu beharrean —aholkuak eta informazioa, begien bistako laguntza edo entzutean eta akonpainamenduan oinarritutako babes emozionala...—, laguntza bilatzeko eta lortzeko egintza bera aztertzen du, bai eta erreferentzia gisa bilatzen diren profilak ere. Helburua da gizonei ingurukoekin dituzten elkarrekintzetan kalteberatasunik ez agertzea agintzen dien estereotipo maskulinoaren inpaktua dimentsionatzea.

15. GRAFIKOA. Arazo pertsonal baten aurrean nori eskatzen zaion laguntza. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




19. galdera. Oro har, arazo pertsonalen bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza lehenik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Grafikoak, arazo pertsonalen bat dagoenean laguntza eskatzerakoan dauden sexuaren eta adin-taldearen arabera alderik garrantzitsuenak agertzen ditu. Alde batetik, **sexu aldagaiari** dagokionez, antzeko eredu bat ikusten da laguntza bikotekideari eskatzerakoan, **erreferentziazko pertsonarik nagusia baita babes sozioemozionalerako**: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen ia erdiak (% 46,3k) adierazi du bikotekidearen laguntza dela arazo pertsonalen aurrean bilatzen den lehena eta emaitzak oso antzekoak dira gizonen zein emakumeen kasuan (gizonen % 47,3 eta emakumeen % 45,3). Erreferentziazko beste pertsonen kasuan alde esanguratsuak ikus daitezke. Emakumeentzat, erreferentziazko bigarren pertsona emakumezko lagunak dira (% 30,8) eta gizonentzat gizonezko lagunak (% 23,3); gizonak, ordea, laguntza gehiago eskatzen diete beren emakumezko lagunei (% 11,4), emakumeek beren gizonezko lagunei baino (% 5,8). Halaber, baina alde handirik gabe, emakumeek joera handiagoa agertzen dute bere amaren, neben edo ahizpen, profesionalen eta seme-alaben laguntza eskatzeko. Bestalde, gizonak emakumeek baino zertxobait gehiago bilatzen dute beren aiten laguntza baina, dena den, aita garrantzi gutxiko irudia dira Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleentzat, babes sozioemozionalerako erreferentziei dagokienez, pertsonen % 4,5ek baino ez baitu adierazten laguntza bilatzeko lehen aukera aita dela.

Zentzu horretan, bereizketa nabaria dago emakumeen eta gizonen artean zaintzei dagokienez, kasu honetan **emakumeak baitira babes sozioemozionalerako irudirik garrantzitsuenak**, ez bakarrik bikotekideengatik —aldea txikia bada ere, gizonak gehiago bilatzen dute bikotekidearen laguntza, emakumeek baino—, baizik eta baita amek edo emakumezko lagunek babes eta zaintzarako irudi gisa duten garrantziari esker ere. Bestalde, eta oro har, esan genezake gizonak ez dutela emakumeek bezainbeste laguntza eskatzen arazoren bat dutenean: gizonen % 13,2k ez du inoren laguntza eskatzen (emakumeen % 7,7k).

Adinari dagokionez, portaerak ere oso bereizita daude. Gazteenen kasuan (30 urtetik beherakoak), bikotekideak garrantzia galtzen du Euskal Autonomia Erkidegoko beste biztanle guztiekin alderatuta (bikotekidea babes sozioemozionalerako lehen aukera da gazteen % 30,8arentzat bakarrik), eta amen (% 28) eta emakumezko lagunen (% 26,8) maila berean kokatzen da. Gazteenek, noski, laguntza gurasoei eskatzeko joera handiagoa agertzen dute, beste pertsonak baino. Azkenik, **gazteenek beste pertsona guztiek baino laguntza gutxiago eskatzeko joera agertzen dute**.

16. GRAFIKOA. Tristura edo depresio unetan nori eskatzen zaion laguntza. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




19. galdera. Oro har, arazo pertsonalen bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza lehenik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeke 312 eta kutxatik at dauden 272.

Biztanle maskulinoak aztertzerakoan, adin-taldean arabera zein maskulinitatearen kuxarekiko posizionamenduaren arabera, aldeak esanguratsuak dira. Alde batetik, **adinari** dagokionez, biztanleria orokorrak agertzen dituen portaera-patroi berberak ikus daitezke: **gizon gazteek beste gizonen baino gutxiago bilatzen dute bikotekidearen laguntza eta, konparazio-terminoetan, gehiago bilatzen dute beren emakumezko lagunaren eta gurasoen laguntza**. Gizonetzko lagunak babes garrantzitsua dira adin guztietan. Halaber, eta aldeak deigarriak ez badira ere, inoren laguntza eskatzen ez dutenen gizonen portzentajea gazteen artean da handien.

Maskulinitateari buruzko ikuspegiak ere alde esanguratsuak markatzen ditu: **portaerak oso ezberdinak dira kuxaren barruko eta kanpoko gizonen artean**. Hiru osagai aipagarri daude: 1) **kuxaren barruan dauden gizonen besteek baino askoz gutxiago bilatzen dute beren bikotekidearen babes sozioemozionala** (kuxaren barruko gizonen % 25,1arentzat bikotekidea da lehen aukera babesa eskatzerakoan; ertzean dauden % 47,3arentzat eta kuxatik at dauden % 50,9arentzat); 2) **kuxatik at dauden gizonen beren lagunaren (emakumezko zein gizonetzko) babesa eskatzen dute gehiago**; eta 3) arazo pertsonalen bat dutenean **kuxaren barruko gizonen inoren laguntza ez eskatzeko duten joera askoz nabariagoa da beste gizonena baino** (% 36,3k ez du inoren laguntza eskatzen; % 11 inguruk beste gizonen kasuan). Laburbilduz, maskulinitatearen kuxarekiko posizionamenduari dagokionez, kuxaren barruan dauden gizonen laguntza gutxiago eskatzen dute arazo pertsonalak dituztenean eta besteek baino askoz gutxiago bilatzen dute beren bikotekidearen eta lagunaren (gizonetzko zein emakumezko) laguntza.

Babes sozioemozionalarekin jarraituz eta adiskidetasuna eta genero-ikuspegia bezalako alderdietan sakonduz, ondoko grafikoak **Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek lagunekin (sexua edozein dela ere) gai pertsonalez eta emozionalez hitz egiten eroso sentitzen diren ala ez** aztertzen du, babes hori gizonetzko lagunena, emakumezko lagunena edo biena den bereiziz.

17. GRAFIKOA. Lagunekin (gizonetzko zein emakumezko) gai pertsonalez eta emozionalez hitz egiten eroso sentitzen diren pertsonak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




18. galdera. Ba al duzu lagunik zure bizitzako gai pertsonal eta emozionalei buruz hitz egitean eroso sentiarazten zaituenik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erditik gorak (% 55,5ek) dio eroso sentitzen dela arazo pertsonal edo emozional ez lagunekin (gizonezko zein emakumezko) hitz egiten. Pertsonen % 17,2k adierazten du emakumezko lagunak dituela bakarrik gai hauetaz hitz egiteko; eta % 11,4k gizonezko lagunak bakarrik. Beste muturrean, % 15,9k dio ez dela eroso sentitzen gai pertsonalez lagunekin (gizonezko zein emakumezko) hitz egiten.

Generoaren arabera, nabarmendu beharreko aldeak daude. Bestalde, ikus daitekeenez, gizonak eta emakumeak era berdinean daude eroso beren gai pertsonalez lagunekin (emakumezko eta gizonezko) hitz egiten. Hala ere, aurkako joera bat ere ikusten da: gizonen artean, portzentaje garrantzitsu bat gizonezko lagunekin bakarrik hitz egiten sentitzen da eroso (% 18,6 gizonen artean eta % 4,1 emakumeen artean) eta emakumeen artean, emakumezko lagunekin bakarrik hitz egiten eroso sentitzen direnen portzentajea askoz handiagoa da (emakumeen % 27,4 eta gizonen % 7). Horrez gain, eta **oro har, gizonak beren arazo pertsonalez (gizonezko zein emakumezko) lagunekin hitz egiten saihesten dira hein handiagoan**, 10etik 2k bere lagunekin hitz egiten eroso sentitzen ez direla adierazten baitute (gizonen % 19,2 eta emakumeen % 12,4).

Adinaren arabera, alderik esanguratsuen da gazteenen artean nagusi direla gizonezko lagunekin bakarrik eroso sentitzen diren (gizonezko zein emakumezko) gazteak (% 19,7 30 urtetik beherakoen artean) eta gizonezko zein emakumezko lagunekin hitz egiten eroso sentitzen direnen portzentajea beste adin-tarteetakoa baino askoz baxuagoa dela. Baina ez dago alderik adin-tarteen artean inorekin hitz egiten eroso sentitzen ez direnei dagokienez.

18. GRAFIKOA. Lagunekin (gizonezko zein emakumezko) gai pertsonalez eta emozional ez hitz egiten eroso sentitzen diren gizonak. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



18. galdera. Ba al duzu lagunik zure bizitzako gai pertsonal eta emozionalak buruz hitz egitean eroso sentiarazten zaituenik? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Azkenik, gizonen datu zehatzak, beren adina eta kutzarekiko beren posizionamendua erakusten dira. **Adin-taldeei dagokienez ikusten da adinak gora egin ahala gizonak erosoago sentitzen direla beren gai pertsonalez eta emozionalez lagunekin (gizonezko zein emakumezko) hitz egiten** (50 urtetik gorako gizonen % 63,8, 30-49 urte bitarteko gizonen % 53,6 eta 30 urtetik beherakoen % 43,7). Bestalde, 30 urtetik beherako gizonen kasuan nabarmentzekoa da, konparazio-terminoetan, gizonezko lagunekin hitz egiten bakarrik eroso sentitzen diren portzentajea (% 30,7) edo emakumezko lagunekin hitz egiten bakarrik eroso sentitzen direnena (% 11).


Kutxako posizioei dagokienez, kutxa barruko gizonak dira (gizonezko zein emakumezko) lagunekin hitz egiten deserosoago sentitzen direnak (% 37,1; ertzean daudenak % 22,6 eta kutxatik at daudenak % 12,6) **eta kutxatik at dauden gizon gehienak eroso sentitzen dira beren lagunekin (gizonezko zein emakumezko) hitz egiten** (% 68,2, ertzean daudenak % 45,5 eta barruan daudenak % 41,5).

ERAKARGARRITASUNA ETA ITXURA FISIkoa

4.2.4

Egoera pertsonalaren funtsezko beste osagai bat da bakoitzak norbere buruaz duen kontzeptua, hau da, **besteek zuri buruz duten irudiari buruzko autohautematea**. Atal honetan, **norberaren erakargarritasunari buruz erantzun dutenak duten hautematea** aztertuko da. Erakargarritasuntzat jotzen da nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa biltzen dituen osagai-multzoa. Honela, erakargarritasunari buruzko autohautematearen modu ezberdinak ikertu nahi ditugu, hautemate hori autoestimuarekin, konfiantzarekin eta irudiaren zaintzarekin eta besteen aurreko itxuraren inguruko kezkekin lotu baitaiteke. Horrez gain, gai honetan sakontzeko, **proiektatzen duten kanpoko irudiak**, itxura fisikoak **zenbateraino kezkatzen dituen** galdetu zaie, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen autohautemate pertsonalaren inguruko informazioa osatzeko.

19. GRAFIKOA. Erakargarritasun-mailari buruzko autohautematea (nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa); ERAKARGARRITASUN ALTUA (7-10, 0-10 eskala batean), ERAKARGARRITASUN ERTAINA (4-6), ERAKARGARRITASUN BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko biztanleria; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




35. galdera. Zure nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa kontuan hartuta, zer kalifikazio emango zenioke zure erakargarritasun-mailari? Erabili 0-10 eskala; 0 "batere erakargarria ez" da, eta 10, berriz, "guztiz erakargarria" // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Datuak erakusten dutenez, **biztanle gehienek erakargarritasun-maila ertaina edo altua aukeratu dute beren burua definitzeko: % 8,9k baino ez du erakargarritasun-maila baxua aukeratu**, balio ertainetan kokatzen den % 48,7aren eta erakargarritasun-maila altua aukeratu duen % 42,4aren artean. Kasu honetan, **generoaren arabera aldea minimoak dira**, bat edo bi portzentaje-puntu baino ez, baina emakumeek zertxobait gorago kokatzen dute beren erakargarritasun-maila, gizonek baino. **Adinari dagokionez, adinak gora egin ahala erakargarritasun-mailak behera egiten du**. Hori ez da harritzekoa, gorputz gazteei lotuta dauden ohiko edertasun-kanonetara egokitzeko orduan esperimentatzen dituzten presio sozialak kontuan izanda. 15 eta 29 urte bitartekoek % 53,1ek uste du erakargarritasun-maila altua duela (% 45,7k 30 eta 49 urte bitartekoek artean eta % 32,4 50 eta 65 bitartekoek taldean).

Gizonen emaitzak aztertuta ikus daiteke adin-taldeen dinamika lagin orokorraren horren oso antzekoa dela eta gizon gazteenak direla erakargarritasun-maila handiagoak aitortzen dituztenak (15-29 urte bitartekoek % 52, 30-49 urte bitartekoek % 47,4 eta 50-65 urte bitartekoek % 29,2). Interesgarria da nabarmentzea **bitarteko adinetan dauden gizonen artean erakargarritasun-maila altua aitortu dutenak batezbesteko orokorretik gora daudela eta kontrakoa gertatzen dela 50 urtetik gorako gizonen kasuan**. Hipotesi gisa esan genezake edertasunari loturiko presio sozialak betetzea, gizonen kasuan, errazagoa dela 50 urte bete arte eta ordutik aurrera gizartearen eskakizuna zorrotzagoa eta lortzen zailagoa bilakatzen dela.

20. GRAFIKOA. Erakargarritasun-mailari buruzko autohautematea (nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa); ERAKARGARRITASUN ALTUA (7-10, 0-10 eskala batean), ERAKARGARRITASUN ERTAINA (4-6), ERAKARGARRITASUN BAXUA (0-3). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen inguruko ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




35. galdera. Zure nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa kontuan hartuta, zer kalifikazio emango zenioke zure erakargarritasun-mailari? Erabili 0-10 eskala; 0 "batere erakargarria ez" da, eta 10, berriz, "guztiz erakargarria" // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Kutxako hiru posizioei dagokienez, **oso deigarria da maskulinitatearen kutxaren barruan daudenek beren burua besteek baino askoz erakargarriago ikusten dutela**. Kutxa barruko gizonen % 73,3k uste du erakargarritasun-maila altua duela (% 42k ertzean dauden artean eta % 36,9k kutxatik at dauden artean). Izan ere, ia ez dago inor, kutxa barruko gizonen artean, bere burua definitzeko erakargarritasun-maila baxua aukeratu duenik. Datu horiek

interpretatzerakoan garrantzitsua da adinak erakargarritasun fisikoan duen inpaktua aintzat hartzea. Literaturak azaltzen duenez, gorputz gazteek beren burua erakargarriagoztat jotzen dute adin gehiagoko gorputzek baino eta arestian ikusi dugun bezalaxe, gizon gazteenek kutxa barruan kokatzeko joera argia agertzen dute.s

Bakoitzak norbere buruaz duen hautemateaz aparte, interesgarria da aztertzea kanporantz proiektatzen den itxura fisikoak zenbateraino kezkatzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleak. Datu orokorren arabera, **% 12k baino ez dio kanpoko bere irudia ez duela kezkatzen**, % 26,3k oso gutxi kezkatzen duela, % 43,3k zertxobait kezkatzen duela **eta % 18,4k asko edo dezente kezkatzen duela**.

21. GRAFIKOA. Kanpoko irudiaren (itxura fisikoa) inguruko kezka-maila. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




36. galdera. Zer neurritaraino kezkatzen zaitu zure kanpoko irudiak, hau da, besteek itxura fisikoagatik zutaz pentsatzen dutenak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Kasu honetan, **generoaren araberako aldeak oso esanguratsuak dira, bere kanpoko irudiak asko edo dezente kezkatzen duela dioten emakumeen portzentajea hamar portzentaje-puntu pasatxo altuagoa baita, gizonena baino (emakumeen % 23,7 eta gizonen % 13,1)**. Ildo berean, beren kanpoko itxuraz kezkatzen ez direla dioten emakumeen portzentajea gizonen portzentaje horren erdia da (emakumeen % 8 eta gizonen % 16). Datu horiek, beren itxura fisikoa ohiko edertasun-kanonetara egokitze orduan emakumeek esperimentatzen duten genero-isuria berresten dute.

Adin-taldearen arabera, gazteenak dira beren kanpoko irudiaz gehien kezkatuta daudenak: 15-29 urte bitartekoen % 29,7 asko edo dezente kezkatuta dago, portzentaje hori % 16,4koa denean 30-49 urte bitartekoen taldean eta % 14,2koa 50-65 urte bitartekoen taldean.

22. GRAFIKOA. Kanpoko irudiaren (itxura fisikoa) inguruko kezka-maila. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



36. galdera. Zer neurritaraino kezkatzen zaitu zure kanpoko irudiak, hau da, besteek itxura fisikoagatik zutaz pentsatzen dutenak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Beste aldagai guztien kasuan aplikatu den analisi mota berbera aplikatuz, **arreta gizonei eskainiko diegu**, adin-taldeen arabera eta kutxako posizioak aintzat hartuz. Gizonen adin-tarteetan ikus daitekeen joera lagin orokorrean ikusten denaren berdina da: **gizon gazteenak dira beren kanpoko itxuraz gehien arduratzen direnak**. 15-29 urte bitartekoen % 19,8 asko edo dezente kezkatzen da, 30-49 urte bitartekoen % 13,2 eta 50-65 urte bitartekoen % 8,9. Hiru kasuetan, **portzentajeak lagin orokorraren azpitik daude eta horrek, beste behin, adin-tarte guztietako emakumeek esperimentatzen duten genero-isuria berresten du**.


Maskulinitatea gorpuzteko moduari dagokionez, beren itxura pertsonalaz asko edo dezente kezkatzen direla dioten gizonen arteko aldeak ez dira esanguratsuegiak. Portzentajea zertxobait altuagoa da maskulinitatearen kutxaren ertzean kokatzen direnen taldean (% 15,2). Horien atzetik datoz kutxaren barruan kokatzen direnak (% 13,2) eta, azkenik, kutxatik at daudenak (% 10,7). **Deigarria da ere kutxatik at daudenak direla hein txikiagoan diotenak ez direla inola ere kezkatzen beste pertsonak beren itxura fisikoaz pentsatzen dutenak (% 19,8)**, beste bi posizioen portzentajeak baino 5-7 portzentaje-puntu gehiago.

PRESIO SOZIALA

4.2.5

Maskulinitatea eta feminitatea gorpuzteko modua aztertzeke orduan interesgarrienetakoa izan daitekeen adierazleetako bat, ondoreak sor ditzakeena gainera, presio soziala da. Puntu honetan, lanaren eta gizartearen testuinguruaren, gizarte- eta bikotekide-harremanen, sexualitatearen, genero-rolen eta -estereotipoen edo praktika arriskutsuen ondoriozko presio sozialari loturiko alderdi ezberdinak aztertuko ditugu.

23. GRAFIKOA. Sentitutako presio soziala; PRESIO ALTUA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




G20_G33. Zenbaitetan, familiak, adiskideek, irakasleek edo gizarteak berak presioa egiten digute modu jakin batekoak izan gaitezten. Baloratuko al zenuke zer neurritan sentitzen duzun presio hori ondorengo alderdietan? Erabili 0-10 eskala; 0 "ez duzu inolako presiorik sentitzen" da, eta 10, berriz, "presio handia sentitzen duzu". // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Presio sozialik handiena sortzen duen aldagaia da arrakasta izatea lanean edo ikasketetan: % 39,3k dio presio sozial handia sentitzen duela zentzu horretan. Jarraian, ingurunearekin ezartzen dugun harreman emozionalari lotuta dauden hiru aldagai datoz, presio soziala sortzen dutenak 10 pertsonatik 3rako: adoretu agertzea gertukoaren aurrean (% 31,5), emozionalki zaintzea eta babestea (% 30) eta tristura edo antsietatea ezkutatzea (% 29,9). Fisikoki erakargarria izatea ere presio sozialeko maila altuak dakartza 10 pertsonatik 3rako, etxeko zereginak egiteak %24,5erako eta sexuan ona izatea % 20,7rako. Beste kategoria guztiek presio-maila altuak sortzen dituzte laginaren % 15era iristen ez diren portzentajeetarako.

Generoari dagokionez dauden joerek argi eta garbi erakusten dute **pisu handieneko alderdietan emakumeek presio sozial handiagoa sentitzen dutela**. 10 pertsonatik 3rako gutxienez presio sozialeko maila altua sortzen duten alderdiak azpimarra ditzakegu: «arrakasta izatea lanean edo ikasketetan» (gizonen % 37,1 eta emakumeen % 41,7%), «adorea erakustea, urduri edo ikaratuta egon arren» (gizonen % 26 eta emakumeen % 37,1), «besteak emozionalki zaintzea eta babestea» (gizonen % 25,2 eta emakumeen % 34,8), «tristura edo antsietatea ezkutatzea» (gizonen % 23,9 eta emakumeen % 36,1) eta «fisikoki erakargarria izatea» (gizonen % 23,4 eta emakumeen % 36,4). Intentsitate zertxobait gutxiagorekin baina oso esanguratsua ere, «etxeko zereginak egitea» aldagaia agertzen zaigu (gizonen % 20,3 eta emakumeen % 28,7). Deigarria da emakumeek gizonak baino dezente gehiago sentitzen dutela besteen aurrean kaltebera ez agertzeko presio soziala, ohiko maskulinitate hegemonikoari loturiko estereotipo bat den arren. Bestalde, gizonak zertxobait nabarmentzen dira orokorrean presio sozial txikiagoa sortzen duten kategorietan. **Gizonei emakumeei baino presio sozial handiagoa sortzen dieten hiru aldagai daude, guztiak ere sexu- eta afektibitate-harremanei lotuta:** sexuan ona izatea (gizonen % 23,6 eta emakumeen % 17,8), bikotekide egonkorra izatea (gizonen % 24,5 eta emakumeen % 18,7) eta ligatzeko garaian aurea hartzea (gizonen % 20,4 eta emakumeen % 9,8). Beste aldagai guztietan, gizonen eta emakumeen arteko aldeak ez dituzte bi portzentaje-puntuak gainditzen.

Adin-taldeen arteko ezberdintasunak ere oso esanguratsuak dira, sentitutako presio sozial handia dimentsionatzeko erabili diren ia aldagai guztietan 15-29 urte bitarteko gazteek portzentaje altuagoak erregistratzen baitituzte; atzetik 30-49 urte bitartekoaren taldea dator eta, azkenik, 50-65 urte bitartekoaren taldea. Gazteenen (15-29 urte) talderako presio gehien sortzen duten alderdiak, alde handiarekin, ondokoak dira: «arrakasta izatea lanean edo ikasketetan» (% 60,5) eta «fisikoki erakargarria izatea» (% 50,6). 30-49 urte bitartekoaren talderako ere ondokoak izango litzateke: arrakasta izatea lanean edo ikasketetan (% 45,3) eta, atzetik, «adorea erakustea, urduri edo ikaratuta egon arren» (% 37,5). 50-65 urte bitartekoaren talderako, presio sozialik handiena da besteak emozionalki zaintzea eta babestea (% 24,8) eta, atzetik, adorea erakustea (% 21,6).

24. GRAFIKOA. Sentitutako presio soziala; PRESIO ALTUA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G20_G33. Zenbaitetan, familiak, adiskideek, irakasleek edo gizarteak berak presioa egiten digute modu jakin batekoak izan gaitezten. Baloratuko al zenuke zer neurritan sentitzen duzun presio hori ondorengo alderdietan? Erabili 0-10 eskala; 0 "ez duzu inolako presiorik sentitzen" da, eta 10, berriz, "presio handia sentitzen duzu". // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272.

Gizonek erregistratu dituzten datuak adin-taldean arabera aztertuz gero ikusten den joera lagin orokorrak agertzen duenaren oso antzekoa da. Ia alderdi guztietan, **gizon gazteenen taldeak (15-29) presio sozial handiagoak sentitzen ditu.** Bi salbuespen bakarrak dira ondoko aldagaiak, non bitarteko adinen taldeak gazteenen taldeari gailentzen baitzaion: “adorea erakustea, urduri edo ikaratuta egon arren” (gazteen % 22,1ek presio-maila handiak sentitzen ditu, 30-49 urte bitartekoen % 33,5ek eta 50-65 urte bitartekoen % 14,9k); eta “arrakasta izatea sare sozialetan” (gazteen % 11,7k presio altua sentitzen du, 30-49 urte bitartekoen % 14,7k eta 50 urtetik gorakoek % 4,7k).

Datuak maskulinitatearen kutxako posizioak aintzat hartuz aztertuz gero, aldeak oso esanguratsuak direla ikusiko dugu. Oro har, **maskulinitatearen kutxan egoteak besteak baino presio sozial handiagoak sentitzea dakar.**

Kutxa barruko gizonentzat presio sozialik handiena suposatzen duten kategoriak dira sexualitateari eta erakargarritasunari loturiko horiek: “ligatzeko orduan aurea hartzea” (% 42), “sexuan ona izatea” (% 39,3) eta “fisikoki erakargarria izatea” (% 36,3). Kutxaren ertzean kokatzen diren 4 pertsonatik 1ek inguruk ere presio sozial handia sentitzen du aldagai horien kasuetan; eta kutxatik at dauden kasuan portzentajeak % 15aren eta % 20aren artean daude. **Kaltebera ez agertzeko genero-mandatuari loturiko aldagaiak ere alde garrantzitsuak markatzen dituzte** kutxako hiru posizioen artean. Kutxa barruan dauden % 35,3k, kutxaren ertzean dauden % 27,6k eta kutxatik at dauden % 22,6k presio sozial handia sentitzen dute “adorea erakustea, urduri edo ikaratuta egon arren” ideia-aren aurrean; “tristura edo antsietatea ezkutzea” ideia-aren kasuan portzentajeak ondokoak dira, hurrenez hurren: % 35,1, % 26,0 eta % 19,7. Kutxa barruan daudenak ere ondoko kategorietan nabarmentzen dira: “arrakasta izatea sare sozialetan”, “aisia-testuinguruetan alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzea”, “indarkeria erabiltzea nire ospea edo ideiak defendatzeko” edo “harremanak pertsona heterosexualekin baino ez izatea”. Kutxa barruan dauden % 20,1ek, % 25,8k, % 18,3k eta % 17,8k, hurrenez hurren, presio-maila handiak sentitzen dituzte alderdi horien inguruan baina kutxako beste posizioetan portzentaje hori % 10etik behera dago gutxi gorabehera.

Nabarmendu beharra dago ere **bi alderdiren kasuan kutxa barruan daudenak ez direla presio sozial handiena sentitzen dutenak:** “arrakasta izatea lanean edo ikasketetan”, kutxaren ertzean dauden % 40,1ek eta beste bi posizioetan % 34aren inguruan; eta “besteak emozionalki zaintzea eta babestea”, kutxaren ertzean dauden % 26,2k, kutxatik at dauden % 25,1ek eta kutxa barruan dauden % 18k. Ikus daitekeen bezalaxe, arrakasta profesionalaren ideia zeharkakoa da kutxako hiru posizioetarako eta zaintza afektiboak garrantzia galtzen du kutxa barruan daudenentzat.

Azkenik, deigarria da “etxeko zereginak egitea” aldagaiak presio sozial handiagoa suposatzen duela ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuen daudenentzat: % 31,8 kutxa barrukoek kasuan, % 23,3 ertzean daudenak eta % 15 kutxatik at dauden kasuan. Ondoko hipotesia planteatu daiteke: etxeko zereginak egitea normalago bilakatzen dela gizonek ohiko genero-mandatuetatik aldentzen diren heinean eta, ondorioz, ez da presio sozialik sentitzen etxeko zereginak edo zaintzak egitean.

1. TAULA. Sentitutako presio soziala. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera; 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (batezbestekoa; 0-10 eskala)


	GLOBALA						GIZONAK					
	GLOBALA	GIZONAK	EMAKUMEAK	15-29 URTE	30-49 URTE	50-65 URTE	15-29 URTE	30-49 URTE	50-65 URTE	BARRUAN	ERTZEAN	AT
Lanean edo ikasketetan arrakasta izatea	5,17	4,96	5,38	6,74	5,64	3,70	5,85	5,57	3,68	4,97	5,17	4,73
Adorea erakustea, urduri edo ikaratuta egon arren	4,64	4,37	4,91	5,33	5,09	3,71	4,76	4,97	3,42	4,93	4,73	3,89
Tristura edo antsietatea ezkatzea	4,45	4,27	4,64	5,34	4,59	3,77	4,97	4,42	3,65	3,97	4,48	4,07
Fisikoki erakargarria izatea	4,56	4,21	4,91	5,25	4,83	3,86	4,58	4,60	3,51	4,85	4,51	3,76
Beste pertsona batzuk zaintzea eta emozionalki laguntzea	4,51	4,10	4,91	6,09	4,65	3,42	5,32	4,35	3,03	5,29	4,34	3,64
Etxeko zereginak egitea	3,94	3,62	4,25	4,69	4,16	3,24	4,18	3,88	2,97	3,96	4,01	3,12
Sexuan ona izatea	3,25	3,61	2,89	4,24	3,70	2,14	4,10	4,21	2,57	4,26	4,08	2,97
Nire lagun taldeak bezala jardutea edo pentsatzea	3,60	3,96	3,23	4,58	3,82	2,76	4,43	4,16	3,41	4,90	4,30	3,41
Bikotekide egonkorra izatea	3,47	3,55	3,40	4,34	3,56	2,87	4,05	3,73	3,01	4,17	4,01	2,93
Ligatzeko garaian aurea hartzea	2,99	3,59	2,39	4,16	3,35	1,89	4,59	4,01	2,44	5,17	3,95	2,92
Arrakasta izatea sare sozialetan	2,40	2,46	2,35	3,37	2,67	1,53	2,85	2,89	1,70	3,51	2,85	1,84
Aisia-testuinguruetan alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzea	2,16	2,46	1,86	2,97	2,33	1,48	2,94	2,68	1,89	3,65	2,74	1,96
Indarkeria erabiltzea nire ospea edo ideiak defendatzeko	2,02	2,27	1,78	2,76	2,11	1,50	2,94	2,30	1,82	3,86	2,66	1,56
Harremanak pertsona heterosexualekin baino ez izatea	1,98	2,25	1,72	2,25	2,26	1,35	2,79	2,51	1,64	3,97	2,92	1,22

G20_G33. Zenbaitetan, familiak, adiskideek, irakasleek edo gizarteak berak presioa egiten digute modu jakin batekoak izan gaitezten. Baloratuko al zenuke zer neurritan sentitzen duzun presio hori ondorengo alderdietan? Erabili 0-10 eskala; 0 "ez duzu inolako presiorik sentitzen" da, eta 10, berriz, "presio handia sentitzen duzu." // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 1.252 pertsona.

Taulak sentituriko presio sozialaz galdetzerakoan erregistratu diren batezbestekoak (0-10 eskalan) erakusten ditu. Puntu honetan zehar egindako analisisien laburpen gisa erabil dezakegu, xehetasunetan sakonduz eta alderaketak erraztuz. Aldagai soziodemografiko bakoitzean **presio sozialik handiena sentitzen duten pertsonen profilak nabarmendu dira**. Oro har, emakumeak, pertsonarik gazteenak, ia alderdi guztietan, eta ohiko maskulinitate hegemonikotik gertuen daudenak.

Ohiko maskulinitate hegemonikoari loturiko osagaietako bat da jokabide arriskutsuen gauzatzea, gizonen aldetik, beren gizontasuna kideen aurrean erakusteko ariketa gisa. Oinarri horretatik abiatuta, gidatzeari, sexualitateari, estupefazianteen kontsumoari edo indarkeriari loturiko aldagaiak aztertu ditugu.

25. GRAFIKOA. Jokabide arriskutsuak gauzatzea (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



37. galdera. Ondoren, aisia-tarteetan egin daitezkeen ekintza batzuk ikusiko dituzu. Irakurriko al zenituzke esaldi guztiak eta bene-benetan adierazi zein egin dituzun azken 6 hilabeteetan? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454..


Hasteko, nabarmendu beharra dago **erantzun dutenen 10 pertsonatik 6k diotela ez dutela aipaturiko jokabide horietako bakar bat ere gauzatu azken 6 hilabeteetan (% 59,9)**. Bestalde, baimenduriko abiadura gaituz gidatzea da gehien gauzatu den jokabidea (% 18,2) eta horren atzetik datoz sexu-praktika arriskutsuak (% 13,6) eta alkohola edan ondoren gidatzea edo autoan joatea edanda doan gidari batekin (% 11,7 eta % 11,5, hurrenez hurren). Portzentaje marjinalak agertuz, % 3,4k baino ez du borroketan parte hartu eta % 3k alkohola ez diren drogen eraginpean gidatu du.

Generoaren arabera aldee dagokionez, argi geratu da **gizonek dutela jokabide arriskutsu gehiago gauzatzeko joera**. Gizonen % 49,8k adierazten du ez duela jokabide horietako bakar bat ere gauzatu, emakumeen % 69,4aren aurrean (20 portzentaje-puntu

aldea). Alde horiek bereziki esanguratsuak dira baimendutako abiadura gaindituz edo alkoholaren eraginpearen gidatzeari loturiko jokabide arriskutsuen kasuan (gizonak emakumeak baino hamar portzentaje-puntu pasatxo gorago daude).

Adin-taldean arabera aldee dagokienez, **adinak gora egin ahala jokabide arriskutsuek behera egiten duten arren**, joera horren aurkakoa agertzen duten bi aldagai daude. Baimendutako abiadura gaindituz edo alkoholaren eraginpean gidatzeari dagokienez, 50-65 urte bitarteko taldea dago beste bien gainetik (% 21,7 eta % 14, hurrenez hurren). Bestalde, gazteen (15-29 urte) taldean nabarmenena sexu-praktika arriskutsuak dira (% 28,7k azken 6 hilabeteetan izan ditu; % 12,8k bitarteko adin-tartean eta % 5,7k adin-tarte zaharrenean).

26. GRAFIKOA. Jokabide arriskutsuak gauzatzea (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



37. galdera. Ondoren, aisia-tarteetan egin daitezkeen ekintza batzuk ikusiko dituzu. Irakurriko al zenituzke esaldi guztiak eta bene-benetan adierazi zein egin dituzun azken 6 hilabeteetan? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Gizonen kasuan, **adin-taldean arabera ezberdintasunen joera lagin orokorrean ikusitako horren oso antzekoa da**. Pertsona zaharrenak bi kasutan nabarmenak dira soil-soilik: baimendutako abiadura gaindituz gidatzeari eta alkoholaren eraginpean gidatzeari dagokienez. Deigarria da borroketa parte hartzea gazteenen taldera mugaturiko fenomeno bat dela: 15-29 urte bitartekoen % 13k borroketa parte hartu du, bitarteko (30-49 urte) adin-taldearen % 4aren eta 50-65 urte bitartekoen % 1,9aren aurrean.

Maskulinitatearen kutxari dagokionez, kutxaren ertzean daudenak dira jokabide arriskutsu gehiago gauzatzen dituztenak (% 46,2k adierazten du ez duela bakar bat ere gauzatu, kutxaren barruan dauden % 50,6aren eta kutxatik at dauden % 53,7aren aurrean). Deigarria da ere sexu-jokabide arriskutsuak izateko eta alkoholaren eraginpean gidatzeko orduan, kutxa barruko gizonak direla portzentaje baxuenak agertzen dituztenak: % 7,8 eta % 10,5, hurrenez hurren. Adin-tarte zaharrenetan, aitzitik, portzentaje hori % 15koa da.

PAIRATURIKO ETA GAUZATURIKO JAZARPEN- ETA INDARKERIA-EGOERAK

4.2.7

Atal honetan, maskulinitatearen eraikuntzan funtsezkoa bilakatzen den beste alderdi bat jorratuko dugu: **indarkeriarekiko esposizioa**. Indarkeriaren monopolioa gizonen aldetik esparru patriarkalean behin eta berriz errepikatu den estrategia bat izan da, ohiko ereduetan ezarritako genero-rolak indartu eta betikotzeko erreminta gisa. Horrexegatik, maskulinitatearen kutxa definitzeko ardatzetako bat indarkeria da, **gauzatutakoa zein pairatutakoa**, generoa bi kasuetan baita erabakigarria. Analisisian aurrez aurreko hitzezko indarkeria, online arloko indarkeria eta jazarpena eta indarkeria fisikoa bereizten ditugu eta azken 6 hilabeteetan indarkeriaren lekuko izan diren galdetu diegu Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleei.


Pairaturiko indarkeria

Pairaturiko jazarpen- eta indarkeria-egoeretatik hasiz, **aurrez aurreko hitzezko indarkeria (% 54,9k zenbaitetan eta % 5,2k maiz) online gauzatzen diren horiek (% 23,1k zenbaitetan, % 2,5k maiz) edo indarkeria fisikoa (% 25,8k zenbaitetan eta % 1,8k maiz) baino dezente ohikoagoa da.** Ikus daitekeenez, nahiko arrunta bada ere indarkeria motaren bat pairatu izana, aipatuaren biktima maiz direnen portzentajeak oso txikiak dira.

Argi eta garbi ikusten den joera bat da **gizonek indarkeria-forma gehiago pairatzen dituztela**. Hemen, **argitu beharra dago eraso mota guztiez ari garela eta ez bakarrik genero-indarkeriaz**. Inoiz indarkeriarik pairatu ez duela dioten portzentajetik abiatuta, agerian geratu da gizonen % 39,5ek eta emakumeen % 42,3k ez duela hitzezko indarkeriarik pairatu, gizonen % 70,3k eta emakumeen % 78,6k ez duela online indarkeriarik pairatu eta gizonen % 68,2k eta emakumeen % 76,6k ez duela indarkeria fisikorik pairatu.

Adin-taldeei erreparatuz, agerian geratu da ere **15-29 urte bitartekoen taldea dela indarkeria gehien pairatu duena, aztertutako hiru ardatzetan**. Inoiz indarkeriarik pairatu ez duela dioten portzentajea beste behin aintzat hartuz, aurrez aurreko hitzezko indarkeriaren kasuan % 20,8 da talderik gazteenerako, % 40,2 30-49 urte bitartekoentzako eta % 53,3 50-65 urte bitartekoen talderako; online indarkeriari dagokionez, gazteen (15-29) % 62,6k, 30-49 urte bitartekoan % 69,4k eta zaharrenean (50-65 urte) % 87,1ek ez du inoiz pairatu. Azkenik, indarkeria fisikoari dagokionez, 30 urtetik beherakoen % 62,5ek, 30-49 urte bitartekoen % 71,2k eta 50 urtetik gorakoen % 79,3k ez du inoiz pairatu.

27. GRAFIKOA. PAIRATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




G38_G40. Azken 6 hilabeteetan, zer maiztasunarekin gertatu zaizkizu ondorengo egoerak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Pairaturiko indarkeriaren datu globalak generoaren eta adinaren arabera azaldu ondoren, **gizonen datu zehatzei eskainiko diegu arreta** orain. Ikusi berri dugun bezala gizonek, oro har, indarkeria gehiago pairatzen dute, hau da, indarkeria gehiago pairatzen dute planteatu ditugun forma guztietan.

Adinaren araberako aldeek, gizonen artean, datu globaletan ikusten den patroi berbera erakusten dute, **gizonek indarkeria-egoera gehien pairatzen dituztenak direla agerian utziz**, hitzezko indarkeria bereziki, 10 gizon gaztetik (15-29) ia 8k baitiote iseka edo irainen xede izan direla azken 6 hilabeteetan. Deigarria da 10 gizon gaztetik 4k aitortzen dutela indarkeria fisikoaren biktima izan direla azken 6 hilabeteetan. Proportzio hori 10etik 3koa da 30-49 urte bitartekoen artean eta zertxobait txikiagoa 50 urtetik gorakoen artean.

Maskulinitatearen kutxari dagokionez, ondorioa garbia dirudi: kutxan sartuen dauden gizonak, hau da, **ohiko maskulinitate hegemonikotik gertu dauden gizonak indarkeria-egoerak pairatzeko aukera handiagoak dituzte**, gehienbat indarkeria maiz pairatzen dituztenak aintzat hartzen baditugu. Maskulinitatearen kutxaren barruan dauden gizonen % 10ek maiz pairatzen ditu irain eta isekak, % 8,7k online jazarpena pairatu du maiz eta % 5,7k indarkeria fisikoa. Balio horiek kutxaren ertzean eta kutxatik at daudenen balioak bikoizten dituzte. Indarkeria motaren bat noizbait (baita maiz ere) pairatu dutela dioten gizonak kontuan hartuz gero ikus daiteke **kutxa barruko 10 gizonetik 4tik gorak hitzezko indarkeria, digitala edo fisikoa pairatu dutela azken 6 hilabeteetan**. Balio horiek 3tik 1 ingururaino murrizten dira kutxaren ertzean dauden gizonen kasuan eta 4tik 1eraino kutxatik at daudenen kasuan.

28. GRAFIKOA. PAIRATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G38_G40. Azken 6 hilabeteetan, zer maiztasunarekin gertatu zaizkizu ondorengo egoerak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Gauzaturiko indarkeria


Indarkeriarekiko esposizioa aktiboki ere bizi daiteke; hau da, gauza daiteke ere. Puntu honetan, **indarkeria-forma aktiboak —gauzaturiko indarkeria—** aztertuko ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen artean.

Honela, oro har, ikus daiteke hitzezko indarkeriaren kasuan euskal biztanleetako heren batek inguruk (% 31,5) isekak edo irainak esan dituela azken 6 hilabeteetan. Online-jazarpenaren edo indarkeria fisikoaren kasuetan, portzentajea % 15 ingurukoa da soilik, noizbaitekoa zein maiztasun handikoa izan. Oro har, **maiz gauzaturiko indarkeria oso urria da**: biztanleen % 2tik beherakoa aurreikusitako indarkeria-kasu guztietan. Portzentajeek, baina, aski egiten dute gora indarkeria zenbaitetan gauzatu duten pertsonak aintzat hartzen baditugu: % 53,9k irainak esan ditu noizbait, % 23,1ek online-jazarpenera gauzatu du noizbait eta % 25,8k indarkeria fisikoren bat gauzatu du noizbait.

Alde garbiak eta **esanguratsuak antzematen dira generoaren eta adinaren arabera**. Alde batetik, **generoari dagokionez, emakumeak dira indarkeria gauzatzetik argi eta garbi aldentzen direnak**: 10 emakumetik 7k ez du hitzezko indarkeriarik gauzatu azken 6 hilabeteetan (10 gizonetik 6k) eta 10 emakumetik 9k ez dute online-jazarpenik edo indarkeria fisiko zuzenik gauzatu (10 gizonetik 8k). Kasu guztietan, ez dago indarkeria-motaren bat maiz gauzatu duen emakumerik (% 1etik behera) eta portzentaje hori oso baxua da gizonen kasuan ere (% 2tik gora pasatxo).

Adinaren arabera, joera garbia da: **gazteenak daude indarkeriatik gertuen**. Alde batetik, hitzezko indarkeriari dagokionez, gazteen erdiak baino gehiagok (% 56,6k) hein handiagoan edo txikiagoan iraindu du azken 6 hilabeteetan eta portzentaje hori % 33,4 da 30-49 urte bitartekoen artean eta % 24,7 50-65 urte bitartekoen artean. Bestetik, online-jazarpenera eta indarkeria fisikoa, oro har, oso gutxi hedatuta daude baina datuek erakusten dutenez gazteenak dira indarkeria mota horiek gauzatzeko joerarik handiena agertzen dutenak. Gazteen % 20tik gorak online jazarri du edo indarkeria fisikoa gauzatu du azken 6 hilabeteetan. Portzentaje hori % 15etik beherakoa da 30-49 urte bitartekoen artean eta % 10etik beherakoa 50 urtetik gorakoen artean.

29. GRAFIKOA. GAUZATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




G41_G43. Azken 6 hilabeteetan, zer maiztasunarekin egin dituzu ondorengo ekintzak. Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Arreta gizonetan jartzen dugunean adinak garrantzi handiagoa hartzen du eta **adin-taldearen arteko aldeak areagotu** egiten dira. Hitzeko indarkeriari dagokionez, esaterako, gizon gazteen (15-29) % 64,5ek azken 6 hilabeteetan irainak edo isekak esan dituela aitortzen du eta portzentaje hori % 41,2 da 30-49 urte bitarteko gizonen artean eta % 24,5 50-65 urte bitarteko gizonen kasuan. Indarkeria digitalari dagokionez gizon gazteek, beste behin, besteek baino portzentaje askoz altuagoak agertzen dituzte: gizon gazteen % 31,4k online jazarpena gauzatu zuen, hein handiagoan edo txikiagoan, azken 6 hilabeteetan (% 21ek eta % 11,8k 30-49 urte bitartekoen eta 50-65 urte bitartekoen kasuetan, hurrenez hurren) eta % 38,6k indarkeria fisikoa gauzatu zuen (% 16,1ek eta % 9,6k 30-49 urte bitartekoen eta 50-65 urte bitartekoen kasuetan, hurrenez hurren).

Kutxako posizioek ere alde esanguratsuak markatzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen artean. Ondorioa pairatutako indarkeriaren kasuan ateratakoaren berdina da: **kutxa barruko gizonen besteek baino indarkeria gehiago gauzatzen dute**. Lehenik, kutxa barruko gizonen % 55,1ek hitzeko indarkeriako motaren bat gauzatu du azken 6 hilabeteetan, ertzean daudenek baino zertxobait gehiago (% 48) baina kutxatik at daudenek baino askoz

gehiago (% 29,1). Bigarrenez, aldeak handiagoak dira oraindik indarkeria digitalaren eta indarkeria fisikoaren kasuetan: kutxa barruko gizonen % 40k aitortzen du online-jazarpena edo -mehatxuak gauzatu dituela, kutxaren ertzean dauden gizonen % 26,5aren eta kutxatik at dauden gizonen % 9,2aren aurrean; bestalde, kutxa barruko gizonen % 43,6k indarkeria fisikoa gauzatu duela aitortzen du, kutxaren ertzean dauden gizonen % 25,1aren eta kutxatik at dauden gizonen % 7,2aren aurrean.

30. GRAFIKOA. GAUZATURIKO jazarpen- eta indarkeria-egoerak (azken 6 hilabeteetan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G41_G43. Azken 6 hilabeteetan, zer maiztasunarekin egin dituzu ondorengo ekintzak? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

BALIOAK ETA SINESMENAK

4.3

Hurrengo atalean zehar, maskulinitatea gorpuzteko erak **genero-estereotipoei eta -rolei loturikobalioetasinesmenezberdinetan,sentimendufeministanetaberdintasuna,bikote-harremanak eta genero-indarkeria interpretatzeko eran duen inpaktua aztertuko dugu.**


Txosten guztian erabilitako egitura berbera aplikatuz, gizonen eta emakumeen arteko aldeak eta adin-talde ezberdinen arteko aldeak aintzat izango ditugu eta arreta berezia eskainiko diegu maskulinitatearen kuxari eta bere hiru posizioek balioetan eta sinesmenetan duten eraginari

GENERO-ROLEN INGURUKO POSIZIOAK

4.3.1

Hasteko, hedatuen dauden **genero-rol nagusienetako zenbaiten inguruko jarrerak identifikatu nahi dira**, genero-sozializazio bereizgarriko prozesuen bitartez. Gizonak besteen aurrean ezin direla kaltebera agertu dioen ideia edo gizonen lanak emakumeen lanak baino gogorragoak ohi direla eta, ondorioz, hobeto ordainduta egon behar dutela dioena; emakumeak maneatzailagoak eta emozionalagoak direla eta gizonak bezain arrazionalak ez direla dioen mitoa eta, azkenik, emakumeak zaintza-zereginetarako sortzetik prestatuago daudela defendatu eta atazen banatzea naturalizatzen duen ideia.

31. GRAFIKOA. Gizonak eta emakumeak gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




G66_G70. Emakumeak eta gizonak gizartean dituzten ezaugarri eta rolei dagokienez, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados ondorengo esaldiekin? Erabili 0-10 eskala; 0 "batere ados ez" da, eta 10, berriz, "guztiz ados". Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Adostasun-mailarik handiena ondoko esaldiari lotuta dago: "gizonek beren kalteberatasuna eta afektibitatea agertzen ikasi behar dute." Honela, **indartsu edo ez hain emozional agertzen ez diren gizonak gaitzesten dituen genero maskulinoko mandatuarekin apurtzen da**. Ikus daitekeenez, baieztapen horrek gizonen artean (% 48,6) zein emakumeen artean (% 63,2) ere adostasun-maila handia lortzen du eta hiru adin-taldeen arteko aldeak oso txikiak dira. Horrek esan nahi du babesa nahiko zeharkakoa dela laginean.

Beste baieztapen guztiek genero-mandatuak (maskulino zein femenino) indartzen dituzte, adostasun-maila ezberdinak lortuz: % 44,2k uste du “gizonek emakumeek baino lan gogorragoak izan ohi dituztela”, % 33,3k emakumeak “gizonak baino maneatzaileragoak direla”, % 32,1ek “gizonak baino emozionalagoak eta ez hain arrazionalak direla” eta % 28,1ek “Emakumeak gizonak baino hobeto prestatuta daudela jaiotzez seme-alabak zaintzeko”. Baieztapen horien guztien aurrean, **gizonek emakumeek baino adostasun-maila altuagoa agertzen dute** (4 eta 20 portzentaje-puntu bitartean). Nabarmendu beharra dago adostasun-mailarik handiena lortzen duena dela gizonen lanen zailtasunari lotua dagoena: gizonen % 52,6 eta emakumeen % 35,7 ados dago. **Adin-taldean arteko aldeak ez dira oso esanguratsuak** baina aldagai guztietan, emakumeak emozioen arloarekin eta gizonak arrazoiarenarekin lotzen dituenean salbu, adostasun-maila zertxobait altuagoak lortzen dituzte 50-65 urte bitartekoan taldean.

32. GRAFIKOA. Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G66_G70. Emakumeek eta gizonak gizartean dituzten ezaugarri eta rolei dagokienez, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados ondorengo esaldiekin? Erabili 0-10 eskala; 0 “batere ados ez” da, eta 10, berriz, “guztiz ados”. Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Baieztapen horien aurrean **gizonek dituzten posizioak** aztertuz ikus daiteke **adinak**, berriz ere, **ez duela alde esanguratsurik markatzen**. Gizonen kalteberatasuna ukatzen duen genero-mandatuarekin apurtzen duen baieztapenean, gazteenen taldeak adostasun-maila txikiagoa agertzen du (% 43,6), beste bi taldeekin alderatuta (% 50aren inguruan daude biak). Beste aldagai guztietan ez dago joera garbirik, beste taldeen adostasun-maila apurtxo bat gainditzen duen talde bat baitago bakoitzean.

Maskulinitatearen kutxaren inpaktua aztertzeraz igaroz, kutxan okupatzen den posizioa **erabakigarria da, ez bairik gabe**, baieztapen mota hau baloratzeko orduan. Gizonak kalteberak eta emozionalak izan daitezkeela defendatzen duen ideiarekiko adostasunak gehiengo zabala agertzen du kutxatik at daudenen artean (% 61,9), ertzean daudenen (% 39,3) eta kutxaren

agertzen du kutxatik at daudenen artean (% 61,9), ertzean daudenen (% 39,3) eta kutxaren barruan daudenen (% 31,8) aurrean.

Aurkako joera beste aldagai guztietan ikusten da: maskulinitatearen kutxaren barruan daudenek beti agertzen dute adostasun-mailarik handiena. Emakumeak jaiotzetik maneatzailerik, emozional eta zaintza-eginkizunetarako apropos direla dioen ikuspegi esentzialistak % 50etik gorako adostasuna lortzen du maskulinitatearen kutxaren barruan daudenen artean, % 35-50ekoa kutxaren ertzean daudenen artean eta % 35etik beherakoa maskulinitatearen kutxatik urrun daudenen artean.

Kutxako hiru posizioetan zeharkako adostasun-mailarik handiena lortzen duen baieztapena da gizonen emakumeek baino lan gogorragoak izan ohi dituztela dioena. % 38,6, % 62,9 eta % 66,2ko adostasun-mailak lortzen ditu, hurrenez hurren, kutxatik at, kutxaren ertzean eta kutxaren barruan daudenen artean.

FEMINISMOAREN AURREKO POSIZIOAK


4.3.2

Mugimendu feministek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borroka politikoa eta soziala ordezkatzeko dute. Horrenbestez, gure ustez sentimendu feminista funtsezko aldagai bat da maskulinitateek generoaren inguruko balioetan eta sinesmenetan duten inpaktua aztertzeke.

Lagin osoaren ia erdiak (% 49,6k) dio ez dela feminista sentitzen; % 38,9 feminista sentitzen da. Eta oso adierazgarria den % 11,5 batek ez daki edo ez du posiziorik hartu nahi⁴. Gizonen eta emakumeen arteko aldeak argiro markatuta daude, **10 gizonetik 3k bakarrik sentitzen baitira feminista eta emakumeen kasuan ia erdia diren bitartean.**

33. GRAFIKOA. Beren burua feministatzat duten gazteak. 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)

Feministatzat al duzu zeure burua?




71. galdera. Feministatzat al duzu zeure burua? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

⁴ Garrantzitsua da erakusten ditugun emaitzak egungo testuinguruan kokatzea eta konplexu egitea: lehenik eta behin, mugimendu feministak oso anitzak dira eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borroka batzen baditu ere, feminismoaren adar batzuen ustez gizonen ez lukete feminista izan behar, nahiz eta berdintasuna defendatu; bigarren, feminismoaren definizioari buruzko ezagutza falta eta desinformazio handia dago. Ezinbestekoa da alderdi horiek aintzat hartzea kuantitatiboki bilduriko sentimendu feminista dimentsionatzerakoan, atal honetan egiten den bezala.

Hiru adin-taldeen arteko aldeei dagokienez, gazteenak (emakume zein gizon) dira beren burua feministatzat hein handiagoan dutenak (% 46,1, 30-49 urte bitartekoen % 33,9aren eta 50-65 urte bitartekoen % 40,5aren aurrean). Bitxia da sentimendu feministarik txikiena duen adin-tartea bitartekoa dela. Oso adierazgarria da ez dakitela edo ez dutela erantzun nahi diotenen portzentajea ere, adin-talde zaharrenean % 6,9koa den arren bitarteko adin-tartean, dagoeneko, % 12,7raino iristen da eta gazteenen artean % 17,2koa da.

34. GRAFIKOA. Beren burua feministatzat duten gizonak. 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)

Feministatzat al duzu zeure burua?




71. galdera. Feministatzat al duzu zeure burua? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 50 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzean 312 eta kutxatik at dauden 272.

Gizonen posizioak aztertzeraz igaroz, **kasu honetan zaharrenak dira sentimendu feministarik handiena agertzen dutenak (% 34,6)**; beraien atzetik datoz gazteenak (% 30,8) eta, azkenik, 30-49 urte bitartekoen taldea (% 24,6). Beste behin, oso deigarria da ez dakiela edo mugimendu feministen inguruko iritzirik eman ez duen gizonen portzentaje altua; % 17,3raino iristen da gazteenen adin-tartean.

Maskulinitatearen kutxa ere oso erabakigarria suertatzen da sentimendu feminista aztertzeko orduan: kutxa barruko gizonen % 15,6 feminista da, kutxaren ertzean dauden % 19,7 eta kutxatik at dauden % 43 da feminista. Deigarria da maskulinitatearen kutxaren barruan dauden eta ertzean dauden arteko aldea oso txikia dela, batez ere kutxatik at daudenekin alderatuz gero, azken kasu horretan gizon feministen portzentajea bi aldiz pasatxo handiagoa baita.

Feminismoarekiko autoatxikitzeaz haraindi, gehiago sakon daiteke gizonen eta emakumeen arteko berdintasunen edo berdintasun ezen aurreko posizionamenduei dagokienez. Horretarako, adostasun-mailako zenbait galdera planteatu dira, emakumeek gizartean bizi duten egoeraren eta genero-desberdintasunen inguruan.

35. GRAFIKOA. Genero-desberdintasunen eta feminismoaren inguruko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G72_G76. Ondoren, ondorengo esaldiekin duzun adostasun-maila adieraztea gustatuko litzaiguke, 1-10 eskalaren arabera, non 0 “gutziz desados” den, eta 10, berriz, “gutziz ados”. Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.


Kasu honetan, ikus daitekeenez eta **oro har, feminismoa eta berdintasuna defendatzen dituzten baieztapenak dira adostasun-mailarik handiena lortzen dutenak: emakumeek eta gizonak partekatuko duten feminismo** baten aldeko baieztapenak (% 70,4k “feminismoak emakumeak zein gizonak inplikatu behar dituela” defendatzen du), **matxismoaren aurkako borroka aktiboa eskatzen dutenak gizonen aldetik** (% 69,3k uste du “gizon batek bere inguruneke pertsoneri kargu hartu beharko liekeela jokabide matxistak agertzen badituzte”) eta, hein txikiago batean, **feminismoa berdintasuna lortzeko bitarteko gisa aldarrikatzen dutenak** (% 44,6k adierazten du “feminismoa beharrezkoa dela gizonen eta emakumeen berdintasun erreala lortzeko”).

Feminismoaren aurreko posizionamendu zuzenarekin gertatzen den bezalaxe, oraingoan ere **genero-ezberdintasun oso esanguratsuak** daude baieztapen hauekiko jarreretan. **Emakumeek feminismoa defendatzen duten baieztapenekiko adostasun-maila handiagoa agertzeko joera dute eta, alderantziz, gizonak horren aurkako baieztapenekiko adostasun-maila handia agertzeagatik nabarmentzen dira.** Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeek adostasun-maila altuak adierazten dituzte honako hauekiko: “feminismoak emakumeak zein gizonak inplikatu behar ditu” (emakumeen % 75,4 eta gizonen % 65,6), “gizon batek bere inguruneke pertsoneri kargu hartu beharko lieke jokabide matxistak agertzen badituzte” (emakumeen % 74 eta gizonen % 64,7) eta “feminismoa beharrezkoa dela gizonen eta emakumeen berdintasun erreala lortzeko” (emakumeen % 52,3 eta gizonen % 37). Bestalde, gizonak nabarmendu beharreko adostasun-mailak ondokoekiko adierazten dituzte: “emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi gara, orain gizonak dira diskriminatuak” (gizonen % 46 eta emakumeen % 27,2) eta “feminismoa ez da beharrezkoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna badagoelako” (gizonen % 28,9 eta emakumeen % 12,4).

Adina aldagaia ez da hain esanguratsua, baina garrantzitsua da ere feminismoarekiko jarrerak aztertzeko orduan. Alde batetik, partekatutako feminismo bat eta gizonen borroka aktiboa aldarrikatzen dituzten baieztapenen aurrean (“feminismoak emakumeak zein gizonak inplikatu behar ditu,” “gizon batek bere inguruneko pertsona kargu hartu beharko lieke jokabide matxistak agertzen badituzte”), zaharrenak (50 urtetik gorakoak) dira adostasun-mailarik handiena erakusten dutenak. Zaharrenak ere nahiko ados daude “feminismoa beharrezkoa dela gizonen eta emakumeen berdintasun erreala lortzeko” dioen baieztapenarekin baina kasu honetan gazteenak (15-29 urte) dira adostasun-mailarik handiena agertzen dutenak. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonarik zaharrenak dira feminismoaren aurkako baieztapenekiko adostasun-mailarik baxuena adierazten dutenak. Jarrera horiekin, 30-49 urte bitartekoak taldeak agertzen du adostasun-mailarik altuena.

Jarrera horiek **gizonen** artean bereziki aztertzerakoan, eta adinaren eta maskulinitatearen kuxarekiko agertzen duten posizioen eragina aztertzerakoan, aldeak oso markatuta daude. Hasteko, **adina** aldagai garrantzitsua da kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria orokorraren artean adinarekin gertatzen den bezalaxe, adinak gora egin ahala adostasuna handiagoa da gizonen eta emakumeen partekatutako duten feminismo baten eta gizonen feminismo aktiboaren aldeko baieztapenekiko eta pertsona zaharrenen taldea da feminismoaren beharra defendatzen duena berdintasun erreala lortzeko (kasu horretan, gizon zaharrenek eta gazteenek adostasun-maila berbera agertzen dute). Gizon gazteenek, halaber, feminismoaren aurkako jarrerak defendatzen dituztenen proportzio altu bat erakusten dute: gizon gazteen erdiak (% 51,9k) dio feminismoa urrutiegi joan dela eta gizonak diskriminatzen direla orain; eta heren batek (% 34,7k) dio feminismoa ez dela beharrezkoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna badagoelako.

36. GRAFIKOA. Genero-desberdintasunen eta feminismoaren inguruko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




G72_G76. Ondoren, ondorengo esaldiekin duzun adostasun-maila adieraztea gustatuko litzaiguke, 1-10 eskalaren arabera, non 0 “guztiz desados” den, eta 10, berriz, “guztiz ados”. Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Azkenik, **maskulinitatearen kuxari** dagokionez, emaitzak argiak dira: kuxatik at dauden gizonak feminismoa defendatzeko, gizonak eta emakumeak inplikaturik dituen feminismo baten beharra eta portaera matxistak gaitzetsiko dituzten gizonen beharra defendatzeko joera nabariagoa dute; kuxaren barruan daudenek, aitzitik, feminismitik aldenduta, horren aurkakoak ia diren jarrerak agertzen dituzte. Kuxaren barruan eta kuxatik at dauden gizonen arteko jarrerak argi aurkakoak dira feminismoaz hitz egiterakoan:

- **Kuxa barruko gizonak.** 10 gizonetik ia seik uste dute feminismoa urrutiegi joan dela eta gizonak diskriminatzen direla orain; eta erdiak uste du feminismoa ez dela beharrezkoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna badagoelako dagoeneko. Gizon hauen artean, feminismoa benetako berdintasuna lortu ahal izateko beharrezkoa dela pentsatzen dutenak ez dira 10etik 2ra iristen.
- **Kuxatik at dauden gizonak.** Feminismoa askoz gehiago defendatzen dute, erditik gorak uste du beharrezkoa dela benetako berdintasuna lortzeko eta 10etik 8k inguruk uste dute feminismoak gizonak zein emakumeak hein berdinean inplikatu behar duela eta, horrez gain, beren ustez gizon batek bere inguruneko pertsonari kargu hartu behar die jokabide matxistak agertzen badituzte.

Genero-estereotipo eta -mandatu garrantzitsuenetako zenbait bikote-harremanen eta aipatuetan rolak banatzeko moduaren inguruan egituratzen dira. Aldi berean, maitasun erromantikoari loturiko mito asko daude, erabateko entrega edo posesibotasuna eta kontrola babesaren eta zaintzaren adierazletzat hartzen dira, esaterako, eta mito horiek familia-eredu patriarkalean oso indartsu dira, non ohiko maskulinitate hegemonikoak pribilegiozko espazio batez gozatzen duen. Oinarri hori abiapuntutzat hartuz, puntu honetan bikoteari buruzko ikuspegi ezberdinetan (genero, adin eta maskulinitatearen kuxaren arabera) sakondu nahi dugu.

37. GRAFIKOA. Bikote-harremanei buruzko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G77_G82. Ondorengo zerrendak bikote-harremanei lotutako hainbat alderdi planteatzen ditu. Esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados ondorengo esaldiekin? (Erabili 0-10 eskala; 0 "batere ados ez" da, eta 10, berriz, "guztiz ados"). Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.


Hasteko, bikote-harreman batean banakoak izan behar duen espazioari buruzko bi ideia kontrajarriak daude. **Adostasun-mailarik handiena** lortzen duena ondokoa da: **"Bikote batean, ezinbestekoa da bakoitzak espazio propioa izatea; ez da dena partekatu behar" (% 74,7ko adostasuna)**. Ideia horri kontrajarria, % 36,6k uste du "bikotekidea izateak esan nahi duela erabateko dedikazioa eskaini behar zaiola beste pertsonari".

Deigarria da bi baieztapenen kasuan emakumeen portzentajea gizonena baino handiagoa dela: lehen kasuan, ia 10 portzentaje-puntu handiagoa (gizonen % 70,1, emakumeen % 79,4) eta bigarren kasuan aurkakoa, eta alde handiagoarekin (gizonen % 44,7 eta emakumeen % 28,4). **Ondorioz, nabaria da dependentziaren eta bestearekiko dedikazioaren ideiak gizonen imajinarioan dela ohikoagoa.**

Bloke honetan erabilitako beste baieztapen guztiak kontrola, posesibotasuna eta jeloskortasuna maitasunaren adierazgarritzat edo normalizatutako eta naturalizatutako dinamikatzen hartzen dituzte eta, kasu guztietan, gizonak emakumeek baino adostasun-maila handiagoa agertzen dute. Adostasun-mailarik handiena lortzen duena da “mutil batek bere neska babestu behar du” (gizonen % 49,1 eta emakumeen % 34,5). Horren atzetik ondokoak datoz: “harreman batean, une oro zure bikotekidea non dagoen jakitea merezi duzu” (gizonen % 14,1 eta emakumeen % 12,2), “normala da zure bikotekidearen mugikorra miatzea engainatzen zaituela uste baduzu” (gizonen % 10,6 eta emakumeen % 9,8) eta, azkenik, “harreman sentimental batean, jeloskortasuna maitasunaren adierazgarri da” (gizonen % 12,2 eta emakumeen % 5,5).

Jarrera horiek **adin-taldean** arabera aztertuz gero ikus daiteke **50-65 urte bitartekoak taldeak** bikote-harreman batean **independentzia eta espazio propioa funtsezkoak direla maila handiagoan uste duela** (% 80tik gora), bai eta kontrola eta posesibotasuna mota honetako harremanentzat negatiboak direla adierazten duten baieztapenen kasuan ere. Urteek behera egin ahala joera hori alderantzikatu egiten da: 15-29 urte bitarteko pertsonak dira bikotean espazio propioa funtsezkoa dela dioen baieztapenarekin adostasun-mailarik txikiena agertzen dutenak (% 67) eta adostasun-mailarik handienak agertzen dituztenak beste baieztapen guztien kasuetan. Esan beharra dago “mutil batek bere neska babestu behar du” baieztapenak zeharkako adostasun-mailarik handiena lortzen duela hiru adin-taldeetan: % 38,3ko babesaren artean eta % 47,9koa gazteenen taldean.

38. GRAFIKOA. Gizonak eta emakumeak gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G77_G82. Ondorengo zerrendak bikote-harremanei lotutako hainbat alderdi planteatzen ditu. Esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados ondorengo esaldiekin? (Erabili 0-10 eskala; 0 “batere ados ez” da, eta 10, berriz, “guztiz ados”). Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Puntu honetan, **gizonen ikuspegiari** eskainiko diogu arreta. **Adinaren arabera** aldeetatik hasiz, zenbait kasutan lagin orokorraren joera errepikatzen da, baina ez guztietan. Adin-talderik zaharrena da adostasun-mailarik handiena agertzen duena “bikote batean, ezinbestekoa da bakoitzak espazio propioa izatea; ez da dena partekatu behar” baieztapenaren aurrean (% 78,2, bitarteko taldearen % 67,8aren eta 15-29 urte bitartekoen taldearen % 61,5aren aurrean). “Mutil batek bere neska babestu behar du” edo “bikotekidea izateak esan nahi du erabateko dedikazioa eskaini behar zaiola beste pertsonari” baieztapenaren kasuan, ordea, adostasun-maila berdindu egiten da. Marjinalagoak diren beste baieztapen guztien kasuan, adin-talderik gazteena zertxobait gailentzen zaie besteei.

Maskulinitatearen kutxaren inpaktua aztertuz gero, ikus daitekeenez, **kutxaren barruan egoteak argi eta garbi markatzen ditu erantzun guztiak**. Bikotean intimitate- eta independentzia-espazioak sortzeko beharra defendatzen duen baieztapena da adostasunik txikiena lortzen duena (% 57, ertzean dauden % 63aren eta kutxatik at dauden % 80,3aren aurrean) eta beste baieztapen guztien kasuan, adostasun-portzentajea kutxako beste posizioetako hori baino askoz handiagoa da. Nabarmendu beharra dago bikotekidearen kontrola normalizatzen duten baieztapenaren kasuan kutxaren barruan dauden adostasuna % 25aren eta % 45aren artekoa dela eta kutxaren ertzean dauden kasuan % 15aren ingurukoa dela eta kutxatik at dauden kasuan % 7 baino ez dela.


GENERO-INDARKERIARI BURUZKO IKUSPEGIAK

4.3.4

Bloke hau ixteko, genero-indarkeria nola hautematen den eta horrek sortzen dituen jarrerak aztertuko ditugu. Genero-indarkeriari buruzko datu ofizialak oso argiak dira: etenik gabeko fenomeno bat da erregistroak daudenetik eta funtsezkoa da borrokan jarraitzea fenomeno hori desagerrarazteko. Nolanahi ere, azken urteotan indarkeria mota hau minimizatu, hutsaldu eta bere existentzia ere ukatzeko joera duten diskurtso eta argudioen hedatzea eman da. Atal honen xedea da diskurtso horiek dimentsionatzea eta ezaugarri soziodemografikoek eta maskulinitatearen kutxak horien hedatzean eta onartzean duten inpaktua aztertzea.

Garrantzitsua da nabarmentzea **adostasuna ia erabatekoa dela “genero-indarkeria oso gizarte-arazo larria da” dioen baieztapenaren aurrean; adostasun-mailarik handiena lortzen duena da (% 80,3)**. Adostasun-maila biztanleria osoan da altua baina emakumeena gizonena baino 16 portzentaje-puntu handiagoa da (emakumeen % 88 eta gizonen % 72,6). Adin-taldeen arabera aldeei dagokienez, adostasun-mailak gora egiten du adinak gora egin ahala: % 71,9ko adostasuna 15 eta 29 urte bitartekoen artean; % 79,2koa 30-49 urte bitartekoen talderako eta % 86koa 50-65 urte bitartekoen artean.

39. GRAFIKOA. Genero-indarkeriari buruzko baieztapenekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko biztanleak; globala, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)




G83_G87.galderak. Ondorengo esaldiek GENERO-INDARKERIARI (indarkeria fisikoa, sexu-indarkeria, indarkeria ekonomikoa, kontrol-indarkeria eta abar) eta gizartean duen inpaktuari buruzko iritzi batzuk islatzen dituzte. Zein da zure adostasun-maila esaldi bakoitzarekin? Baloratu 0-10 eskalan; 0 "batere ados ez" da, eta 10, berriz, "gutziz ados". Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 1.252 pertsona, 15-65 urte bitartekoak; 627 gizon; 624 emakume; 15-29 urte bitarteko 263, 30-49 urte bitarteko 535 eta 50-65 urte bitarteko 454.

Gizonak egungo gizartean desabantaila-posizio batean daudela indartzen duten bi baieztapen daude, gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria eta emakumeek gizonen aurka erabiltzen dutena berdinduz (% 41,2ko adostasuna) eta gizonentzat errugabetasun-presuntzioa galdu egin dela dioten ideiatik (% 34,8ko adostasuna). Deigarria da lehen kasuan gizonek eta emakumeek antzeko adostasun-mailak agertzen dituztela (emakumeak zertxobait altuago daude ere). Gizonen errugabetasun-presuntzioaren galerari dagokionez, emakumeen adostasun-portzentajea % 26,4koa da eta gizonena % 43,1koa. Ikus daitekeenez, ideia horiek biztanleen imajinario kolektiboan zehar era esanguratsuan hedatu dira; eta gizonen artean bereziki. **Adin-taldearen arabera ere deigarria da, ikerlanaren beste aldagai batzuetan antzematen zen joera bat alderantzizkatzen baita:** kasu honetan, adin-tarterik zaharrena da bi baieztapenen aurrean adostasun-mailarik handiena agertzen dutenak.

Azkenik, esan genezake **genero-indarkeria ukatzen edo minimizatzen duten bi baieztapenak adostasun-mailarik txikiena lortzen dutenak direla: % 10,8k dio genero-indarkeriarik "ez dagoela, asmakizun ideologiko bat dela" (gizonen % 14,9 eta emakumeen % 6,7) eta % 7,4k uste du "intentsitate txikikoa bada, indarkeria ez dela arazoa bikote-harremanerako" (gizonen % 9,5 eta emakumeen % 5,1).** Ikus daitekeenez, bi kasuetan gizonen portzentajeak emakumeena bikoizten du ia. Adin-tarteek ez dute alde handirik agertzen baina esan beharra dago intentsitate baxuko genero-indarkeriaren garrantzia gutxiesten duen portzentajea 15-29 urte bitartekoen artean dela handien (% 10,8, beste bi taldeen kasuan agertzen den % 6 inguruaren aurrean).

40. GRAFIKOA. Gizonek eta emakumeek gizartean dituzten ezaugarriekiko edo rolekiko adostasun-maila. ADOSTASUNA (7-10, 0-10 eskalan). 15-65 urte bitarteko gizonak; globala, adinaren eta maskulinitatearen ikuspegiaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (%)



G83_G87. Ondorengo esaldiek GENERO-INDARKERIARI (indarkeria fisikoa, sexu-indarkeria, indarkeria ekonomikoa, kontrol-indarkeria eta abar) eta gizartean duen inpaktuari buruzko iritzi batzuk islatzen dituzte. Zein da zure adostasun-maila esaldi bakoitzarekin? Baloratu 0-10 eskalan; 0 “batere ados ez” da, eta 10, berriz, “guztiz ados”. Birkodetzea: ADOSTASUNA = 7-10; EZ ADOSTASUNIK, EZTA DESADOSTASUNIK ERE = 4-6; DESADOSTASUNA = 0-3. // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 627 gizon; 15-29 urte bitarteko 136; 30-49 urte bitarteko 269; 40 eta 65 urte bitarteko 222; kutxa barruko 43, kutxaren ertzeko 312 eta kutxatik at dauden 272.

Hemen, **gizonek genero-indarkeriaren aurrean dituzten jarrerak** aztertuko ditugu. Ikusi dugun bezalaxe, adostasun-maila altuagoa agertzen ohi dute, emakumeek baino, indarkeria mota hau zalantzan jartzen, gutxiesten, hutsaltzen edo ukatzen duten baieztapenen aurrean.

Adin-taldeek erakusten dute genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela dioten 15-29 urte bitarteko gizon gazteen portzentajea (% 59,4) beste bi taldeek agertzen duten portzentajea baino dezente txikiagoa dela (% 71,7 30-49 urte bitartekoen artean eta % 81,7 50-65 urte bitartekoen taldean). Beste baieztapen guztietan, adin-taldeek arteko aldeak ez dira handiegiak baina, orokorrean, gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria eta emakumeek gizonen aurka erabiltzen dutena berdintzen duten edo gizonen errugabetasun-presuntzioa galdu dela dioten baieztapenak zaharragoen artean lortzen dute adostasun-mailarik handienak eta, aitzitik, genero-indarkeria ukatzen edo gutxiesten duten horiek gazteen artean.

Azkenik, datuek agerian uzten dutenez, **maskulinitatearen kutxak alde zorrotzak markatzen ditu genero-indarkeriaren aurrean erakusten diren jarrerei dagokienez**. Hasteko, kutxa barrukoek % 20,4k baino ez du uste genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela, ertzen daudenen % 66,8aren eta kutxatik at daudenen % 87,5aren aurrean. Bigarrenez, kutxaren barruan daudenen % 76,7k dio gizonek errugabetasun-presuntzioa galdu dutela (ertzean daudenen % 45,8aren eta kutxatik at daudenen % 34,7aren aurrean). Hirugarrenez, kutxa barrukoek % 57,4k dio ez dagoela genero-indarkeriarik (ertzean daudenen % 14,8aren eta

kutxatik at daudenen % 8,2aren aurrean). Intentsitate baxukoa bada, genero-indarkeria ez dela arazoa defendatzen duen ideiak kutxa barrukoen artean lortzen du adostasun-mailarik handiena baina hiru posizioen arteko aldeak ez dira handiegiak (kutxa barrukoen % 17,7, ertzean daudenen % 11,3 eta kutxatik at daudenen % 6,1). Azkenik, "gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria eta emakumeek gizonen aurka erabiltzen dutena berdinak dira" dioen aldagaiak antzeko adostasun-maila lortzen du kutxako hiru posizioetan (% 40 inguru).

5

ONDORIOAK

Ikerlan honetan zehar, **Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko gizonak eta emakumeak maskulinitatea nola hautematen eta eraikitzen duten aztertu dugu, bai eta eraikuntza horiek** ongizate-sentsazioan eta gizarte orokorraren inguruan duten ikuspegian duten eragina ere, beren balioen eta sinesmenen bitartez.

Testuaren zati batean adierazi den bezalaxe, ikerlana **Centro Reina Sofía de Fad Juventud** ikerketa atalak egin du posible, zenbait urte baitaramatza genero-estereotipoen eraikuntza ikertzen, Gazteria eta Generoa lehen barometroa argitaratu zenetik gehienbat (Ballesteros et al., 2017), eta 2022. urtetik arreta berezia eskaintzen baitie maskulinitateei. Ilbilbide horrek luzetarako analisiak gauzatzea eta arlo honetan azken urteotan eman diren aldaketa garrantzitsuenetako zenbait identifikatzea ahalbidetzen du.

GENERO-ARRAKALA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ARRAKALA

5.1

Ikerlanaren funtsezko ardatzetako bat da genero-arrakalak eta belaunaldien arteko desberdintasunak aztertzea. Zentzu horretan, ikerlan honetatik ateratako ondorio garrantzitsuenetako bi ondokoak dira: **gizonen eta emakumeen arteko polarizazioa esanguratsua dela eta emakumeak gizonak baino dezente transgresoreagoak direla ohiko genero-estereotipo eta -mandatuekin eta, bestetik, adin-tarterik gazteenak (15-29 urte bitartekoak) besteek baino hein handiagoan barneratzen dituela ohiko maskulinitate hegemonikoari loturiko printzipioak.**

Gizonen eta emakumeen arteko polarizazioa

Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak, ideologia mailan zein genero-gaiei dagokienez, argi eta garbi frogatu izan dira iragan ikerlan ezberdinetan (Sánchez Sanz, 2024; Sanmartín Ortí et al., 2024). Ikerlan honetan, maskulinitatearen kutxatzat —ohiko maskulinitate hegemonikoaren irudikapena— jo dugun hori zehazteko erabili ditugun 17 aldagaien aurreko posizionamenduek joera hori mahai gainean jarri dute. Aldagai horien artean, gizonen adostasunik txikiena (% 7,8) lortu duen ideia ondokoa da: *“Gizon batek beti izan beharko luke azken hitza bere bikote-harremanaren edo ezkontza-harremanaren inguruko erabakietan”*. Adostasunik handiena lortzen duena (% 30,1), aitzitik, honako hau da: *“Beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da”*. Emakumeen kasuan, bestalde, adostasunik txikiena % 3koa da, *“ez da gomendagarria gizon heterosexualek lagun homosexualak izatea”* baieztapenaren aurrean, eta adostasunik handiena % 12,7koa, *“emakumeak ez dituzte bilatzen beren itxurarekin eta janzerarekin asko kezkatzen diren gizonak”* baieztapenari lotuta. Izan ere, **gizonak maskulinitateari buruzko ideia horiekin guztiekin ados daude eta, horrez gain, 4 adierazle kenduta, beste guztietan emakumeen adostasun-maila bikoizten dute.** Apenas alderik agertzen ez duen ideia bakar bat dago: *“emakumeak ez dituzte bilatzen beren itxurarekin eta janzerarekin asko kezkatzen diren gizonak”* (gizonen % 14,1 eta emakumeen % 12,7).

Ikus daitekeenez, oro har, maskulinitatea eraikitzeke modua oso baldintzatua dago generoari dagokionez. **Maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen diren gizonen portzentajeak emakumeen portzentajea hirukoizten du (gizonen % 6,9, emakumeen % 2,2).** Aldi berean, gizonen % 49,8 maskulinitatearen kutxaren ertzean dago, emakumeen % 24,2arekin alderatuta, eta gizonen %43,2 kutxatik at dago, posizio hori emakumeen gehiengoak era garbian okupatzen duen bitartean (% 73,7). Datu horietatik ondoriozta daiteke **emakumeak**

abangoardia direla emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan.

Hori, gainera, ez da harritzekoa, emakumeak baitira egun bizi dugun gizarte- eta kultura-egitura patriarkalaren kaltetu nagusiak.

Egitura patriarkalak emakumeetan dituen efektuen adibide garbia dira buruko osasunaren inguruko bizipen eta hautemate ezberdinak (Megías et al., 2021). Txosten honetan erregistratu ditugun datuek diotenez, emakumeen % 56k aitortu du buruko osasuneko arazoak izan dituela azken urtean (% 16k maiz) baina gizonen kasuan, % 39,2k baino ez ditu buruko osasuneko arazoak aitortu (% 7,7k, maiz). Literaturak erakusten du, halaber, ohiko edertasun-kanonetara egokitzeko presioak emakumeetan duela eragin berezia eta adinak gora egin ahala handituz doala (Mears, 2018; Narayan, 2008). Honela, eta ulergarria denez, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen % 23,7k dio kanpoko bere itxuraz oso kezkatuta dagoela eta portzentaje hori % 13,1ekoa da gizonen artean eta, halaber, kanpoko beren itxuraz kezkatuta ez daudela dioten emakumeen portzentajea gizonen horren erdia da (emakumeen % 8 eta gizonen % 16). Aldi berean, fisikoki erakargarri izateak presio soziala sortzen du emakumeen % 36,4arentzat (gizonen % 23,4aren aurrean).

Datuek, halaber, **feminitateari loturiko estereotipoen** (zaintza, pertsonen arteko komunikaziorako gaitasuna edo enpatia) **pisua islatzen dute** (Barboza, 2016; González Gabaldón, 1998). Emakumezko lagunaren eta amaren irudiak funtsezko erreferentziak dira babes emozionalerako norbaitek (gizon zein emakume) arazo pertsonalen bat duenean. Emakumeek presio sozial handiagoa sentitzen dute besteak emozionalki babesteari (emakumeen % 34,8 eta gizonen % 25,2) eta etxeko zereginak gauzatzeari (emakumeen % 28,7 eta gizonen % 20,3) dagokienez. Azkenik, nabarmendu beharra dago zenbait puntutan genero-estereotipo femeninoekin apurtzen dela, emakumeek presio sozial handiagoa sentitzen baitute tristura edo antsietatea ezkutatzeke orduan (emakumeen % 36,1 eta gizonen % 23,9) edo adorea erakusteko orduan (emakumeen % 37,1 eta gizonen % 26); normalean maskulinitateari atxikitzen zaizkion ezaugarriak.

Adin-taldeak, bizi-zikloak eta sozializazio politikoa

Ikerlan honetako **adin-taldearen arabera**ko **analisi**a berritasun handienetako bat izan da **Centro Reina Sofía de Fad Juventud** maskulinitateari buruz orain arte egin dituen ikerketekin (Kuric et al., 2023; Sanmartín Ortí et al., 2022) alderatuta. Lehen aldiz, aldeak identifikatu ahal izan ditugu, 30 urtetik beherakoaren artean ez ezik, baita 65 urteetarainoko belaunaldi ezberdinen artean ere.

Emaitzak oso garbiak dira zeren, aztertu diren aldagai gehienetan, **adin-tarterik zaharrenak izan baitira ohiko maskulinitate hegemonikotik urrutien agertu direnak**, eredu horrek garrantzia pilatzen zihoan bitartean adin-tarteek behera egin ahala. Horren erakusle da kutxako hiru posizioen banaketa, adin-tarte horiek aintzat hartuz: **talderik gazteena (15-19 urte) da posizio erreakzionarioenetik gertuen dagoena**, alde handiarekin; talde horretako % 37,7 baino ez da kutxatik at kokatzen. Eta portzentaje hori bereziki kezagarria da gizonen kasuan: % 17,5 baino ez dago kutxatik at, kutxaren barruan dauden % 22,5aren aurrean. Datu horiek nabarmenki kontrastatzen dute 15-19 urte bitarteko emakumeen horiekin: **kutxatik at kokatzen direnen portzentajea % 59,5ekoa da eta ia ez da emakumerik kokatu kutxaren barruan. Bestetik, kutxatik at gehien kokatu den adin-taldea 50-59 urte bitarteko pertsonena da** (% 67). Talde honetan, % 1,6 baino ez da kutxaren barruan kokatzen (% 2,6 gizonen kasuan eta % 0,6 emakumeen kasuan).

Ikus daitekeenez, adinari dagokionez, 20 urtetik beherako gizonak dira ohiko maskulinitate hegemonikoaren jarreretatik gertuen daudenak. **Garrantzia da aintzat hartzea kutxaren barruan dauden 15 eta 29 urte bitarteko gizon gazteek ari garenean, kategoria honetan**

eragin handia duela gizon gazteenen (15-19 urte) taldeak. Izan ere, kutxaren barruko 15 eta 29 urte bitarteko gizonak % 11,1 suposatzen dute baina 15-19 urte bitartean dituzten gizonak kendu eta 20 eta 29 urte bitartekoak bakarrik uzten baditugu, portzentajeak % 6,3raino egiten du behera.

Emaitza horiek kontraintuitiboak izan daitezke, hasiera batean, oro har gazteria aurrerakoiagoa dela eta adinak gora egin ahala jarrera tradizionalistak hegemonikoak bilakatzen direla uste baita. Glenn (1974) edo Feather (1977) bezalako egileek logika hori eusten duten arrazoibide klasiko ezberdinak eskaini dituzte: alde batetik, beren oinarria da gazteak, normalean, ez dutela dirurik edo familia-erantzukizunik eta horrek elkartasuna, birbanaketa eta gizarte-aldaketa lehenesten dituzten jarrerak hartzera bultzatzen dituela, egonkortasunaren eta aberastasuna pilatzearen gainetik. Bestetik, izaera psikologizista duten argudioak daude: horien arabera, gazteen pentsamoldea irekiagoa eta malguagoa izaten ohi da, ez baitute beren bizitzetan eragin esanguratsua izango duen edozein aldaketatik aldenduko dituen errutinarik eraikitzeko astirik izan.

Argudio horiek ukatu gabe eta Lorentek (2019) aztertu duen bezalaxe, **garrantzitsua da ere adin-taldearen eraginak aintzat hartzea, ikertzen ari den bizi-zikloaz haraindi.** Gauza da funtsezkoa dela pertsona horien sozializazioa hartu duen testuingurua aztertzea ezker edo eskuin ideologikoaren gertuen hartutako posizioa sozializazio-taldearen testuinguruarekin edo bizi duten bizi-zikloarekin, gazteago edo zaharrago izatearekin lotuta ote dagoen ulertzeko. Aldaketa ideologikoak, hein handian, haurtzaroan, nerabezaroan eta gazterian ikaskuntza eta orientazio politikoak barneratzeko egon den modua aztertuz azal daitezke. Nazioartean egindako ikerketa batzuek ere adierazi dutenez, genero-gaiei dagokienez biztanle gazteenek jarrera kontserbadoreagoak hartu dituzte azken urteotan (Calarco, 2024; Campbell et al., 2024; Ipsos, 2024).

Puntu honetan, **gazteak, 15-19 urte bitarteko gizonak bereziki, generoari dagokionez beste adin-tarte batzuek baino jarrera ez hain aurrerakoiak hartzera** eta pertsona zaharrenak ohiko maskulinitate hegemonikotik urrunen dauden posizioetan egonkortzera bultzatu dituzten balizko arrazoieta sakondu nahi dugu. Horretarako, ezinbestekoa da zenbait alderdi jorratzea:

- 1. Gazteen sozioekonomia- eta lan-testuingurua.** Espainiako eta, ikerlan honetan bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteak gizarte-talde kalteberenen artean kokatzera garamatzaten sozioekonomiaren eta lanaren arloetako adierazle ugari daude. Funtsezkoa da agerian uztea beharrezkoa dela zeharkako ikuspegi bat aplikatzea eta adinaz besteko aldagai soziodemografiko ezberdinak erabiltzea (sexua edo adina, esaterako) gizarte-bazterketako arriskua zehazteko, baina beti ere adinak duen eragin erabakigarria albo batera utzi gabe. **Espainiako biztanleria gaztea enpleguari eta baldintza sozioekonomikoei dagokienez egitura-kalteberatasunak dituen gizarte-talde bat da.** Izan ere, errealitate hori Espainiako Estatistika Institutu Nazionalak egin dituen Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestaren (2024ko bigarren hiruhilekoa)⁵, Bizi Baldintzen inguruko Inkestaren (2023)⁶ eta Ordainsari-Egiturari buruzko Inkestaren (2022)⁷ azken datuetan geratu da agerian. 25 urtetik beherakoen langabezia-tasa, esaterako, % 26,58 da Espainian eta % 25,95 Euskal Autonomia Erkidegoan; eta 25 urtetik gorakoen kasuan % 10,8 da Espainian eta % 6,89 Euskal Autonomia Erkidegoan. Enpleguaren ezaugarriak aztertuz gero, halaber, Espainiako

5 EIN (Zenbait urte) Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI). 2024ko lehen hiruhilekoa. 24/07/23an aterata, hemen: https://ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176918&menu=ultiDatos&idp=1254735976596

6 EIN (Zenbait urte) Bizi-baldintzen inguruko Inkesta (BBI). 2023. urtea. 24/07/23an aterata, hemen: https://ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176807&menu=ultiDatos&idp=1254735976608

7 EIN (Zenbait urte) Ordainsari-egiturari buruzko Inkesta (OEI). 2022ko aurrerapena. 24/07/23an aterata, hemen: https://ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177025&menu=ultiDatos&idp=1254735976596

datuak erakusten dute gazteek kalitate baxueneko lanpostuak okupatzen ohi dituztela: aldi baterako lanetan, 16 eta 19 urte bitarteko soldatiko gazteen portzentajea % 54,7 da eta % 40,53 20 eta 24 urte bitartekoen artean, biztanleria orokorraren kasuan % 15,7 denean. Irabaziei dagokienez, **urteko batezbesteko irabaziak** 26.948,87 € izan ziren langileko, 2022. urtean, baina 20 urtetik beherakoen kasuan 10.597,24 € izan ziren. Ikus daitekeenez, lan-prekarietatea eta langabezia gazteen enpleguaren ezaugarri garrantzitsuak dira Espainian eta horrek **ondorio larriak** ditu beren bizitzan. Horren **adierazle txirotasun-ariskuaren edo gizarte-bazterketako ariskuaren** tasa da (AROE adierazlea): % 34,3 da 16 urtetik beherakoen kasuan, % 27,4 16 eta 29 urte bitartekoen artean eta % 26,5 biztanleria orokorraren kasuan. Lan bat aurkitzeko zailtasunak, behin-behinekotasun, aldizkakotasun eta sasoikotasun maila handiak gazteen enpleguan, ordainsari txikiak eta alokairuen eta etxebizitzaren garestitzea dira Espainiako gazteak **bizitza heldurantzko trantsizioaren ohiko mugarriak atzeratzera** behartzen dituztenak (Moreno-Mínguez et al., 2012). Bizitza heldurantzko trantsizioaren ohiko mugarriak betetzen joateko ezintasunak, ordea, ez du esan nahi presio soziala txikiagoa denik aipatu mugarriak betetzeko orduan: 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 60,5ek lanean edo ikasketetan arrakasta izateko presio handia sentitzen du. Portzentaje hori % 45,3 da 30-49 urte bitartekoen taldean eta % 20,1 50 eta 65 urte bitartekoen taldean. Ohiko maskulinitate hegemonikoaren ereduaren oinarria da genero-rolen banaketa familia patriarkalaren barruan. Banaketa hori gizon hornitzailea du ardatz, egonkortasun ekonomikoaren bermatzaile eta unitate familiarren ordezkari dena espazio publikoan, lanaren bidez. Mugimendu feministen aurrerapenari eta ikuspegi emantzipatzaile batetik bultzaturiko emakumearen laneratzeari esker gertatu den eredu horren gaitzespen hedatuaz gain, egungo testuinguru neoliberalak eta horren ondoriozko gazteen prekarietateak ezinezko bilakatu dute familia-eredu patriarkala. Gazteen artean gehienbat, prekarizaturako taldea diren heinean, familia oso bat ordainsari bakar batekin mantentzeko aukera erabat ezinezkoa da. **Ohiko ereduaren eta egungo gazteek bizi duten errealitate sozioekonomiko horren arteko orekarik eza horren aurrean, egungo egitura sozioekonomikoa ukatzen duten eta aberastasunaren birbanatzean eta elkartasunean oinarritutako alternatibak bila daitezke edo ohiko genero-rolak naturalizatu eta egonkortasun ekonomikoa eta ongizatea agintzen dituen goraipatutako iragan baten jarrera nostalgikoa har daiteke.** Honela, gazteen arteko prekarietatea jarrera atzerakoien eta ohiko maskulinitate hegemonikoaren eredueta bueltatzeko nahiaren bultzatzaile nagusietako bat bilakatzen da, feminismoa eta berdintasunerantzko aurrerapenak izendatzen baitira beren arazo guztien errudun eta hipermaskulinitatea erabiltzen baita aingura eta babes gisa, ziurgabetasunaren aurrean (García García, 2010; García García, 2008).

2. **Komunikazio-ekosistema digitala.** Azken hamarkadetan, arlo digitalak gizarte-praktika guztiak menderatu ditu eta elkarren artean eragiteko eta komunikatzeko dugun moduak eraldatze izugarria bizi izan du. Komunikazio digitalari eta telefono adimendunen hedatzeari esker, mezuek mugarik gabeko irismena dute maila geografikoan, bai eta inpaktu iraunkor bat ere, asinkronikotasuna, formatuak eta kanalak konbinatzea eta nortasunaren eraikuntza errazagoa ahalbidetzen baitituzte, komunitate bateratuak sortu zein anonimotasunaren atzean ezkutatzeko. Esparru horren barruan sortu da *"manosfera"* —baita *androsfera* edo *machosfera*— deitu izan dugun hori: espazio birtual heterogeneoen multzoa, diskurtso misogino eta feminismoaren aurkakoen zabaltzean oinarritutako mugimendu maskulinista eta azpikultura ugari biltzen dituen (García Mingo et al., 2022; García Mingo eta Díaz Fernández, 2022). Manosferaren diskurtsoek gazterien imaginario kolektiboan eta diskurtsoetan polinizatzen ohi dute, ondoko eginkizunak betez: hasteko, desinformazio- eta genero gaien inguruko alfabetatze-iturri bat da, tradizionalismoa eta misoginia oinarri dituen; bigarren, argudio eta narrazio maskulinistak sortzeko eta elikatzeke espazio bat bilakatzen da; hirugarren, gizonen arazoen aurrean elkarri laguntzeko eta babesteko komunitate bat da, non gizonen

loturak sortzen dituzten eta beren diskurtsoak legitimatzen dituzten; eta, azkenik, erradikalizazioa sustatzen du, eskuin-muturraren planteamenduetarantz. Manosferaren edukiak biztanle guztientzat eskuragarri dauden arren, gure hipotesiaren abiapuntua da gazteen eta, bereziki, nerabeen artean duela inpakturik handiena (Boneta Sádaba et al., 2023). Sozializazio goiztiarreko prozesuak funtsezkoak dira nortasuna eta genero-rolak eraikitze eta ekosistema digitalak, txikitatit dagoena eskuragai, espazio mota horiekin topo egiteko aukera ematen du hasiera-hasieratik. Manosferak, halaber, gaztaroari loturiko borroka- eta asaldatzeko-irajinariorak dakartza gogora eta generoari eta maskulinitateari buruzko narrazioak matxino gisara aurkezten ditu zuzentasun politikoaren balizko hegemoniaren aurka (Stefanoni, 2021). Berdintasun-politiken eta ordezkari feministen presentzia erakundeetan gizonak kaltetzen dituen eredu baten instituzionalizazioaren adibide gisa aurkezten dira eta gazteen asaldatzekoaren ideia indartzen da, eskuin-muturraren diskurtso atzerakoia barnean eramateko berregokitua (Morán Faúndes, 2023). Funtsean, pertsona gazteenek ohiko maskulinitate hegemonikoaren narrazioak eta ereduak zergatik barneratu dituzten ulertzeko zioetako bat da komunikazio digitala.

- 3. Adin-taldearen arabera bereiztutako sozializazio-prozesuak.** CIS erakundearen datuak oinarri hartuta XX. mendearen hasieratik XXI. mendearen hasierara arte jaiotako adin-taldearen posizio ideologikoak aztertu zituen Lorente eta Sánchez-Vítóresen (2022) ikerlan batek bi joera erakusten ditu: batetik, gazteak biztanleria orokorrak baino ezkererago kokatzen direla, ideologikoki, aztertutako epealdi osoan zehar; eta, bestetik, ñabardura garrantzitsuak daudela ideologiari dagokionez, adin-taldearen arabera. Frankismoan zehar sozializatu ziren belaunaldiak ideologia-eskuinerago kokatu ziren eta trantsizioan zehar sozializatu ziren horiek, ezkererago. Joera hori diktaduraren epearen gaitzespenari eta trantsizioaren zenbait alderdiri loturiko mugari batzuen bitartez azal liteke: Francoren aurkako ikasle-mugimenduak, Frantzia 1968ko maiatzean egondako protesten eragina jaso zutenak, 1980ko hamarkadetan gertaturiko ontziolen, meatzeen edo altzairutegien itxierei loturiko auzokide-mugimenduak edo sindikatuen protestak. Honela, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan gazte zirenek ezkererago kokatzen ziren eta horiek dira, hain zuzen ere, gaur egun, ikerlan honen arabera, ohiko maskulinitate hegemonikotik urrutien kokatzen diren pertsonak. Aldi berean, eta hipotesi gisa esan genezake gaur egun feminismoaren aurkako atzera-egite bat ekarri duten osagaiak ez zeudela eztabaida publikoan sartuta iragan hamarkadetan. Ikerlan honetan zaharrenak diren adin-taldeek, ziurrenik, ez dituzte zuzenean edo intentsitate berdinarekin bizitu mugimendu feministek azken urteotan berdintasunari dagokionez lortu dituzten eraldatzeetako gehienak —esaterako, LGTBQ+ mugimenduen ikusgarritasuna eta normalizazioa, familia-eredu alternatiboen hedatzea edo adostasuna sexu-indarkeriaren aurkako legeen erdigunean kokatzea—. Pentsa daiteke eraldatze mota horien inpaktu zuzenik ez izateak (beren afektibitate- edo sexu-harremanetan, adibidez) errazago egin duela horiekiko tolerantzia handiagoa izatea. Maskulinitatearen pitzatze-prozesua murriztu egiten da eta, ondorioz, ez dago ohiko maskulinitate hegemonikora bueltatzeko beharrik, gazteagoak diren taldeetan gertatzen denaren aurka. Bestalde, nabarmendu beharra dago ere 15 eta 19 urte bitartekoak taldeak ere intentsitate askoz baxuagoarekin bizi izan dituela edo ez dituela zuzenean bizi sexu-bazterketarik edo -desberdintasunik, ez lan-eremuan ezta etxeko zereginen eta zaintzen kudeaketan ere. Inoiz lan egin ez duten edo etxeko zereginak eta zaintzak familiako beste kide batzuen esku uzten dituzten gazteek desberdintasunen inguruko kontzientzia txikiagoa izan dezakete. Gazteen Euskal Behatokiak erakutsi duenez, lan-merkatuan sartzeko orduan dagoen sexuarengatiko bazterketaren hautematea % 33,2 da 15 eta 19 urte bitartekoak artean baina % 42,2raino eta % 45,1eraino igotzen da 20-24 urtekoak taldean eta 25-29 urte bitartekoak artean, hurrenez hurren⁸. Errealitate

8 Gazteen Euskal Behatokia. 24/08/13an lortuta, hemen:
<https://www.gazteakukera.euskadi.eus/webgaz00-ovjstat/es/ae29aConsultaWar/indicadorclasificacion/consultaIndicadores/2217?locale=es>

hori ez ezagutzeak azal dezake, agian, gizonik gazteenak zergatik jotzen dituzten alferrikako edo bidegabe zenbait berdintasun-politika. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago adin-talderik zaharrenak direla egitura patriarkala erreproduzitzen jarraitzen duten botere-egiturak oraindik okupatzen eta sostengatzen dituztenak. Egungo gazteen sozializazio-testuingurua helduek zehaztu dituzten botere-egituren isla baino ez da.

KUTXAKO HIRU POSIZIOAK ETA BEREN ONDORIOAK

5.2

Maskulinitatearen kutxa, Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonak ohiko maskulinitate hegemonikoaren eta bere ondorioen aurrean nola kokatzen diren aztertzeko erabili izan dugun konstruktuko teoriko-metodologikoa da. Genero-mandatu eta -estereotipo maskulino nagusiak irudikatzen dituzten 17 baieztapen ditugu abiapuntu eta biztanleak hiru posizioen artean banatu ditugu, baieztapenekiko agertu duten adostasun-mailaren arabera. Hiru posizioetako portzentajeak dimentsionatu ostean, maskulinitate mota bat edo bestea gorpuzteak gizonen ongizatean duen eragina aztertu dugu, bai eta berdintasunari, genero-rolari eta indarkeriari buruzko balioak eta sinesmenak ere nola baldintzatzen dituen.

Kutxaren barruan: berdintasunaren aurkako militanteak

Kutxako kategoriarik problematikoena **ohiko maskulinitate hegemonikoaren genero-mandatuekin hein handiagoan identifikatzen direnena da; hau da, kutxaren barruan daudenak. Euskal Autonomia Erkidegoan, kategoria honek biztanleen % 4,5 ordezkatzeko du bakarrik (% 6,9 gizonen kasuan eta % 2,2 emakumeen kasuan)**. Portzentaje minimoak diren arren, postulatu hauek hein handiagoan barneratu dituzten profil soziodemografikoak daude: gizonik gazteenak; 15 eta 19 urte bitarteko gizonen % 22,5 kutxaren barruan dago baina beste adin-talde guztietan ez da % 10era iristen.

Maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen diren gizonen esperientziak dituzten **lehen ondorioak** da beren **ongizate-maila** besteena baino **txikiagoa** dela. Aldagai ugari aplikatu ditugu ongizatearen ideiaraino ikuspegi zabal batez gerturatu ahal izateko, ikuspegi biomedikoaz haraindi: zorion-maila, buruko osasuna, buruaz beste egiteko pentsamenduak eta joera, babes sozioemotionala, erakargarritasunaren hautematea, presio sozialaren maila eta arriskuarekiko eta indarkeriarekiko esposizioa.

- **Ez dira hain zoriontsu:** kutxaren barruko gizonen % 12,4k zorion-maila baxua adierazten du, kutxaren ertzean dauden gizonen % 8,5aren eta kutxatik at dauden gizonen % 1,9 hutsaren aurrean.
- **Buruaz beste egiteko pentsamendu gehiago:** % 32,3k aitortzen du buruaz beste egiteko aukera aztertu duela (ertzean dauden gizonen % 29,4aren eta kutxatik at dauden % 19,7aren aurrean).
- **Babes gutxiago eskatzen diete gertukoei:** arazo pertsonalak dituztenean, % 36,3k ez dio laguntza eskatzen inori; portzentaje hori % 11 ingurukoa da beste gizon guztien kasuan. % 37,1ek, halaber, dio ez dela eroso sentitzen (emakumezko zein gizonetzko) lagunekin hitz egiten.

- **Presio sozial handiagoa sentitzen dute:** presio handiagoak sentitzen dituzte aldagai guztietan, gertukoak emozionalki zaindu eta babesteari lotuta dagoen horretan salbu. Sexualitateari eta erakargarritasunari loturiko presioak nabarmentzen dira: “ligatzeko orduan aurea hartzea” (presio handia % 42arentzat), “sexuan ona izatea” (% 39,3) eta “fisikoki erakargarria izatea” (% 36,3). Beste posizioetan portzentaje horiek erdira jaisten dira ertzean daudenen kasuan eta erdiaren azpitik daude kutxatik at daudenen kasuan.
- **Esposizio handiagoa indarkeriarekiko:** besteek baino hein handiagoan hartu dute parte borroketan azken 6 hilabeteetan (kutxa barruko % 11,7, ertzean daudenen % 7,8 eta kutxatik at daudenen % 1,2); indarkeria mota guztiak gehiago pairatu eta gauzatu dituztela ere adierazten dute. Arreta indarkeria fisikoari eskainiz, % 5,8k dio maiz pairatu duela (ertzean daudenen % 1,6k eta kutxatik at daudenen % 2,4k) eta % 5,3k maiz gauzatu duela (ertzean daudenen % 3,3k eta ia inork ez kutxatik at daudenen artean).

Datu horien bidez atera daitekeen ondorioa ondokoa da: kutxaren barruan kokatzeak desoreka dakar egungo genero-harremanen eta -itxaropenen testuinguruarekiko eta horrek ondorez sakona sortzen du. Ohiko maskulinitate hegemonikoa gorpuzteko gogo oso problematikoa da egungo testuinguruan eta horrek frustrazio handia dakar eta bizitza zoriontsu eta bete bat garatzea oztopatzen du.

Datuek **salbuespen batzuk** agertzen dituzte, norberaren erakargarritasunaren eta fisikoaren autohautemateari dagokionez gehienbat, baina baita buruko osasuneko arazoei lotuta ere: bi aldagai horien kasuan, kutxa barruan kokatzen direnek besteek baino puntuazio hobe lortzen dute. Erakargarritasunari dagokionez, eta adinak kutxan eragin handia duela eta gizon gazteenak kutxaren barruan hein handiagoan kokatzen direnak direla aintzat hartuz, pentsa genezake horrek erakargarritasunari buruzko autohautematean eragin dezakeela. Gazteek ohiko edertasun-kanonei lotzen ohi diete erakargarritasuna eta, ondorioz, azalpen-alderdi nagusienetako bat izan daiteke. Buruko osasunari dagokionez, bi hipotesi osagarri planteatu ditzakegu joera horiek azaltzeko: alde batetik, beren burua kaltebera agertzeko kutxaren barruko gizonak agertzen duten errezeloen ondorioz buruko osasuneko arazoak izan dituztenik uka dezakete, oso ñimiñoak izan direla pentsatuz. Bestetik, buruko osasuneko arazoen inguruko tabuaren desagertzearen eskutik gizon askok beren existentzia aitortu nahi izan dute, gehienbat ohiko genero-mandatu maskulinoetatik urrutien daudenen kasuan.

Maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzearen **zeharkako ondorioak** gizarte orokorrean eragiten du, **ohiko genero-estereotipoetan eta -roletan oinarritutako balioak eta sinesmenak** erreproduzitzen, bereziki arriskutsuak direnak emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez. Zentzu horretan, **berdintasunaren aurkako militantzia** batez hitz egiten dugu, kutxaren barruan daudenen gizonen eta emakumeen izaera zeharo ezberdina dela barneratzen duten argudio **esentzialistak** defendatzen baitituzte eta horrek rolen banaketa azaldu eta justifikatzen du egitura eta familia patriarkalean. Emakumeak gizonak baino emozionalagoak eta ez hain arrazionalak direla dioten baieztapenak % 63,7ko adostasun-maila lortzen du, kutxaren ertzean daudenen % 37,6aren eta kutxatik at daudenen % 27,4aren aurrean, hurrenez hurren. Eta emakumeak sortzetik zaintzarako prestatuago daudela diotenak % 52,7ko adostasun-maila lortzen du (kutxaren ertzean daudenen % 36,1 eta kutxatik at daudenen % 19,7, hurrenez hurren). Ondoko bi sinesmenek, aldi berean, rolen naturalizazio hori indartzen dute: emakumeentzat bazterketarik suposatzen ez dute eta **edozein borroka feminista alferrikakoa da:** kutxaren barruan kokatzen direnen ia erdiak uste du **dagoneko emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortu dela** (% 48,7, kutxaren ertzean daudenen % 34,6aren eta kutxatik at daudenen % 19,3aren aurrean).

Azkenik, horrek ondorio argiak ditu bikote-dinamiketan eta indarkerian. Bikotearen barruan kontrola normalizatzen duten baieztapenek adostasun-maila askoz handiagoa sortzen dute, alderaketari dagokionez, kutxaren barruan dauden artean: harreman batean, une oro zure bikotekidea non dagoen jakitea merezi duzula dioen ideia (% 43,1, kutxaren ertzean dauden % 16aren eta kutxatik at dauden % 6,2aren aurrean), bikotekidearen mugikorra miaztea normala dela dioen nozioa (% 29,1, kutxaren ertzean dauden % 13,4aren eta kutxatik at dauden % 4,4aren aurrean) edo jeloskortasuna maitasunaren adierazgarri dela dioena (% 26,4, kutxaren ertzean dauden % 15,3aren eta kutxatik at dauden % 6,3aren aurrean). Arreta genero-indarkeriari eskainiz bereziki, **genero-indarkeriarik** ez dagoela eta asmakizun ideologiko bat dela dioen argudioa kutxa barruan dauden artean dago hedatuen (% 57,4, kutxaren ertzean dauden % 14,8aren eta kutxatik at dauden % 8,2aren aurrean); eta baita intentsitate baxukoa denean, indarkeria ez dela arazorik defendatzen duena ere (% 17,7, kutxaren ertzean dauden % 11,3aren eta kutxatik at dauden % 6,1aren aurrean).

Kutxaren ertzean: bitarteko posizioak eta posmatxismoa

Maskulinitatearen kutxaren ertzean kokatzen den Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen portzentajea **% 37,1 da (gizonen % 49,8 eta emakumeen % 24,2)**. Ikus daitekeenez, kategoriarik handiena da gizonen artean eta, horrenbestez, garrantzi berezia hartzen du erregistratu diren datuei arreta berezia eskaintzeak. Adin-taldeei erreparatuz, 30 urtetik beherakoen % 55 eta % 60 bitartean eta 60 urtetik gorakoak kategoria honetan kokatzen direla.

Kutxaren ertzean kokatzen direla diogunean esan nahi dugu **ezinezkoa dela jakitea etorkizunean kutxan sartuko ote diren ala ohiko maskulinitate hegemonikoaren printzipioetatik aldenduz joango diren**. Kutxa eraikitzeke erabili ditugun baieztapenen aurrean adostasun orokorra agertzen ez duten arren, ez dituzte irmoki gaitzesten ezta ere. Horrek, gizon izateak iraganean zekartzan ohiko kontzeptuetara egokitzen ez direla baina, aldi berean, maskulinitate berdinzaleen ideien edo ohiko maskulinitate hegemonikoak dakartzan osagai guztiei uko egiteko ideien aurrean erabat eroso ez daudela pentsatzera garamatza.

Oro har, kutxako kategoria honek ongizatearen autohautematean duen eragina kutxa barruan dauden eraginaren berdina da, baino intentsitate askoz txikiagoarekin. Ikusi dugun bezalaxe, **ongizate eta ondorez pertsonala neurtzeko erabili ditugun aldagai gehienetan erdibideko posizio batean kokatzen dira**: beren puntuazioa kutxaren barruan daudenena baino hobea da, baina kutxatik at daudenena baino txarragoa. Edozein kasutan, nabarmendu beharra dago lanean jarraitu beharra dagoela bitarteko posizio honetan kokatzen direnek – gehiengo gizonen artean – ohiko ereduetatik aldentzeak dakartzan abantailak identifika ditzaten, onura esanguratsuak suposatzen baitituzte beren ongizateari begira (Téllez, 2017).

Puntu honetan, **kutxaren ertzean daudenak kutxa barruan eta kutxatik at daudenengandik bereizten dituzten balioen eta sinesmenen inguruko hausnarketa bat** egin daiteke. Honela, maskulinitate berdinzaleen alde egin dezaten sakondu beharko genituzkeen alderdi horiek identifikatu ahalko ditugu.

Ikusi dugun bezalaxe, gizonen eta emakumeen rol bereziak argudio esentzialisten bidez naturalizatzen dituzten muturreko postuluak, bikotearen barruan gizonak emakumea kontrola dezan dauden estrategiak justifikatzen dituztenak, genero-indarkeria minimizatzen edo, zuzenean, ukatzen dutenak kutxaren barruan daudenek bakarrik onartzen dituzte zabalki. Halere, ertzean dauden imajinarioan sartu diren baieztapen batzuk daudela ikusi dugu.

1. Hasteko, **gizonen eta emakumeen rolen eta estereotipoen inguruan**, kutxa barrukoak ertzean daudenak baino 3 portzentaje-puntu gorago dauden bi baieztapen daude: gizonak emakumeek baino lan gogorragoak izan ohi dituztela dioen baieztapenaren aurrean, adostasun-maila % 66,2 da kutxa barruan daudenen artean eta % 62,9 ertzean daudenen artean; eta emakumeak gizonak baino maneatzailagoak direla defendatzen duen baieztapenaren kasuan, % 52,6 da kutxa barrukoaren artean eta % 49,6 ertzean daudenen artean.
2. Bigarrenez, kutxaren barruan daudenek zein ertzean daudenek **gaitzespen zabala** agertzen dute feminismoari dagokionez. Kutxa barrukoaren % 15,6k eta ertzean daudenen % 19,7k baino ez du bere burua feministatzat hartzen. Zentzu horretan, feminismoa urrutiegi joan dela eta orain gizonak diskriminatzen direla dioen argudioak % 57,9ko adostasuna lortu du kutxaren barruan daudenen artean eta % 53,4koa kutxaren ertzean daudenen artean. Nolanahi ere, kutxaren ertzean dagoen erdiak baino gehiagok (% 54,9k) uste du feminismoak gizonak eta emakumeak inplikatu behar dituela (portzentaje hori % 40,4 da kutxaren barruan daudenen artean).
3. Hirugarrenez, **bikote-harremanei** dagokionez, maitasun erromantikoari loturiko baieztapen batzuek zeharkako adostasun-maila altua lortzen dute, kutxan okupatzen den posizioa edozein dela ere. *"Mutil batek bere neska babestu behar du"* dioen baieztapenak % 65,3ko adostasuna lortzen du kutxaren barruan daudenen artean, % 57,1ekoa ertzean daudenen eta % 37,2koa kutxatik at daudenen artean; eta *"bikotekidea izateak esan nahi du erabateko dedikazioa eskaini behar zaiola beste pertsonari"* baieztapenaren kasuan % 58,7k, % 44,8k eta % 42,3k onartzen du, hurrenez hurren, kutxaren barruan, ertzean eta kutxatik at daudenen artean.
4. Azkenik, arreta **genero-indarkeriari** eskainiz, *"gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria eta emakumeek gizonen aurka erabiltzen dutena berdinak dira"* dioen baieztapenak zeharkako adostasunak ere lortzen ditu kutxako hiru posizioetan: % 39,4 barruan daudenen artean, % 42 ertzean daudenen artean eta % 41,1 kutxatik at daudenen artean. Nabarmendu beharra dago baieztapen horrek indarkeria-forma guztiak gaitzesgarriak direla defendatzen duela pentsa daitekeela, hau da, ez duela gizonak emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeriaren zioak edo ondorioak minimizatzen. Nolanahi ere, adostasun zabalak daude ere *"gizonentzat errugabetasun-presuntzioa galdu da"* dioen baieztapenaren inguruan: gehiengo handia duen adostasuna kutxaren barruan daudenen artean (/ % 76,7) baina portzentaje esanguratsuak ere ertzean daudenen (% 45,8) eta kutxatik at daudenen (% 34,7) artean.

Esploratu ditugun datuek **posmatxistak** edo **neomatxistak** deituak izan diren argudio horiek esploratzeko aukera ematen digute (Gill, 2016; Martínez-Jiménez & Zurbano-Berenguer, 2019). Argudio mota hauek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko beharraren onarpen formalean oinarritzen dira, baina politika feministek urrutiegi joan direla eta gizonak emakumeak baino egitura-posizio txarrago batean kokatu dituen testuinguru bat sortu dutela dioen ikuspegitik. Argudio horiek kutxaren barruan daudenen artean daude zabalduen baina kutxaren ertzean daudenek defendatzen dituzten postulatuak zenbaitetan ere islatuta daude. Horrexegatik, kutxaren ertzean dauden gizonen erdiak baino gehiagok (% 54,9k) uste du feminismoak gizonak inplikatu behar dituela edo gizon batek bere inguruneko pertsonari kargu hartu beharko liekeela jokabide matxistak agertzen badituzte (% 57,5) eta, aldi berean, erdiak baino gehiagok uste du "emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi garela, orain gizonak direla diskriminatuak" (% 53,4). Eta gizonentzat errugabetasun-presuntzioa galdu dela dioen ideiak izan duen adostasun-maila handia (gizon gazteen artean bereziki) ere azaltzen du (Boneta Sádaba et al., 2023). Argudio posmatxistek, maskulinitatearen kutxak ordezkatzeko dituen ohiko balio tradizionalistetara bueltatzea eskatzen ez badute ere (kutxaren barrukoak

egiten dutenaren kontra), egungo gizartean emakumeek oraindik pairatzen dituzten egiturazko desberdintasunak alderantzikatu nahi dituzten eraldatze guztien aurka egitea ahalbidetzen dute. Funtsezkoa da desberdintasun horiek mahai gainean jartzea borroka feministak legitimatzen jarraitu eta, aldi berean, maskulinitatearen pitzatzeak sor ditzakeen ondoreak artatzeko.

Kutxatik at: maskulinitate berdinzaleetatik gertu

Aztertu dugun hirugarren posizioa da **ohiko maskulinitate hegemonikotik aldentzen diren pertsonena, kutxatik at** dauden pertsonena, gehiengo, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko gizartean. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 58,4 maskulinitatearen kutxatik at dago baina portzentaje hori asko aldatzen da gizonen eta emakumeen artean: gizonen % 43,2 eta emakumeen % 73,7. Hau da, emakumeen artean gehiengo badu ere gizonen artean ez da erdira iristen eta **gizon gehiago daude ertzean, kutxatik at baino**.

Kutxatik at dauden gizonez hitz egiterakoan ohiko maskulinitate hegemonikoaren postulatuekin apurtu duten gizonez ari gara, ideia matxisten aurrean dituzten posizio kritikoengatik zein **maskulinitatearen ohiko ereduetatik jakinda aldendu direlako**. Esaterako, kutxatik at dauden gizon gehienek uste dute ez dutela zerikusi handirik egungo gizartean “gizon izateak” esan nahi duen horrekin: % 37,1ek dio ez duela apenas zerikusirik, ertzean dauden % 16,aren eta kutxa barrukoek % 5,7aren aurrean. Bestela esanda, kutxatik at dauden % 24,2k dio zerikusi handia duela gizarte honek gizonengandik espero duen ideia horrekin, ertzean dauden % 40,2aren eta kutxa barrukoek % 46aren aurrean. Ohiko maskulinitate hegemonikotik urrutien dauden gizonek —kutxatik at daudenak—, ohiko postulatuekin apurtzeaz gain, apurketa horretaz jakitun dira eta aipatu postulatuak gaitzesten dituzte.

Kutxatik at egotearen eta **genero-rol, feminismo, bikote-harreman edo genero-indarkeriaren inguruko iritzien** arteko harremana aztertzen denean gai horiek kritikatu eta arazo bihurtzeko joera nabaria ikusten da.

1. Hasteko, eta oro har, kutxatik at dauden gizonek **genero-rol** buruzko ohiko ideiak gaitzesten dituzte (esaterako, emakumeak gizonak baino maneatzailagoak direla, emozionalagoak eta ez hain arrazionalak direla edo seme-alabak zaintzeko prestatuago daudela sortzetik) eta, aldi berean, ados ageri dira ondokoa bezalako gaien aurrean: “gizonek beren kalteberatasuna eta afektibitatea agertzen ikasi behar dute” (% 61,9 ados dago eta portzentaje hori % 31,8 da kutxa barrukoek artean eta % 39,3 kutxaren ertzean dauden artean).
2. **Feminismoari** buruzko ikuspegiari dagokionez, kutxatik at dauden gizonen artean antzeko portzentajea agertzen dute beren burua feministatzat jotzen dutenek (% 43) eta ez dutenek (% 42,2), beste gizonek baino jarrerak askoz feministagoak agertuz (% 20tik behera ertzean eta barruan dauden artean). Posizionamendu horiek, baina, argiago daude feminismoaren garrantzia eta feminismoak gizonak eta emakumeak inplikatu behar dituela mahai gainean jartzen direnean (kutxatik at dauden gehiengoak babesten dituen baieztapenak): % 81,9k uste du “feminismoak emakumeak eta gizonak inplikatu behar dituela,” % 76,3k “gizon batek bere inguruneke pertsonen kargu hartu beharko liekeela jokabide matxistak agertzen badituzte” eta % 52,1ek “feminismoa beharrezkoa dela gizonen eta emakumeen berdintasun erreala lortzeko”.
3. Kutxatik at dauden gizonek era independenteagoan ulertzen dituzte **bikote-harremanak**, hau da, bikoteek dependentzia gutxiago sortu behar dituztela, bikotekideek beren espazio propioa izan behar dutela eta bikotekidea ez dutela kontrolatu behar, etab., uste dute.

Kutxatik at daudenen % 80,3k, adibidez, uste du bikote batean ezinbestekoa dela bakoitzak espazio propioa eta indibiduala izatea, beste gizonen artean ere adostasun handia lortzen duen baieztapena, baino askoz txikiagoa (% 57 kutxa barrukoaren artean eta % 63 kutxaren ertzean daudenen artean). Eta alderantziz, kutxatik at daudenen % 6,2k bakarrik uste du “une oro zure bikotekidea non dagoen jakitea merezi duzula”, kutxa barruan daudenen % 43,1aren eta kutxaren ertzean daudenen % 16,9aren aurrean.

4. **Genero-indarkeriari** dagokionez, kutxatik at dauden gizonek argi eta garbi gaitzesten dute eta arazo bat dela adierazten dute. Horrek esan nahi du kontrako posizioan daudela kutxaren barruko gizonetako. Kutxatik at daudenen % 87,5ek uste du “genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela” (ertzean daudenen % 66,8k eta kutxa barrukoaren % 20,4k). Kutxatik at daudenek, halaber, genero-indarkeria asmakizun ideologiko bat dela edo intentsitate baxukoa bada onargarria izan daitekeela dioten baieztapenak argi eta garbi gaitzesten dituzte.

Ikerlan honetan, maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen bizitzetan duen eragina ikusi ahal izan dugu: normalean, egoera pertsonal zailagoak edo problematikoagoak adierazten ditu. **Egoera pertsonalaren eta kutxako posizioaren arteko harreman** hori kutxatik at dauden gizonetako erreparatzean ere geratzen da agerian. Oro har, esan genezake ohiko maskulinitate hegemonikotik urrutien dauden gizonetako gogobetetasun eta ongizate sozioemozionaleko maila handiagoak agertzen dituztela. **Zorion-maila altuak** aitortzen dituzte, adibidez, zoritxarrekoak direla dioten gizonen proportzio baxuagatik bereziki. Horrez gain, **babes sozioemozional handiagoa** dute. Alde batetik, arazo pertsonalen bat dutenean gertukoaren laguntza eskatzen dutela hein handiagoan adierazi dute: kutxatik at dauden gizonen % 11,1ek bakarrik ez du inoren laguntza eskatzen (ertzean daudenen % 11,8aren eta kutxa barrukoaren % 36,3aren aurrean). Eta, bestetik, kutxatik at dauden gizon gehienek aitortzen dute eroso sentitzen direla (gizonetako zein emakumetako) lagunekin gai pertsonalez edo emozionalez hitz egiten, kutxaren barruan daudenek baino hein askoz handiago batean: % 12,6k bakarrik dio ez dagoela eroso gai horiez lagunekin hitz egiten (ertzean daudenen % 22,6k eta kutxa barrukoaren % 37,1ek). Deigarria da ere bikotekidean eta emakumetako lagunetan konfiantza handiagoa dutela. Horrek esan nahi du **emakumeengandik gertuago daudela** hitz egin, esperientziak partekatu, laguntza eskatu eta abarrerako.

Buruko osasuna funtsezko beste alderdi bat da testuinguru honetan. Espainia osorako egin zen maskulinitatearen kutxaren ikerlanean (Sanmartín Ortí et al., 2022) ikusi ahal izan zenez alde esanguratsuak zeuden, buruko osasuneko arazoei aurre egiteko orduan, kutxako posizioaren arabera. Ondorio nagusia ondokoa izan zen: **kutxa barruko gizonetako arazo eta gaitz psikologikoak pairatzeko joera handiagoa zutela, eta buruaz beste egiteko ideiak askoz arruntagoak zirela beren artean. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko emaitzak zertxobait ezberdinak dira, ez baitago alde handirik arazo psikologikoak izateari edo ez izateari dagokionez**; izan ere, intzidentzia apur bat handiagoa ikus daiteke kutxatik at daudenen artean. Buruaz beste egiteko ideiei dagokionez Espainia osoan ikusitako joera hori, ordea, errepikatu egiten da, ideia mota horren prebalentzia askoz txikiagoa baita kutxatik at dauden euskal gizonen artean: % 19,8k noizbait izan ditu ideia horiek, ertzean daudenen % 29,3aren eta kutxaren barruan daudenen % 32,3aren aurrean.

Nola edo hala, buruko osasuna banakoek sentitzen duten **presio sozialari** lotua egon daiteke eta, zentzu horretan, **ohiko maskulinitate hegemonikotik urrutien dauden gizonetako presio sozial gutxiago sentitzen dutela ikus dezakegu**. Kutxako posizioak inolako eraginik ez duen alderdi bakar bat dago gizonen kasuan: lanean edo ikasketetan arrakasta izateko presio soziala; eta kutxatik at daudenen zatirik presio handiagoa suposatzen duen adierazle bakar bat dago: besteak emozionalki zaintzeko eta babesteko beharra.

Azkenik, kutxatik at dauden gizonen egoera beste gizonen horrekin alderatu ahal izateko garrantzi handiko beste alderdi bat da **arriskuekiko** eta, zehazki, **indarkeriarekiko esposizioa**. Alde batetik, kutxatik at dauden gizonak kutxa barruko harremanaren antzekoa agertzen dute arriskuei dagokienez eta gidatzeko, drogak hartzeko edo sexu-praktika arriskutsuak izateko orduan praktika arriskutsu gehiago egiten ohi dituzte. Kutxatik at dauden gizonak, baina, **argi eta garbi uko egiten diote indarkeriari** eta horrek alde nabarmena markatzen du kutxaren barruan eta ertzean daudenekiko. Ohiko maskulinitate hegemonikotik urrun dauden gizonak gutxiago borrokatzen dute eta indarkeria gutxiago pairatzen eta gauzatzen dute.

AZKEN HAUSNARKETAK

5.3

Txosten honen emaitzek maskulinitateen inguruko ikerketetan sakontzen jarraitzeko beharra agerian utzi du, maiztasuna eta luzetarako analisiak ziurtatuz eta adin-tarte ezberdinen jarrerak konplexuago eginaz laginak areagotzearen bidez. Ikerlana ixteko, lorturiko ikaskuntza nagusietako zenbait nabarmendu nahi ditugu, bai eta gure begirada maskulinitatearen inguruko ikerlanen etorkizunean jarri ere.

Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen datuak, 2022an Espainia osoan maskulinitatearen kutxari buruz egin zen txostenaren datuak eta Valentziako Komunitateko biztanleen datuak (2022) alderatu nahi ditugu. Hiru kasuetan, metodologia-erreminta berbera erabili da maskulinitatea nola eraikitzen eta gorpuzten den aztertzeko eta, ondorioz, elkarrengandik urruntzen diren joera batzuk azter ditzakegu lurraldeen artean eta, bereziki, luzera-mailan. Kontuan izan beharra dago, halere, ikerketak epe ezberdinetan eta lagin ezberdinekin egin direla eta, horrenbestez, ez direla estatistikoki alderagarriak eta seinالاتu dezakegun gauza bakarra dira hausnartzera gonbidatzen gaituzten zenbait joera. Lehen bi ikerketetan, halaber, gai hau 15 eta 29 urte bitarteko biztanleekin landu ziren soil-soilik; ikerketa honekin egindako alderatzeak, honela, adin-tarte hori ere izan behako luke aintzat. Maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen diren gizon gazteen artean ikusi diren aldeak deigarriak dira: Valentziako Komunitatearen kasuan, % 18,5, Espainia osoan % 14 eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, % 11,1. Ikus daitekeen bezalaxe, ohiko maskulinitate hegemonikoarekin bat egiten duten gazteen portzentajea zertxobait txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan. Gainontzean, txosten honetan hauteman diren joerak aurrekoetan detektatu ziren horien oso antzekoak dira: maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen direnak besteek baino emaitza kaskarragoak lortzen dituzte osasuna eta ongizatea neurtzeko erabili diren aldagaietan eta, aldi berean, askoz ere kontserbadoreagoak dira generoaren inguruko beren jarreretan.

Bigarrenez, Eranskinaren 8.2 atalean islatu diren alde soziodemografiko nagusietako zenbait azpimarratu nahi ditugu. Ezinezkoa izango litzateke txostenean zehar estatistikoki esanguratsuak diren profil demografikoak sakontasunez aztertzea horren tamaina ikusita. Hemen ordea, ohiko maskulinitate hegemonikoarekiko gertutasun-mailan eragin argia duten zenbait faktore azal ditzakegu. Sexuaz eta adinaz aparte (ikusi dugun bezalaxe, gizonak eta adin-talderik gazteena hein askoz handiagoan kokatzen dituzte kutxaren barruan; % 6,9 eta % 6,8, hurrenez hurren), estatistikoki esanguratsuak diren beste osagai batzuk ere badaude: gurasoekin oraindik bizi direnen % 10,5, inoiz bikotekiderik izan ez duten % 14,3 eta langabezia-egoeran daudenen % 8,4 maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen dira. Hiru aldagai horiek adin-taldearekin lotu ditzakegu ere; izan ere, gazteenen artean askoz ohikoagoa baita gurasoekin bizitzea eta bikotekiderik edo lanik ez izatea. Azkenik, iritzi politikoa eta erlijio-sinesmenak ere erabakigarriak dira: eskuin ideologikoan kokatzen direnen % 11,5 eta oso fededun direla dioten % 8,2 maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen dira. Eskuin politikotik eta erlijio-erakundeetatik posizio tradizionalistak defendatzeko dagoen joerak ohiko maskulinitate hegemonikoa mantentzen laguntzen du.

Hirugarrenez, maskulinitateak aztertzeko orduan aintzat hartu beharreko aldibereko eta aurkako bi joera azpimarratu nahi ditugu:

- Alde batetik, **adostasun-maila handiak daude adin-tarte guztietan, eta gizonen zein emakumeen artean, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balioaren eta ohiko genero-estereotipo eta -mandatuekin apurtzeak duen garrantziaren inguruan**. Horren adierazle dira maskulinitatearen kutxaren barruan kokatzen diren portzentaje txikiak (% 4,5 baino ez, kutxatik aldentzen direnen % 58,4aren aurrean). Aldi berean, adierazitako balioak eta sinesmenak aintzat hartuz, % 55,9k dio gizonak beren kalteberatasuna eta afektibitatea agertzen ikasi behar dutela, 10etik 7k diote feminismoak gizonak eta emakumeak inplikatu behar dituela eta gizon batek bere inguruneke pertsona kargu hartu beharko liekeela jokabide matxistak agertzen badituzte; % 74,7k uste du espazio propioak egon behar dutela bikote-harremanetan eta % 80,3k adierazten du genero-indarkeria gizarte-arazo oso larria dela. Funtsezkoa da datu horiek guztiak aintzat hartzea maskulinitatearen ikerlanarekiko edozein gerturatze planteatzerakoan eta txosten honen komunikazio-tratamendua egiterakoan. Aldi berean, garrantzitsua da mugimendu feministen eta feministak ez direla aitortzen duten pertsonen portzentajeen inguruko hausnarketa konplexuagoa egitea, beren aniztasuna aintzat hartuz. Gizonak genero-berdintasuna defendatu behar dutela baina beren burua feministatzat ez luketela hartu behar (emakumeak ikusezin egingo dituzten espazioak okupatuko dituztelako) aldarrikatzen duten feminismoaren adarrak daude. Bestetik, ezinbestekoa da desinformazioa, biztanleriaren sektore ugarian feminismoari buruz dagoen ezagutza eza kontuan hartzea. Berdintasun-politikak defendatu arren, feministak ez direla (terminoaren esanahia jakiten ez dutelako) dioten profilak daude.
- Bestetik, ukaezina da **ohiko maskulinitate hegemonikoari buruzko diskurtsoa berrartikulatzen ari dela, maskulinitatearen kutxaren eredia edo horren zenbait zati aukera erakargarri gisara aurkeztuz**, gizon gazteetarako bereziki, baina baita beste profil batzuetarako ere. Esan den bezalaxe, joera hori azaltzen duten alderdi nagusiak ondokoak dira: argudio posmatxistak, tradizionalismora bueltatzea prekaritatearen aurkako erantzun gisa eta narrazio misoginoen eta feminismoaren aurkako narrazioen hedatzea egungo komunikazio-ekosistema digitalean. Testuinguru sozioekonomiko neoliberal garaikidean, meritokraziaren eta indibidualismoaren logika gazteen imaginarioan sartu da, banakoaren erantzukizunean oinarritutako arrakasta pertsonala azaltzeko mantra gisa; hau da, literaturan “subjektu neoliberal” deitu izan ohi dena (Chul Han, 2017; Laval & Dardot, 2013; Pavón-Cuéllar, 2017). Esparru horretatik, gizon gazteek egiten duten kalkulu arrazionala da familia-eredu patriarkalak abantaila handiak suposatzen dituela gizonaren garapen profesionalerako. Ordainsaririk jaso gabe etxeko zereginez eta zaintzez arduratuko den pertsona bat izateak bitarteko material eta denbora-bitarteko ezberdinak libre uzten ditu, gizonaren garapen pertsonala erraztuko dutenak. Nolanahi ere, gizonen eta emakumeen inguruko berdintasunaren defentsa formal batetik abiatzen denez genero-rolak naturalizatzen dituzten argudioak gehitzen dira, egikizun eta espazioen banaketa desorekatua justifikatuz honela (Calarco, 2024). Azken finean, egokitze-aldaketa bat egon da gizonen artean, subjektu neoliberalaren eta beren buruaren gaineko gobernuaren logikatik egitura patriarkala betikotzeko aukera ematen dieten argudioak barneratuz berdintasuna formalki defendatzen duten bitartean (Ramos Pérez, 2024). Bereziki kezkarria dena ondokoa da: **diskurtso horietako zenbait osagai, maskulinitatearen kutxan kokatu diren pertsonengan sartzeaz gain, horren ertzean edo kutxatik at dauden pertsonengan ere sartu direla, eta gizonengan zein emakumeengan gainera**. Horren adierazle dira esparru posmatxistaren barruan dauden baieztapen guztiak, **gizonak modu batean edo bestean desabantaila-posizio batean kokatzen dituztenak egungo gizarte**an: % 36,7k uste du emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi garenez, orain gizonak direla diskriminatuak, % 44,2k gizonak emakumeek baino lan

gogorragoak izaten ohi dituztela eta % 34,8k errugabetasun-presuntzioa galdu dela gizonentzat. Kasu horietan guztietan, kuxaren barruko gizonak dira adostasun-mailarik handiena agertzen dutenak baina kuxako beste posizioekiko eta emakumeen datuekiko aldeak ez dira handiegiak. Aldi berean, eta joera berdinarekin, **maitasun erromantikoaren nozioa** idealizatzen dituzten baieztapenak oso hedatuta eta onartuta daude, honako hauek esaterako: mutil batek bere neska babestu behar du (% 41,8ko adostasuna) edo bikotekidea izateak esan nahi du erabateko dedikazioa eskaini behar zaiola beste pertsonari (% 36,3ko adostasuna).

Azkenik, maskulinitateen etorkizunari eskainiko diogu arreta, ikerketaren ikuspegitik zein eraldatze-gogo batekin. Nabaria da **genero-sozializazio bereizgarriak** inpaktu garrantzitsua duela maskulinitatearen eraikuntzan eta gorpuztean. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erdia baino gehiago “benetako gizon batek” portaera zehatz bat izan behar duela sinistuz hazi da (% 55,1) eta portzentaje hori % 78,8raino igotzen da maskulinitatearen kuxaren barruan kokatzen diren gizonen artean. Datu horiek erakusten dutenez, **ezinbestekoa da oraindik gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balioa nabarmendu eta bizi dugun gizarte patriarkalaren egiturazko desberdintasunak testuinguruan kokatuko dituzten sexu- eta afektibitate-hezkuntzako ereduak** hezkuntza-maila guztietan (formalak zein ez formalak) **ezartzea eta hedatzea**. Nolanahi ere, gai hori landu duten proiektuak agerian utzi dutenez, mezu mota horiek helarazteko erronka handia da. Gazteekin hitz egitean bereziki, genero-desberdintasunen inguruan hitz egiteko neke edo interes falta moduko bat sumatzen da, beren ustez desberdintasun horien alderdirik larrienak dagoeneko desagertuta baitaude. Elisabeth Kelani (2009) jarraiki, genero-nekeaz edo «*gender fatigue*» delakoaz hitz egin genezake. Joera hori alderantzikatzeke, Centro Reina Sofía de Fad Juventud iraganean egin dituen lanetatik (Boneta-Sádaba et al., 2023; García-Mingo & Díaz-Fernández, 2022) ateratako honako gomendio hauek egin ditzakegu:

- **Komunikazio-estrategiak.** Hierarkiarik gabeko eztabaida-espazioak sortzea, feminismoaren aurkako argudioen eta argudio misoginoen aurkako narrazioak sor daitezzen parte hartu duten pertsonetatik. Ingurune mota hau funtzionala izan dadin dauden erronka nagusiak dira elkarren arteko errespetuko eta konfiantzazko harremanak sortzeko beharra eta bitartekaritza- eta dinamizazio-lan egoki bat bermatzea, itxita dauden eztabaidak bideratu ahal izateko eta informazio faltsuak oinarri izan ditzaketen balizko argudioak mugatzeko. Bereziki eraginkorra den estrategia bat da benetako edo gertuko narrazioetatik edo esperientzietatik hastera, estatistika-datuak erabili ordez argudioak berresteko. Narrazio- eta biografia-teknikak erabiltzeak enpatia-erapena eta egiturazko arazoaren eta zuzenean bizitutako errealitatearen arteko konexioa errazten ditu. Komunikazio-estrategia horiek egokiro aplikatzeko, ezinbestekoa da genero-gaien inguruko esku-hartzeen eta komunikazio-kanpainen egokitasuna eta inpaktua ebaluatzea, abiatutako ekimenek okerreko erreakzioa sor ez dezaten gizonen artean.
- **Alfabetatze mediatikoa eta digitala.** Ikerketa ugarik argudio misoginoen eta feminismoaren aurkako argudioen hedatzean eta barneratzean espazio digitalak izan duen paper garrantzia aztertuta dute. Horrenbestez, nahitaezkoa da errealitate horri ez ikusiarena ez egitea. Umorearen eta memetikaren bitartez gehienbat, erraz asko hedatzen dira hasiera batean muturreko edo ultratzat joko genituzkeen mezuak, azkenean normalizatu daitezkeenak ere. Manosferaren efektuak indargabetzeko garrantzitsua da bere funtzionamendua ulertzea, zer nolako lengoaiak eta argudioak erabiltzen dituen esploratzea eta aurkako narrazioen eraikuntzan txertatzen saiatzea. Aldi berean, ezinbestekoa da ulertzea online-portaera batzuek ikusgarri egin ditzaketela eduki misoginoak, nahi gabe. Bilatzaileen eta sare sozialen algoritmoek arreta lortuko duten edukiak (erreakzioen edo iruzkinen eskutik, partekatuak izateko aukera asko dituztelako edo eduki zehatz batzuetara sarbidea ematen dutelako) lehenesten dituzte; funtsezkoa da gorrotoaren monetizazioaren kontziente izatea eta aipatua minimizatzen saiatzea.

- **Maskulinitateen ikuspegia.** Hezkuntzako edo gizarte esku-hartzerako edozein estrategiatan garrantzitsua da emakumeek gizarte patriarkalean pairatzen dituzten egiturazko bazterketak eta gizonak dituzten pribilegioak testuinguruan kokatzea. Nolanahi ere, garrantzitsua da ere kultura patriarkalak gizonak sortzen dizkien ondoreak eta genero maskulinoko mandatuei loturiko presio sozialak (kaltebera ez agertzea, une oro sexualki aktibo gisa agertu behar izatea eta zisheteronormatibitatearen aurkako iritziak emateko ezintasuna) jorratzea. Ohiko maskulinitate hegemonikoak gizonak pribilegiozko posizio batean kokatzen ditu baina, aldi berean, beste maskulinitate bat adierazteko askatasuna mugatzen du eta horrek haserre sakonak sortzen ditu. Ildo horretatik, garrantzitsua da gizonen ziurtasun-gabeziei erantzutea eta manosferak sor ditzakeen espazioetatik urrun egongo diren babes-komunitateak bermatuko dituzten beste espazio batzuk sortzea. Eta, zentzu horretan, Ramos Pérezen (2024) proposamenak oso interesgarriak dira: maskulinitateak irudimen-dosi handiak aplikatuz eraldatzen saiatzea, kalteberatasuna erabiliz maskulinitate-praktika alternatiboak sortzeko gune gisa, bai eta zaintzak erabiliz ere maskulinitateak birsortzeko potentzial handia duen eremu gisa; edo porrotaz baliatuz ere munduan egoteko beste modu batzuk bideratzeko baliabide gisa. Bereziki garrantzitsua da gizon gazte zisheterosexualen genero-mandatuek sortzen dituzten haserre maskulinoak lantzea gizon horiekin lan egiterakoan. Exekutaturiko pedagogia-estrategiak gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasunak agerian uztera mugatzen badira, gizon gazte askok pairatzen dituzten prekarietatea eta kalteberatasuna eta genero-mandatuek aipatu gazteak nola baldintzatzen, mugatzen eta exijitzen dituzten jorratu gabe, emaitza kaltegarria izan daiteke. Zentzu horretan, funtsezkoa izango da klase-osagaia (eta bizi den kalteberatasun-mailan eragin dezakeen beste edozein ezaugarri) aintzat hartuko duen sekzio arteko ikuspegi bat aplikatzea.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko estrategia horiez gain, **oso garrantzitsua izango da nabarmentzea maskulinitatearen artikulazio berria, egungo testuinguruan, ezinezkoa izango dela bere burua gobernatzen duen eta, ondorioz, bere gogoa gertukoei inposatzen dien “subjektu neoliberalari” loturiko mitologiaren zabaltzerik gabe.** Garrantzitsua da esfortzu pertsonalaren eta meritokraziaren ideala andeatzen duten egiturazko desberdintasun ekonomikoen existentzia biztanleei, eta bereziki biztanle gazteenei, helaraztea (sekzio arteko ikuspegi bat aplikatuz); familia-eredu patriarkal baten alde egiteak kimera baten atzetik ibiltzea suposatzen duela biztanle gehienentzat eta horren aurkako erantzunak ezin duela izan frustrazioa edo emakumeen edo feminismoaren aurka erasotzea, eredu sozioekonomikoa ezbaian jartzea baizik. Funtsean, prekarietatea eta gazteen prekarietatea bereziki murriztea berebiziko garrantzia duen bide bat da gizonak zein emakumeak beren maskulinitatea eta beren feminitatea askatasunez adierazteko gai izan daitezen, berdintasunaren balioaren inguruko adostasuna abiapuntutzat hartuta.

6

ERREFERENTZIAK

- Ballesteros, J. C., Rubio, A., Sanmartín, A., & Tudela, P. (2019). *Barómetro Juventud y Género 2019. Identidades y representaciones en una realidad social compleja*. Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud, Fad. <https://doi.org/10.5281/zenodo.3337953>
- Ballesteros, J. C., Sanmartín, A., & Tudela, P. (2017). *Barómetro Juventud y Género 2017*. Fad Juventud. <https://doi.org/10.5281/zenodo.3531923>
- Barboza, I. G. (2016). *El hombre a la razón y la mujer al corazón: el sexo y el género según Immanuel Kant*. May. http://www.scielo.org.bo/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S2306-86712016000200008&lng=es&nrm=iso&tlng=es
- Boneta-Sádaba, N., Tomás-Forte, S., & García-Mingo, E. (2023). *Culpables hasta que se demuestre lo contrario. Percepciones y discursos de adolescentes españoles sobre masculinidades y violencia de género*. Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud, Fundación Fad Juventud. <https://doi.org/10.5281/zenodo.7797449>
- Bonino, L. (2002). *Masculinidad hegemónica e identidad masculina*. Dossiers feministes, 6, 7-35.
- Butler, J. (1988). *Performative Acts and Gender Constitution: An Essay in Phenomenology and Feminist Theory*. Theatre Journal, 40(4), 519–531. <https://doi.org/10.2307/3207893>
- Butler, J. (2001). *El género en disputa*. Buenos Aires, Argentina: Paidós.
- Calarco, J. (2024). *Holding It Together. How Women Became America's Safety Net*. Nueva York, NY: Portfolio / Penguin Random House.
- Campbell, R., May, G., Duffy, B., Skinner, G., Gottfried, G., & Hewlett, K. (2024). *Emerging tensions? How younger generations are dividing on masculinity and gender equality*. <https://doi.org/10.18742/pub01-167>
- Cantos Vicent, R., & Roche Alonso, N. (2018). *Como Dios manda: modelos ideales de mujer y hombre*.
- Chul Han, B. (2017). *La sociedad del cansancio*. Barcelona, España: Editorial Herder.
- Connell, R. (2003). *Masculinidades. Ciudad de México, México: Universidad Autónoma de México*.
- Connell, R. W. (1987). *Gender and power: Society, the person and sexual politics*. Stanford, CA: Stanford University Press.
- Domínguez, J., & Otero, J. (2018). *Guía didáctica Construyendo feminidades y masculinidades alternativas, diversas e igualitarias*. UNESCO. https://www.unescoetxea.org/dokumentuak/guia_fem.pdf
- Edwards, T. (2006). *Cultures of masculinity*. Londres, Inglaterra: Routledge.
- Feather, N. T. (1977). *Value importance, conservatism, and age*. European Journal of Social Psychology, 7(2), 241–245. <https://doi.org/10.1002/ejsp.2420070209>
- García García, A. (2010). *Exponiendo hombría. Los circuitos de la hipermasculinidad en la configuración de prácticas sexistas entre varones adolescentes*. Revista de Estudios de Juventud, 3(89), 59–78. <http://www.injuve.es/contenidos.downloadaction?id=126112574>
- García García, A. (2008). *¿Qué le pasa a los hombres? A propósito de las dinámicas identitarias masculinas en la modernidad tardía*. Arxius de Ciències Socials, 19, 41–52.

- García-Mingo, E., & Díaz-Fernández, S. (2022). *Jóvenes en la Manosfera. Influencia de la misoginia digital en la percepción que tienen los hombres jóvenes de la violencia sexual*. Centro Reina Sofía de Fad Juventud. <https://doi.org/10.5281/zenodo.7221159>
- García-Mingo, E., Fernández, S. D., & Tomás-Forte, S. (2022). *(Re)configurando el imaginario sobre la violencia sexual desde el antifeminismo: el trabajo ideológico de la manosfera española*. *Política y Sociedad*, 59(1). <https://doi.org/10.5209/poso.80369>
- Gill, R. (2016). *Post-postfeminism?: new feminist visibilities in postfeminist times*. *Feminist Media Studies*, 16(4), 610–630. <https://doi.org/10.1080/14680777.2016.1193293>
- Glenn, N. D. (1974). *Aging and Conservatism*. *Annals of the American Academy of Political and Social Science*, 415, 176–186.
- González-Gabaldón, B. (1998). *Los estereotipos como factor de socialización en el género*. *Comunicar*, 6(12), 79–88. <https://doi.org/10.3916/C12-1999-12>
- Heilman, B., Barker, G., & Harrison, A. (2017). *La caja de la masculinidad: un estudio sobre lo que significa ser hombre joven en Estados Unidos, el Reino Unido y México*. Washington DC y Londres, Inglaterra: Promundo-US y Unilever.
- Ipsos. (2024). International Women's Day 2024. Global attitudes towards women's leadership. <https://www.ipsos.com/en-us/millennials-and-gen-z-less-favour-gender-equality-older-generations>
- Kelan, E. K. (2009). *Gender fatigue: The ideological dilemma of gender neutrality and discrimination in organizations*. *Canadian Journal of Administrative Sciences*, 26(3), 197–210. <https://doi.org/10.1002/cjas.106>
- Kuric, S., Megías, I., Sanmartín, A., & Gómez, A. (2023). *Masculinidades juveniles en la Comunidad Valenciana. Procesos de construcción identitaria y percepciones sobre la masculinidad*. Madrid, España: Centro Reina Sofía de Fad Juventud.
- Laval, C., & Dardot, P. (2013). *La nueva razón del mundo. Ensayo sobre la sociedad neoliberal*. Barcelona, España: Gedisa.
- Lorente, J. (2019). *Los jóvenes y la división izquierda-derecha en Europa en los últimos treinta años: generaciones y voto*. Madrid, España: Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Lorente, J., & Sánchez-Vitores, I. (2022). *¿Giran a la derecha? La ideología de los jóvenes españoles desde la consolidación de la democracia hasta hoy*. *Revista Internacional de Pensamiento Político*, 17(1), 117–134. <https://doi.org/10.46661/revintpensampolit.7501>
- Martínez-Jiménez, L., & Zurbano-Berenguer, B. (2019). *Posmachismo, violencia de género y dinámicas de opinión en los cibermedios*. Aproximaciones a la realidad española a partir de la experiencia de eldiario.es. *Teknokultura. Revista de Cultura Digital y Movimientos Sociales*, 16(2), 213–228. <https://doi.org/10.5209/tekn.65173>
- Mears, A. (2018). *Fashion and Its Gendered Agendas*. In F. F. Wherry & I. Woodward (Eds.), *The Oxford Handbook of Consumption* (pp. 412–425). Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780190695583.013.27>
- Megías, E., Rodríguez, E., Ballesteros, J. C., Sanmartín, A., & Calderón, D. (2021). *Género, vivencias y percepciones sobre la salud: Informe de resultados*. Madrid, España: Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud, Fundación Fad Juventud.

- Messner, M. A. (1998). *The limits of "the male sex role": An analysis of the men's liberation and men's rights movements' discourse*. *Gender and Society*, 12(3), 255–276. <https://doi.org/10.1177/0891243298012003002>
- Morán Faúndes, J. M. (2023). *¿Cómo cautiva a la juventud el neoconservadurismo? Rebeldía, formación e influencers de extrema derecha en Latinoamérica*. *Methadods Revista de Ciencias Sociales*, 11(1), m231101-a05. <https://doi.org/10.17502/mrcs.v11i1.649>
- Moreno-Mínguez, A., López Peláez, A., & Segado Sánchez-Cabezudo, S. (2012). *La transición de los jóvenes a la vida adulta. Crisis económica y emancipación tardía*. Barcelona, España: Obra Social "la Caixa". Colección Estudios Sociales. Núm. 34. https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/27/transicion_jovenes_vida_adulta.pdf
- Narayan, C. (2008). *Is there a double standard of aging?: Older men and women and ageism*. *Educational Gerontology*, 34(9), 782–787. <https://doi.org/10.1080/03601270802042123>
- Pavón-Cuéllar, D. (2017). *Subjetividad y psicología en el capitalismo neoliberal*. *Psicología Política*, 17(40), 589–607.
- Ramos Pérez, A. (2024). *Perforar las Masculinidades*. Barcelona, España: Ediciones Bellaterra.
- Ranea Triviño, B. (2021). *Desarmar la masculinidad. Los hombres ante la era del feminismo*. Madrid, España: La Catarata.
- Rodríguez-del-Pino, J. A., Erika, M. R., & Sanjuan, M. E. G. (2021). *Moldear hombres. Juventud y representación de las masculinidades en la sociedad actual*. Barcelona, España: Ikaria Editorial S.A.
- Rodriguez, E., Calderón, D., Kuric, S., & Sanmartín, A. (2021). *Barómetro Juventud y Género 2021. Identidades, representaciones y experiencias en una realidad social compleja*. Madrid, España: Centro Reina Sofía sobre Adolescencia y Juventud, Fad. <https://doi.org/10.5281/zenodo.5205628>
- Sanmartín Ortí, A., Gómez Miguel, A., Kuric Kardelis, S., & Rodríguez, E. (2024). *Barómetro Juventud y Género 2023*. Madrid, España: Centro Reina Sofía de Fad Juventud. <https://doi.org/10.5281/zenodo.10144131>
- Sanmartín Ortí, A., Kuric Kardelis, S., & Gómez Miguel, A. (2022). *La caja de la masculinidad: construcción, actitudes e impacto en la juventud española*. Madrid, España: Centro Reina Sofía sobre adolescencia y juventud, Fundación Fad Juventud. <https://doi.org/10.5281/zenodo.7319236>
- Stefanoni, P. (2021). *¿La rebeldía se volvió de derecha?* Ciudad de México, México: Siglo XXI.
- Téllez, A. (2017). *Sobre cómo el machismo perjudica a los hombres*. In *Igualdad de género e identidad masculina* (pp. 6–21). Elche, España: Universidad Miguel Hernández.
- Wiegman, R. (2012). *Object lessons*. Durham, NC: Duke University Press.


7

ERANSKINAK



LAGINAREN EZAUGARRIAK

7.1



SEXUA




ADIN-TALDEAK





IKASKETA-MAILA




JARDUERA




BIZIKIDETZA MOTA




BITARTEKO MATERIALIK EZA




GIZARTE-KLASEA (NORBERAREN IRITZIZ)




ERLIJIOSITATEA





IDEOLOGIA





SEXU-ORIENTAZIOA




BIKOTEKIDEA



PROBINTZIA



HABITATAREN TAMAINA



MASKULINITATEAREN
KUTXAKO PROFIL
SOZIODEMOGRAFIKOAK

7.2

Atal honetan **maskulinitatearen kutxaren emaitzak aurkezten dira, aldagai soziodemografiko nagusienekin gurutzatuta**, eta Pearsonen khi karratu (χ^2) frogaren arabera estatistikoki esanguratsuak diren aldeak gehitu dira.


2. TAULA. Maskulinitatearen kutxarekiko posizioak eta eskala. 15-65 urte bitarteko biztanleak; aldagai soziodemografiko nagusiak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (batezbestekoa; 1-4 eskala) (%)

MASKULINITATEAREN KUTXAREN ESKALA					
		n	x- (media)	Kutxaren barruan	Kutxaren ertzean Kutxatik at
GLOBALA		1.252	1,53	4,5	37,1
SEXUA *	Gizonak	627	1,68	6,9	49,8
	Emakumeak	624	1,38	2,2	24,2
ADINA *	15-29 urte	263	1,64	6,8	44,4
	30-49 urte	535	1,53	6,2	35,4
	50-65 urte	454	1,46	1,3	34,8
					63,9
IKASKETA-MAILA *	Derrigorrezko bigarren hezkuntza edo beherago	311	1,62	5,6	42,1
	Derrigorrezkoen ondoko bigarren hezkuntza	300	1,55	4,2	41,5
	Goi-mailakoak	635	1,47	4,2	32,4
JARDUERA *	Lanean	767	1,48	4,3	32,0
	Ikasten	115	1,62	4,6	47,0
	Lanean eta ikasten	93	1,65	5,7	46,8
	Langabea	120	1,68	8,4	47,5
HABITATAREN TAMAIA	10.000 biztanle baino gutxiago	180	1,57	6,7	36,2
	10.000-49.999 biztanle	391	1,47	3,0	32,6
	50.000-99.999 biztanle	126	1,60	7,3	41,5
	100.000 biztanle edo gehiago	497	1,51	4,0	37,3
PROBINTZIA	Araba	210	1,49	1,2	40,0
	Gipuzkoa	320	1,57	6,1	37,5
	Bizkai	723	1,52	4,8	36,1
BIZIKIDETZA *	Bakarrik	138	1,52	4,2	36,7
	Aitarekin eta/edo amarekin	233	1,65	10,5	38,0
	Bikotekidearekin (seme-alabarik gabe)	278	1,50	3,3	37,9
	Bikotekidearekin eta seme-alabekin	430	1,49	3,8	34,0
	Seme-alabekin (bikotekiderik gabe)	82	1,37	0,0	29,5
					70,5
GIZARTE-KLASEA	Altua edo altua-ertaina	163	1,57	7,0	38,5
	Ertaina	620	1,52	3,8	38,3
	Baxua edo ertaina-baxua	456	1,51	4,3	34,3
BITARTEKO MATERIALIK EZA	Ez	756	1,49	3,9	34,9
	Arina	324	1,60	6,0	39,5
	Larria	172	1,56	4,4	42,2
SEXU-ORIENTAZIOA	Heterosexuala	1.116	1,53	4,8	37,1
	Homosexuala	49	1,45	1,8	38,0
	Bisexuala	51	1,43	3,1	27,5
BIKOTEKIDEA *	Bai, bikotekidea dauka	895	1,51	3,9	36,1
	Izan du, baina ez gaur egun	251	1,57	2,8	43,0
	Inoiz ez du bikotekide egonkorrik izan	106	1,62	14,3	31,6
ERLIJIOSITATEA *	Bat ere ez	640	1,42	3,3	27,8
	Apur bat fededun	303	1,57	3,9	42,3
	Oso fededun	273	1,70	8,2	49,7
IDEOLOGIA *	Ezkerra	467	1,40	3,1	25,7
	Zentroa	561	1,53	2,1	41,4
	Eskuina	167	1,80	11,5	54,9

* Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira. Pearsonen khi karratuaren froga, χ^2 ; $p < 0,05$. Profila **kutxatik at hein handiagoan**; estatistikoki esanguratsuak diren aldeekin; **kutxaren ertzean hein handiagoan**; **kutxaren barruan hein handiagoan**.


G49_G65. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neuritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? 1 = Guztiz desados; 2 = Desados; 3 = Ados; 4 = Guztiz ados; BIRKODETZA: 1-1,5, "kutxarik at"; 1,5-2,5, "ertzean"; eta 2,5-4, "kutxaren barruan" // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 1.252 pertsona.

41. GRAFIKOA. Maskulinitatearen kutxaren eskala. 15-65 urte bitarteko biztanleak; aldagai soziodemografiko nagusiak. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2024. (batezbestekoa; 1-4 eskala)



G49_G65. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? 1 = Guztiz desados; 2 = Desados; 3 = Ados; 4 = Guztiz ados; BIRKODETZE: 1-1,5, "kutxarik at"; 1,5-2,5, "ertzean"; eta 2,5-4, "kutxaren barruan". // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 1.252 pertsona. * Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

42. GRAFIKOA. Maskulinitatearen kutzarekiko posizioak. 15-65 urte bitarteko bi-
ztanleak; aldagai soziodemografiko nagusiak. Euskal Autonomia
Erkidegoa. 2024. (%)



G49_G65. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? // Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren 15 eta 65 urte bitarteko 1.252 pertsona. * Aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

7.3

GALDE-SORTA

A. BLOKEA. DATU PERTSONALAK

P1. Zure adina da... Idatzi adin zehatza (urteak)

P2. Zer zara?

Gizon	1
Emakume	2
Beste bat	3

P3. Ikasten jarraitu ala ez, zein da amaitu duzun ikasketa-mailarik altuena, hau da, titulu ofizial batean egiaztatuta duzuna?

Lehen mailako ikasketak edo beheragokoak	1
Derrigorrezko bigarren hezkuntza 1. Etapa (DBHko 1., 2. eta 3.)	2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak, 2. etapa (DBHko 4. maila, HLPP, Oinarrizko LH)	3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak (Batxilergoa)	4
Erdi-mailako LH	5
Goi-mailako LH	6
Unibertsitate-ikasketak (lizentzia, gradua)	7
Graduondoko ikasketak, masterra, doktoregoa	8
Beste titulu ofizial bat	9

P4. Zertan ari zara gaur egun?

Lan egiten dut	1
Ikasi egiten dut	2
Lan egiten dut nagusiki, eta ikasi ere egiten dut	3
Ikasi egiten dut nagusiki, eta lan ere egiten dut	4
Langabezian nago, lan bila	5
Langabezian nago, eta ez dut lana bilatzen eta ikasten	6
Ordaindu gabeko lana egiten dut (etxeko zereginak, etxeko kideen zaintza, boluntariotza...)	7
Erretiratua, aurretik erretiratua, pentsioduna	8
Beste egoera bat	9

P5. Zein da bizi zaren herriaren/hiriaren tamaina, gutxi gorabehera?

10.000 biztanle baino gutxiago	1
10.000-49.999 biztanle	2
50.000-99.999 biztanle	3
100.000-499.999 biztanle	4
500.000 biztanle edo gehiago	5
Ez daki / Ez du erantzun	99

P6. Euskal Autonomia Erkidegoko zer probintzian bizi zara?

Araba	1
Gipuzkoa	2
Bizkaia	3

P7. Norekin bizi zara gaur egun?

Bakarrik bizi naiz	1
Aitarekin eta/edo amarekin bizi naiz	2
Bikotekidearekin bizi naiz (seme-alabarik gabe)	3
Bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi naiz	4
Seme-alabekin bizi naiz (bikotekiderik gabe)	5
Beste bizikidetza mota bat (beste senide batekin/batzuekin, adiskide batekin/batzuekin, beste pertsona batekin/batzuekin eta abar)	6

P8. Pertsona asko gizarte-klasearen arabera definitzen dira, hau da, beren lanbidearen, diru-sarreraren, ikasketen eta abarren arabera. Zure kasuan, eta zure edo zure gurasoen (haien mende bizi bazara) lanbidea eta ikasketak kontuan hartuta, zein da zure gizarte-klasea, zure ustez?

Altua	1
Ertain-altua	2
Ertaina	3
Ertain-baxua	4
Baxua	5
Ez daki / Ez du erantzun	99

P9. Erlijio batekoa izan ala ez, esango al zenuke zein den zure erlijiozaletasun-maila? (Erabili 0-10 eskala; 0 “batere erlijiozalea ez” da, eta 10, berriz, “guztiz erlijiozalea”)

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	ED/EE
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	-------

P10. Ezker politikoa eta eskuin politikoa aipatzen dira maiz. 0-10 eskala batean, 0 “ezker-muturra” eta 10 “eskuin-muturra” izanik, non kokatuko zenuke zeure burua? *ED/EE*

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	ED/EE
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	-------

P11. Zure familia-unitatearen edo zure gastuen plangintzan parte hartzen duten pertsonen diru-sarrerak kontuan hartuta, esango al zenuke ondorengo ekintzen artean egin ezin duzunik edo azken urtean egin ezin izan duzunik badagoen? (*BIRATU*)

	Bai	Ez	ED/EE
Urtean gutxienez astebetez joan naiteke oporretara	1	2	99
Etxea tenperatura egokian eduki dezaket	1	2	99
Hilabete batean aurreikusi gabeko gastuei aurre egin diezaieket	1	2	99
Ordainagiri, mailegu, hipoteka, alokairu eta abarren ordainketa atzeratzea saihestu dezaket.	1	2	99
Kapritxoren bat bete dezaket hilean behin gutxienez (erosketak egitera joan, teknologia berritu, leku garesti batean afaldu eta abar)	1	2	99
Ordenagailua izan dezaket etxean, edozein motatakoa	1	2	99
Aisia-jarduerak egin ditzaket aldizka (etxetik kanpo afaldu, zinemara, kontzertuetara edo antzerkietara joan, parrandan ibili eta abar)	1	2	99

P12. Zein da zure sexu-orientazioa?

Heterosexuala	1
Homosexuala	2
Bisexuala	3
Beste bat	4
ED/EE	99

P13. Ba al duzu bikotekide edo harreman egonkorrik gaur egun?

Bai, bikotekidea dut gaur egun	1
Iraganean izan dut bikotekidea, baina gaur egun ez	2
Inoiz ez dut bikotekide egonkorrik izan	3
ED/EE	99

B BLOKEA. ONGIZATEA ETA EGOERA PERTSONALA

P14. Oro har, zure bizitzako alderdi guztiekiko gogobetetasuna kontuan hartuta, nola baloratu zenuke zure egungo zoriontasun-maila? Erabili 0-10 eskala; 0 "guztiz zoritxarrekoa" da, eta 10, berriz, "guztiz zoriontsua".

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	ED/EE
---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	-------

P15. Zure ustez, eguneroko bizitzan zer maiztasunarekin zara benetan zu zeu? Erabili 0-10 eskala; 0 "inoiz ez" da, eta 10, berriz, "beti".

Inoiz ez										Beti	ED/EE
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

P16. Azken hamabi hilabeteetan izan al duzu noizbait (edo uste izan duzu izan duzula) arazo psikologikorik, psikiatrikorik edo osasun mentalekorik?

Inoiz ez	1
Behin baino ez	2
Noizean behin	3
Maiz	4
Etengabe	5
ED/EE	99

P17. Izan al duzu inoiz suizidio-ideiarik?

Inoiz ez	1
Behin baino ez	2
Noizean behin	3
Maiz	4
Etengabe	5
ED/EE	99

P18. Ba al duzu lagunik zure bizitzako gai pertsonal eta emozionalei buruz hitz egitean eroso sentiarazten zaituenik? Bikotekidea kontuan hartu gabe, halakorik izanez gero.

Bai, mutilak baino ez	1
Bai, neskak baino ez	2
Bai, gizonezko zein emakumezko lagunekin	3
Ez	4

P19. Oro har, arazo pertsonalen bat duzunean, nori eskatzen diozu laguntza lehenik? Aukeratu BI pertsona gehienez (norbaitegana jo nahi duzunean gehienetan aukeratzeko dituzunak). *(ERANTZUN ANITZAK; GEHIENEKOA 2) (BIRATU)*

Amari	1
Aitari	2
BIKOTEKIDEA	3
Lagunari/lagunei (mutila/k)	4
Lagunari/lagunei (neska/k)	5
Anaiari/arrebari/nebari/ahizpari	6
Semeari/semei eta/edo alabari/alabei	7
Profesionalari (psikologoari, medikuari eta abar)	8
Interneten (sare sozialetan, foroetan eta abar)	9
Beste pertsona bati	10
Ez dut inoren laguntza bilatzen <i>(ERANTZU BAKARRA)</i>	11

C BLOKEA. NORTASUNA ETA ITXURA

G20_G33. Zenbaitetan, familiak, adiskideak, irakasleak edo gizarteak berak presioa egiten digute modu jakin batekoak izan gaitezten. Baloratuko al zenuke zer neurritan sentitzen duzun presio hori ondorengo alderdietan? Erabili 0-10 eskala; 0 “ez duzu inolako presiorik sentitzen” da, eta 10, berriz, “presio handia sentitzen duzu”. *(BIRATU)*

	Ez duzu inolako presiorik sentitzen										Presio handia sentitzen duzu		ED/EE
P20. Lanean edo ikasketetan arrakasta izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P21. Nire lagun taldeak bezala jardutea edo pentsatzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P22. Sare sozialetan arrakasta izatea (iruzkin positiboak edo “atsegin dut” asko izatea, jarraitzaileak lortzea eta abar)	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P23. Tristura edo antsietatea ezkutatzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

P24. Fisikoki erakargarria izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P25. Sexuan ona izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P26. Etxeko zereginak egitea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P27. Beste pertsona batzuk zaintzea eta emozionalki laguntzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P28. Indarkeria erabiltzea nire ospea edo ideiak defendatzeko	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P29. Harremanak pertsona heterosexualekin baino ez izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P30. Adorea erakustea, urduri edo ikaratuta egon arren	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P31. Aisia-testuinguruetan alkohola edo beste droga batzuk kontsumitzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P32. Bikotekide egonkorra izatea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P33. Ligatzeko garaian aurea hartzea	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

P34. (*FILTROA: P2 = 1, GIZON*) Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira ondoen definitzen zaituztenak? Irakurri arretaz aukera guztiak, eta aukeratu zure ustez zurekin gehien identifikatzen diren 5ak. (*ERANTZUN BAKARRA; GEHIENEKOA 5*) (*BIRATU*)

Dinamikoa, aktiboa	1
Langilea	2
Ikastuna	3
Nagia, alferra	4
Arduratsua	5
Sentibera, samurra	6
Mendekoa	7
Independentea	8
Enpatikoa	9
Berekoia	10
Posesiboa, jeloskorra	11
Erasokorra	12

Hotza, emozio urrikoa	13
Liderra, erabakitzailea	14
Oldartsua	15
Promiskuoa	16
Arduragabea	17
Heldugabea	18
ED/EE (ERANTZUN BAKARR) (BIRATU)	99

P35. Zure nortasuna, ezaugarriak eta itxura fisikoa kontuan hartuta, zer kalifikazio emango zenioke zure erakargarritasun-mailari? Erabili 0-10 eskala; 0 "batere erakargarria ez" da, eta 10, berriz, "guztiz erakargarria".

Batere erakargarria ez										Erakargarria	ED/EE
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

P36. Zer neurritaraino kezkatzen zaitu zure kanpoko irudiak, hau da, besteek itxura fisikoagatik zutaz pentsatzen dutenak?

Asko edo dezente kezkatzen nau	1
Zertxobait kezkatzen nau	2
Ia ez nau kezkatzen	3
Ez nau batere kezkatzen	4
ED/EE	99

P37. Ondoren, aisia-tarteetan egin daitezkeen ekintza batzuk ikusiko dituzu. Irakurriko al zenituzke esaldi guztiak eta bene-benetan adierazi zein egin dituzun azken 6 hilabeteetan? Hautatu egin dituzun guztiak (ERANTZUN ANITZAK) (BIRATU)

Alkohola edan ondoren gidatu dut	1
Cannabisa, kokaina, speeda edo pilulak kontsumitu ondoren gidatu dut	2
Baimendutakoa baino askoz abiadura handiagoan gidatu dut	3
Sexu-jokabide arriskutsuak izan ditut (preserbatiborik gabe, chemsex-a...)	4
Borroketan parte hartu dut	5
Autoz ibili naiz gidaria edanda/drogatuta zihoala	6
Aurrekoetako bat ere ez (ERANTZUN BAKARRA) (FINKATU)	7

G38_G40. Azken 6 hilabeteetan, zer maiztasunarekin gertatu zaizkizu ondorengo egoerak? *(BIRATU)*

	Inoiz ez	Gutxitan	Noizbait	Maiz	Oso maiz	ED/EE
P38. Arrazoiren batengatik norbaitek barre egin zizun, edo gustatu ez zitzaizun moduren batean deitu zizun	1	2	3	4	5	99
P34. Norbaitek iraindu egin zintuen, argazkiak argitaratu zituen zu lotsarazteko, edo mehatxatu egin zintuen testu-mezuen, sare sozialen edo beste aplikazio edo webgune baten bitartez	1	2	3	4	5	99
P40. Norbaitek indarkeria fisikoa erabili zuen zure aurka nahita, neurri handiagoan edo txikiagoan	1	2	3	4	5	99

G41_G43. Azken 6 hilabeteetan, zer maiztasunarekin egin dituzu ondorengo ekintzak? *(BIRATU)*

	Inoiz ez	Gutxitan	Noizbait	Maiz	Oso maiz	ED/EE
P34. Arrazoiren batengatik norbaiti barre egin zenion, edo gustatu ez zitzaion moduren batean deitu zenion	1	2	3	4	5	99
P42. Norbait iraindu egin zenuen, argazkiak argitaratu zenituen hura lotsarazteko, edo mehatxatu egin zenuen testu-mezuen, sare sozialen edo beste aplikazio edo webgune baten bitartez	1	2	3	4	5	99
P43. Indarkeria fisikoa erabili zenuen nahita norbaiten aurka, neurri handiagoan edo txikiagoan	1	2	3	4	5	99

D BLOKEA. MASKULINITATEA

P44. Txikitatik esan al dizute zure ingurune hurbilekoek (familiak, lagunak, auzotarrek eta abar) "benetako gizon" batek modu jakin batean jokatzeko duela edo jokatu behar duela?

Bai	1
Ez	2

P45. Eta txikitatik esan al dizute zure ingurune hurbilekoek “benetako emakume” batek modu jakin batean jokatzeko duela edo jokatu behar duela?

Bai	1
Ez	2

P46. *(FILTROA: P2 = 1, GIZON)* Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira gizarteak nagusiki gizonei esleitzen dizkienak? Irakurri arretaz aukera guztiak, eta aukeratu zure ustez gizartean, oro har, gizonekin gehien identifikatzen diren 5ak. *(ERANTZUN ANITZAK; GEHIENAKOA 5) (BIRATU)*

Dinamikoak, aktiboak	1
Langileak	2
Ikastunak	3
Nagiak, alferrak	4
Arduratsuak	5
Sentiberak, samurrak	6
Mendekoak	7
Independenteak	8
Enpatikoak	9
Berekoiak	10
Posesiboak, jeloskorak	11
Erasokorak	12
Hotzak, emozio urrikoak	13
Liderrak, erabakitzaileak	14
Oldartsuak	15
Promiskuoak	16
Arduragabeak	17
Heldugabeak	18
ED/EE <i>(ERANTZUN BAKARR) (BIRATU)</i>	99

P47. (FILTROA: P2 = 2, EMAKUME) Zure ustez, ondorengo ezaugarrien artean zein dira gizonak ondoen definitzen dituztenak? Irakurri arretaz aukera guztiak, eta aukeratu zure ustez gizonekin gehien identifikatzen diren 5ak. (ERANTZUN ANITZAK; GEHIENEOA 5) (BIRATU)

Dinamikoak, aktiboak	1
Langileak	2
Ikastunak	3
Nagiak, alferrak	4
Arduratsuak	5
Sentiberak, samurrak	6
Mendekoak	7
Independenteak	8
Enpatikoak	9
Berekoia	10
Posesiboak, jeloskorak	11
Erasokorak	12
Hotzak, emozio urrikoak	13
Liderrak, erabakitzaileak	14
Oldartsuak	15
Promiskuoak	16
Arduragabeak	17
Heldugabeak	18
ED/EE (ERANTZUN BAKARR) (BIRATU)	99

P48. (FILTROA: P2 = 1, GIZON) Eta, zure ustez, zer neurritaraino dator bat gizon izateko duzun modua gizarteak gizonengandik espero duenarekin? Erabili 0-10 eskala; 0 "ez dator batere bat" da, eta 10, berriz, "guztiz bat dator".

Ez dator batere bat										Guztiz bat dator	ED/EE
0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

G49_G57. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? (BIRATU)

	Guztiz desados	Desados	Ados	Guztiz ados
P49. Beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da	1	2	3	4

G49_G57. Zure iritzia kontuan hartuta, gizartearen gainerakoak zer pentsatzen duen alde batera utzita, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? *(BIRATU)*

	Gutiz desados	Desados	Ados	Gutiz ados
P49. Beste batzuen abusua jasaten duenean bere burua defendatzen ez duen gizona ahula da	1	2	3	4
P44. Gizonak beren artean konpondu beharko lituzkete beren arazo pertsonalak, besteei laguntza eskatu gabe	1	2	3	4
P44. Gizon batek ez luke negar egin behar jendaurrean	1	2	3	4
P52. Logikoa da gizonak indarkeria erabiltzea errespetua lortzeko, behar izanez gero	1	2	3	4
P53. Ez da ona mutil bati janaria prestatzen, josten, etxea garbitzen eta haur txikiagoak zaintzen erakustea	1	2	3	4
P54. Gizonak ekarri beharko lukete dirua etxera eta eurek mantendu beharko lukete familia, ez emakumeek	1	2	3	4
P55. Gizon batek beti izan beharko luke azken hitza bere bikote-harremanaren edo ezkontza-harremanaren inguruko erabakietan	1	2	3	4
P56. Mutil batek ez luke "nesken gauzetara" jolastu behar, txikitatik hasita	1	2	3	4
P57. Benetako gizon bat inoiz ezin da afeminatua izan	1	2	3	4

G58_G65. Era berean, zure iritzia soilik kontuan hartuta, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados edo ez zauden ados honako esaldi hauekin? *(BIRATU)*

	Gutiz desados	Desados	Ados	Gutiz ados
P58. Gizon batek ahalik eta sexu-bikotekide gehien eduki beharko lituzke	1	2	3	4
P59. Gizon batek bere bikotekidearekin sexu nahikorik ez badu, ulergarria da desleialtasun bat egitea	1	2	3	4
P60. Normala da gizon batek prostituziora jotzea sexu-harremanak izateko	1	2	3	4
P61. Normala da gizon batek ezagutzen ez duen eta erakargarria iruditzen zaion emakume bati gune publiko batean piropoak esatea	1	2	3	4
P62. Ez da gomendagarria gizon heterosexualak lagun homosexualak izatea	1	2	3	4
P63. Benetako gizonak heterosexualak dira	1	2	3	4

P64. Emakumeek ez dituzte bilatzen beren itxurarekin eta janzkerarekin asko kezkatzen diren gizonak	1	2	3	4
P65. Bere itxurari denbora asko eskaintzen dion gizona ez da oso maskulinoa	1	2	3	4

E BLOKEA. HARREMANAK, ROLAK ETA SINESMENAK

G66_G70. Emakumeek eta gizonak gizartean dituzten ezaugarri eta rolei dagokienez, esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados ondorengo esaldiekin? Erabili 0-10 eskala; 0 "batere ados ez" da, eta 10, berriz, "guztiz ados". (BIRATU)

	Batere ados ez										Guztiz ados		ED/EE
P66. Emakumeak gizonak baino hobeto prestatuta jaiotzen dira seme-alabak zaintzeko	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P67. Emakumeak gizonak baino emozionalagoak dira, eta ez dira hain arrazionalak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P68. Emakumeak gizonak baino manipulatzaileragoak dira	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P69. Gizonak emakumeek baino lan gogorragoak izan ohi dituzte	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P70. Gizonak beren kalteberatasuna eta afektibitatea agertzen ikasi behar dute	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

P71. Feministatzat al duzu zeure burua?

Bai	1
Ez	2
ED/EE	99

G72_G76. Ondoren, ondorengo esaldiekin duzun adostasun-maila adieraztea gustatuko litzaiguke, 1-10 eskalaren arabera, non 0 "guztiz desados" den, eta 10, berriz, "guztiz ados". (BIRATU)

	Guztiz desados										Guztiz ados		ED/EE
P72. Feminismoa beharrezkoa da gizonen eta emakumeen berdintasun erreala lortzeko	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	
P73. Feminismoak emakumeak zein gizonak inplikatu behar ditu	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99	

P74. Gizon batek bere inguru- neko pertsoneri kargu hartu beharko lieke jokabide ma- xistak agertzen badituzte	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P75. Emakumeen berdintasunaren sustapenean hain urrun iritsi gara, orain gizonak dira diskriminatuak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P76. Feminismoa ez da beharrezkoa, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna badagoelako	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

G77_G82. Ondorengo zerrendak bikote-harremanei lotutako hainbat alderdi planteatzen ditu. Esango al zenuke zer neurritaraino zauden ados ondorengo esaldiekin? (Erabili 0-10 eskala; 0 "batere ados ez" da, eta 10, berriz, "guztiz ados". *(BIRATU)*)

	Batere ados ez										Guztiz ados	ED/EE
P77. Bikote batean, ezinbestekoa da bakoitzak espazio propioa eta indibiduala izatea; ez da dena partekatu behar	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P78. Normala da zure bikotekidearen mugikorra miaztea engainatzen zaituela uste baduzu	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P79. Harreman sentimental batean, jeloskortasuna maitasunaren adierazgarri da	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P80. Mutil batek bere neska babestu behar du	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P81. Bikotekidea izateak esan nahi du erabateko dedikazioa eskaini behar zaiola beste pertsonari	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P82. Harreman batean, une oro zure bikotekidea non dagoen jakitea merezi duzu	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99

G83_G87. Ondorengo esaldiek GENERO-INDARKERIARI (indarkeria fisikoa, sexu-indarkeria, indarkeria ekonomikoa, kontrol-indarkeria eta abar) eta gizartean duen inpaktuari buruzko iritzi batzuk islatzen dituzte. Zein da zure adostasun-maila esaldi bakoitzarekin? Baloratu 0-10 eskalan; 0 “batere ados ez” da, eta 10, berriz, “guztiz ados”. *(BIRATU)*

	Batere ados ez										Guztiz ados	ED/EE
P83. Intentsitate txikikoa bada, ez da arazoa bikote-harremanerako	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P84. Ez dago halakorik, asmakizun ideologikoa da	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P85. Genero-indarkeria oso gizarte-arazo larria da	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P86. Gizonek emakumeen aurka erabiltzen duten indarkeria eta emakumeek gizonen aurka erabiltzen dutena berdinak dira	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99
P87. Errugabetasun-presuntzioa galdu egin da gizonentzat	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	99